



Ezkontza

Gehigarri berezia → 10-22

ARANTZA → 26

Mozorro Besta
martxoaren 17an

MERKATARITZA → 29/42

Aukeren azoka
Donezteben eta Elizondon

BAZTAN → 42

'Iruritan eskuaraz'
eguna martxoaren 24an

BERTSOLARITZA → 50

Bardoak 2012 Ituren,
Igantzi eta Leitzan



ARGAZKIA:
ITZIAR ALFORJA
OIHANE LARRAÑEGI

Baztandarra kooperatibaren gasnategia 25 bazkideren artean erosi berri dute

Gorramendi gasnategi berriak 25.000 kilo gasna egitea aurreikusiak ditu aurten

Orain arte Baztangoa Gasnategia zena kanpoko industria haundi baten esku gelditu baino lehen, bazkide batzuek pausua eman eta eurek erostea erabaki dute. Bazkideetatik 9 artzainak dira eta bi langile kontratatu dituzte produkzioa eta salmentarako. → 4-5

Joxelu RETEGI | Nafarroako Herri Kirol Federazioa



**«Gazteak herri kirolek
hurbiltzea gustatuko
litzaziguke»**

Nafarroan herri kirola
zabaltzeko lanean,
Nafarroako Herri Kirol
Federazioak 20 urte egin
berri ditu.

→ 52

Kepa OLAIZOLA | Agoteei buruzko liburua idatzi du

**«Oraingoz ez dit
historialari bakar batek
zuzendu edo gezurtatu»**

Duela bi urte argitaratu zuen
Agote secreto revelado
liburua eta apirilaren 13an
solasaldia eskainiko du
Elizondoko Arizkunenean
19:30etik aitzinera. → 3



BERA → 23

Aitzinetik Sara,
Legasa eta
Azkainen egin den
bezala, aurtengo
Gazte Eguna
Beran ospatuko
da larunbatean,
egun osoko
egitarauarekin.

«Esaldi bat: froga bat». Hori da ama etxalartarra eta aita oiartzuarra zuen hendaian honen lan moldea. Eta sistema hori erabiliz egindako lana argitaratu zuen duela bi urte

Agote secreto revelado liburua. Agoteak zein ziren, nondik etorri ziren eta zein bizi-modu eraman zuten argitu duela dio, inolako zalantzarik gabe. «Bi urteotan ez dit his-

toriatzaile bakar batek ere zuzendu edo gezurtatu», aipatu digu. Apirilaren 13an, solasaldia eskainiko du Elizondoko Arizkunenean, 19:30etik aitzinera.

Kepa OLAIZOLA ARBURUA | «Agote Secreto revelado» liburuaren egilea

«XIII. mendean Inkisiziotik ihesian etorritako kataroak ziren agoteak»

Aitor AROTZENA

Agoteei inguruan dagoen misterio guztia argitu duzula diozu...

Orain artean agoteei buruz idatzi dena eleberriak dira. Jende diskriminatua eta umiliatua izan zela badakigu, baina inork ez du datu garbirik eman. Ni ikertzen hasi nintzen eta liburua argitaratu nuen duela bi urte.

Eta zein ziren bada agoteak?

1209an albigense edo kataroen kontrako gurutzada hasi zen. Urte horretako uztailaren 22an eta 23an 10.000 pertsona hil zituzten. Gurutzada horretatik eta Inkisiziotik ihesian Akitaniara, Nafarroara, Euskadira, Aragoira joandako kataroak dira agoteak, exodo handi bat izan zen. Ulergarria da. 207 kataro erre zituzten 1244an Montsegurren, ikaragarria izan zen eta horretatik ere ihesean joan ziren. Ekialdetik Mendebaldera, Languedocetik Akitania aldera, Akitania lurralde ingelese zelako orduan, eta han ez zegoen ez gurtzadarik ezta Inkisiziorik ere, bertan babesa topatu zuten. Hori baieztatu dezaket probak ditudalako eta liburuan ageri dira. Esaldi bat, froga bat. Hori da neretzako historia eta horrela lan egiten dut, beharbada urtetan injenia-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kepa Olaizola Donibane Lohizuneko portuan. Gibelean Ziburu ageri da, agoteen kabi.

ri elektromekanikoa izan naizelako. Bi urte badi-ra liburua argitaratu nuela eta ez dut gezurtapen bakarrik ere jaso. **Baina gai honen inguruan hainbat teoria, artikululu, liburu... daude. Zergatik diozu zurea dela zuzena?**

Kataroen pista segituenen pista zuzena. Kataroen eremuan, Toulousetik Montsegurre-ra, bada Agout izeneko ibaia, baina XIII. mendean okzitaneraz solasten zuten eta hizkuntz horretan Agot erraten da. Horra agote hitzaren jatorria. Orain arteko agoteei buruzko liburu eta artikululu guz-

ITZULPENEA

«Jendea 1000. urteko Bearneko Kartularioaz aritzen da baina nik bakarrik itzuli dut latinetik frantsesera. Donazio-agiri bat bertzerik ez da, ez du agoteekin inolako loturarik. Testuan *Christianus* hitza ageri dela ikusi eta agoteekin lotu zuen historiataile batek. Izen arrunt bat bertzerik ez da, baina hori erran eta bertze-ek errepikatu, azkenean agoteei buruzko tontakeria pila bat agertzen dira».

tiak berdinduz bukatzen dira: ez dakigu. Baina nik sekretua azaleratu dut, egia topatu dut, egiazki historia argitu dut frogekin eta frogekin. **Eritasunak zituztela zioten, marginatuak bizi ziren... Hori dena egia da?** Legena edo lepra zutela erraten zen, baina hori gezur handia da. Inoiz ez zuten izan eta hori ere frogatzen dut, denak garbiak ziren. 1960 eta 1977 urteen artean ere Bozaten ikerketa egin zuen M^a Carmen Aguirre Delclaux medikuak eta agoteek osasun ona zutela erakutsi zuen. Ez ziren bertze arraza batekoak, eta denak ez ziren ileho-

riak eta begi urdinak. Denetarik bazen. Baina bai, marginatuak bizi ziren batez ere Akitanian eta Nafarroan legenen gezur hori zabaldu zelako, ez ordea Aragoi edo Gipuzkoan. Gainera, girixtinoak izanagatik, San Juanen Biblia segitzen zuten eta hori arriskutsua zen Aita Sainduarendako. Kataroen erlijione hori ez berpizteko legena zutela zabaldu zen. Gezurra.

Eskulangile onak ere zirela aipatzen da. Zergatik?

Ustez legena zutelako ez zieten uzten lurra lantzen edo aziendak hazten, jendea beldur zelako. Zura eta harriaren bitartez legena ez zela kutsatzen uste baitzen, harria eta zura lantzerantz behartuak izan ziren eta hargin eta zurgin bikainak izan ziren. Mendez mende elizak, zubiak eta itsasontziak agoteek egin zituzten. Baina exodoaren garaian denak ez ziren jende xumeak, baziren po-break, baziren eskulangileak, baziren burgesak, baina baita zaldunak ere. Ziburun, Jean de Montsegur agotea Espainiako Karlos V.aren armada osoaren kapitain izan zen. Bertze agote batek, Jean de Malloq-ek sortu zituen Cauteretseko bainuak. Hauek ez zuten lehenik! Jende xeheak bai, baina zaldunek ez.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Ezkerretik hasita, Ibai Etxart salmenta arduraduna, Lourdes Iturbide bazkidea eta Aitor eta Jaime Urrutia anaiak, Amaiurko artzainak.

GIZARTEA → GASNATEGI BERRIA BAZTANEN

Gorramendi izenarekin gasna berria merkaturatuko dute Baztanen hilabete honetan

Baztandarra Kooperatibak egin zuen gasnategia
25 bazkideren artean erosi dute berriki

Baztandarra Kooperatibak inbertsio handia egin zuen 2007an gasnategi berria eraikiz. Baina urteekin ez dela errentagarria

ikusita eta saltzea erabaki zuen. 25 bazkidek erosi egin dute gasnategia eta hortik sortu da Gorramendi gasna.

G. PIKABEA | BAZTAN

Ilusioz eta gogoz. Halaxe hasi du ibilbide berria Baztango Gorramendi gasnategiak. Urte hasieran ekin zioten gasnak egiteari, urtarri-laren 3an, zehazki, eta

hilabete honen erdialderamerkaturatuko dute lehendabiziko produktua, Baztango ardi latxaren esne gordina-ekin egindako gasna, eta naturala, tratamendurik gabekoa.

Baztandarra Kooperatibak duela lau-pabortz urte eraiki zuen gasnategian, Arizkungo Ordoki industrialdean, hortxe du egoitza Gorramendi gasnategiak. Gasnategia kooperati-

barena izan da berriki arte, eta horegin eta kudeatu izan du Baztangoa izeneko gasna. Baina nonbait, gasnategia ez da errentagarria izan kooperatibarentzat eta galerak ekarri dizkio, inbertsio handia egin eta horri buelta ezin emanez ibili baitira.

Errentagarria ez zela ikusita, gasnategia saltzea erabaki zuen Baztandarra Kooperatibak. Erosteke interesatu bat baino gehiago agertu ziren, eta kanpoko industriaren batek erosteko aukeraren aitzinean, bertako zenbait lagunek horri aterabidea ematea pentsatu zuten: «pena ematen zigulako kanpoko industria haundi baten esku gelditzeak», dio Lourdes Iturbide bazkideak. Eta hala, bazkide batzuek Gorramendi SAT Transformazio Nekazaritza Elkarte sortzea erabaki zuten. Joan den abenduaren 15ean gel-

ditu zen gasnategia bazkide horien esku, aitzinetik bilera bat baino gehiago egin ondotik. Egitasmoa aitzinera zihoan heinean, batzuk gibelerat gelditu zirela ere kontatu digu Iturbidek.

25 bazkide dira apustu berri honen alde egin dutenak. Elkarrekin zortzi laguneko batzordea du, eta Pantxo Etxeberre amaiurtarra da lehen-dakaria. Hala ere, hilabete behin eta erabaki potoloak tartean daudenean, bazkide guztiak biltzeko asanbladak egiten dituzte. Hortaz aparte, bi langile kontratatu dituzte, Ibai Etxart salmenta arduraduna eta Joxemari Etxart gasnagilea. Bazkideetatik bederatzi artzainak dira, Orabidea, Amaiur, Erratzu, Arizkun, Lekaroz eta Beuntza-koak. Tartean daude Aitor eta Jaime Urrutia Amaiurko anaiak. Hasiera batean, bederatzi ar-

tzain horien esnea erabiltzen ari dira gasnak egiteko. Urtean, gutti goitibeheiti, 170.000 litro esne bildu eta 25.000 kilo gasna egitea aurreikusia dute, eta neurri aunitzetakoak: kilo batetakoak, kilo eta erdikoak, hiru kilokoak... Egun batean esnea bildu eta hurrengoan gasnak egiten dituzte.

KALITATEKO PRODUKTUA

Kalitatego gasna ona egitea dute helburu, eta hortaz, hasiera-hasieratik kontrolak egiten ari dira. Ibai Etxartek azaldu digunez, «astean behin laginak hartzen ditugu. Ahal den ezaugarri gehienak neurtzen ari gara eta artzain jakin bati zerbait goratu bazaio, momentuan zuzentzen saiatzen gara. Ahalik eta esne hoberena behar dugu, hori baita gasna ona egiteko sekretua».

Gasna on bat egiteko haratago, erronka «soziala» ere badute Gorramendi gasnategian: «hemengo kultura, artzainen bizitza mantentzea eta beraiei prezio duin bat bermatzea». Izan ere, gasnategia

kanpoko industriaren batek hartu izatera, «esnea prezio lotsagarrian ordainduko liekete artzainei eta bortz urtez artzainen erdiak desgertuko liratekeela» us-te dute. «Artzain haundi batzuk baino ez lirateke geldituko, bakoitza auskalo zein arrazatara mila ardirekin». Horren ordez, «hemengo ekonomia hemen gelditzearen» alde egin dute.

Badakite merkatuan lehiatzea zaila izan daitekeela, «gasna aunitz daudelako eta bertze ardi arrazen esnearekin gasnaren ekoizpena aunitz haunditu delako». Gorramendi gasnarekin, ordea, ez dute prezio aldetik lehiatzeko asmorik: «gasna ona egiten saiatuko gara eta bezeroari hori eskaintzen. Gasna horrek badu kostu bat eta ez ditugu, enpresa haundiek bezala, prezioak jeitsiko, gero artzainei ez ordainzeko. Gasnak bere lana badu. Gure artzainek egunero ateratzen dituzte belagaira ardiak, udan mendira, gasna hauei egunero ematen diogu

DATUA

25.000

KILO GASNA egitea aurreikusi dute urtean, 170.000 litro esnerekin.

BERTAKO ARTZAINAK

Amaiur, Arizkun, Erratzu, Lekaroz, Lekaroz eta Beuntzako bederatzi artzainen esnea erabiltzen dute gasnak egiteko. «Mantso-mantso» hasi nahi dute.

buelta...». Alde horretatik, «gasna ahalik eta gehien mimatzen saiatuko» direla azpimarratu digute, «guregandik hasi eta bezeroengana ailegatu bitarte». Bezeroei, berriz, «gasna batzuk ona izatetik aparte, gibelean artzain horien biziraupena eta kooperatibaren lana eta filosofia daudela» erakutsi nahi diete.

Bere garaian, Baztandarra Kooperatibak



ARGAZKIAK: ITZIAR ALFORJA ETA OIHANE LARRAÑEGI
Egun batean esnea bildu eta hurrengoan gasnak egiten dituzte Gorramendi gasnategian.

40 artzainen esnea gasna egitera bideratu nahi izan zuten. Gorramendik, ordea, «mantso-mantso» hasi nahi du, bederatzi artzainekin, eta beharren arabera egokituz. Dena den, argi utzi nahi izan dute «proiektua zabalik dagoela nahi duenarentzat. Ez da elkarte itxia, eta proiektuan parte hartzeko prest dagoen edozein esku zabalik hartuko dugu». Izan ere,

Gorramendi gasnategiaren helburua, «ahalik eta artzain gehieneri esnea prezio duinean saltzeko aukera eskaintzea da». Eta oraingoz esne guztiarekin gasna egiteko asmoa badute ere, ez dute baztertu etorkizunean bertzelako produktuak merkatutzeko aukera, esnea bere saltzea edo gaztanberak egitea, adibidez. «Denborak erranen du hori».

IDIAZABALEN BARNE

Gorramendi eta Belai: bi izen, baina gazta berdina

Gorramendi gasnaren ezaugarriak ondo-koak dira:

- Baztango ardi latxaren esnearekin egina da.
- Esnea, gatzagia, hartzigarria eta gatzatza bere osagaiak.
- Naturala da, eta ez dute tratamendurik erabiltzen.
- Esne gordinarekin egindako gasna da, pasteurizatu gabekoa.
- Betiko gasna ondura da.

BI IZEN

Bi izen erabiliko dituzte gasna merkaturatzerako orduan. Gasna Gorramendi izenarekin bataiatu dute, eta izen horrekin salduko dute gure eskualdean: «hemengo jendeari, behar bada, Idiazabalgoa izateak ez dio deus erraten. Eta pu-

bliko horri hemengo gasna bat eskaintzen saiatuko gara, badakite nor garen, nongo artzainak garen...», azaldu du Ibai Etxartek. Eskualdetik, kanpo, ordea, Idiazabal jatorri izendapenaren barrenean salduko dute,

Belai izenarekin. «Idiazabal kaliare onaren bermatzailea delako, bereizgarri bat», dio Etxartek.

Dena den, garbi dute izena diferentia izanagatik, gazta berdina dela, modu berean egindakoa.





Nire txanda
Ruben GARATE

Barreraren bertze aldetik

Gauzak barreraren bertze aldetik ikusarazten gaituzten artikulu horietako bat irakurri nuen egunkari batean duela denbora bat. Herri ttikietako medikuetaz ari zen, larrialdietakoak zehazki. Nik, eta nik bezala, gutariko aunitzek medikuetan modu negatiboan pentsatu izan dugu, berandu ailegatzen direla, ez daudela ongi prestatuak eta gisakoak. Bada, artikulu hori irakurrita, ez genuen berdin pentsatuko. Ba al zenekien pistentan barna ibiltzen dituzten autoak bereak pertsonalak direla? Autoak izan dezakeen edozein matxura beraien kontura moldatu behar dutela? Pertsona bat atenditzera lehenbailehen joateagatik isuna jasotzen ahal dutela auto partikularrak direlako? Baina okerrrena, berez ezin dute oxigeno bonbonarik eraman, baina egiten dute, eriak laguntzeko. Eta orain, egoera hau imaginatu ondotik, mediku zerbitzua bere autoan, gure inguruan ditugun pista horietan barna oxigeno-bonbonarekin, desfibriladore (elektrikoarekin), dena autoaren erregai deposituaren ondotik, zera galdetzen ahal dugu: Premia guzti hauek betetzeko ez al dago behar bezala prestatutako autorik?

Ezpala
Aitor AROTZENA

Martxoaren 8ko datuak

Egun berezia Munduaren erdiarentzat. Bertze erdia ere emakume baten sabeletik ateriala ahantzi gabe. Pobreziak, gero eta gehiago emakume aurpegia duela diote. Munduko lan orduen %67 emakumeek egiten dute, munduko soldaten %10aren truke. Jabetzaren %1 bertzerik ez omen dago emakumearen esku. Oraindik ere berdin-berdinak garela uste duzue?

Nabarmentzekoak



Joxe ETXEBERRIA
Doneztebeko erremonelaria

Egindako tantuak kontuan hartuz Oriamendi 2010 enpresak egiten duen rankingaren arabera, bai urtarilean baita otsailean ere erremonelari onena izan da Doneztebeko atzelaria.



Sébastien ANZIZAR
Sarako pisutegikoa

2010. urtera arte, 40 urtez animaliak edo artilea pisatzeko Sarako lhartze berrian erabiltzen zen pisutegiko arduradun izan da eta Sarako Herriko Etxearen medaila ukan du.



Xabi ARRAZTOA
Iruritako pilotaria

Malerrekako pilota txapelketan elite mailan bi urtez segidan txapel-dun suertatu den pilotari bakarra da Iruritako atzelaria. Joan den urtean Onsalorekin eta aurtun Diazekin aritu da.

Atzera begira → 1998.03.12 / TTIPI-TTAPA 225. zbk



Mendi Mutilak: Garai bateko lanbidea

Izenburu horrekin, gure herriak mutil gaztez hustutzen zituen eta desagertze-ko bidean zegoen lanbideaz aritu zen TTIPI-TTAPA duela 14 urte (argazkian, 1958an Ezkurratik joandako hamabi lagunak ageri dira, Italiako Jose enkargatuarekin). Lanbide gogorra zen, 1960. hamarkada bitarte ez baitzen motozerra sartu eta astelehenetik igande eguerdira bitarte aritzen ziren, goizetik gauera: «Han ez zen bestarik» zioten lanbide hartan aritutakoek. Ezkurrako Pantxito Gorostiagak gogoratzen zuenez, «euskaldunak oso estimatuak izaten ginen mendi lanean».



Argitaratzailea TtiPI-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttiPI.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontzi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidente Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitza16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak
diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Independentziarako hamaika arrazoi

Ainara MAIA

Euskaldunok: Zer moduz zabilgizate? Ni pixka bat ahul nabil bihotzetik, baina esperantza amini bat oraindik, haizea txistuka dabilkit, eta iratzartzen ari da hartza, udaberriaz goza dezagun amodioz beterik. Espainiak eta Frantziak ez diote oraindik behar bezala eskua luzatu Euskal Herriari, eta ez dakit erantzungo dioten garai itxaropentsu eta liluragarri hauetan. Baina argi daukat Espainiak bere monarkiari eta Frantziak bere errepublikari eutsiko diotela kosta ahala kosta euren konstituzioa eta legedia eskuetan.

Beraz, euskaldunok, guk ere geureari eutsi behar diogu: gure lurraldetasunaren anaitasunari eta ametsei. Independentzia nahi dugu, horregatik eman baitzuten bitzita duela 500 urte gure arbaso euskaldunak, ausart, eta haiei ohore eginez eta ondoren etorri diren saiakera huts guztiengatik jokatu dezagun ausart, askatzeko kateak eta gure esparru propioa sortzeko.

Horretarako, badira hamaika arrazoi arlo guztietako krisi garai hauetan:

1. XX mendea hasi zenetik, Europa zahar honetan bikoiztu egin da independizatu diren herrialdeak, eta estatu propioa dute horrek dakarren abantaila guztiarekin, hala nola inori ez diote konturik eskatu behar urtero eskumenak eskatzeko, ez dira bizi propinekin odola ere eman ondoren.

2. 40 milioi espainiarren eta 60 milioi frantziarren krisi ekonomikoaren zama 3 milioi euskaldunok ere eraman behar dugu bizkar gainean, eta ez da justua, ala? 3 milioi euskaldunok nahikoa dugu gure pisuarekin.

3. Independentziazaletasuna gorantz doa estatu zurrunez osatutako Europa honetan, gurean eta kanpoan, eta ikusgarri egin behar dugu libre izateko euskaldunon nahia, erakutsi gu garelako lehenbiziko europar beregainak.

4. Baliabide natural eta ekonomikoak kudeatzea errazagoa da estatu txikietan, biztanle asko bizi ez den tokietan, begira Suedia, Suitza, Luxenburgo eta Finlandia kasuei. Herrialde bateko aberastasuna hobeki banatzen da buruko.

5. Arrazoi ekonomikoak indartsuak dira garaiotan, baina zer esanik ez gure kultura eta hizkuntzak aurrera egin dezaten, euskararen lehentasuna ezarri behar da botearean, eta hori, euskaldunok, independente bagara lortuko dugu, etxe propioa dugunean.

6. Espainiatik eta Frantziatik kanpo dena izango dugu posible, euskaldun guztiok elkar harturik; Espainia eta Frantziarekin harreman onak nahi ditugu berdinetik berdiner. Haiei onena opa diegu, ala?

7. Baina utz gaitzate la hegan egiten libre, utz gaitzate la gu geu izaten, utz gaitzate la hutsegiten eta erortzen. Guraso onak seme-alabei bezala.

8. Eta zuk, kamarada, zer pentsatzen duzu, sentitzen duzu, independente izan nahi duzu hobeki bizitzeko aukera izan dezagun?

Bitartean heldu eskutik, arren, maitasunez, izan gaitzen zoriontsu bihotz bihotzez.

M-29 Greba Orokorra, inposaketen aurrean burujabetza!

Koldo SAENZ (LAB)

2008an krisia hasi zenean LABetik argi ikusi genuen eta horrela adierazi genuen, kapitalak eta patronalak krisi egoera hau erabili nahiko zuela, langileok borrokaren bitartez lortu genituen eskubideak murrizten joateko, eta zoritxarrez denborak arrazoiak eman digu.

Austeritatearen izenean, eta 'merkatuek' hola aginduta Espainiar estatuko gobernuak (orduan PSOE-ren gobernuak) murrizketak eta erreformak egiten hasi zen: lehenik lan erreforma bat, gero pentsioen erreforma, langile publikoei inposatu zitzaizen soldata jeitsiera, negoziazio kolektiboaren erreforma eta azkenik PPren gobernuak onartu berri duen lan erreforma.

Euskal Herrian eskubideen galtze horren aurka langileok era duin batean erantzun genuen kalean eta hiru greba orokor egin genituen, baina hala eta guztiz ere erreforma horiek inposatu egin zizkiguten; arrazoi sinple batengatik, Euskal Herriak ez du bere politika ekonomikoak erabakitzeko burujabetzarik beraz Madrilen onartzen dena inposatuko digute beti.

Azken erreforma hau inoiz burutu den lan erreformarik basatiena da, eta patronalari eskuak libre uzten dizkio nahi duena egiteko. Erran daiteke lan erreforma hau CEOeko lehendakariak idatzitakoa izan zitekeen eskatzen zuten guztia patronalari eman diote eta; kaleratzea merketu, kontratuak prekarizatu, Erregulazio espedienteak inposatzeko gaitasuna, estatu mailako hitzarmenei ahalmen gehiago ematea eta abar luze bat.

Egoera honen aitzinean langileok ezin dugu etxean gelditu eta erantzun egin behar dugu, baina klabe garrantzitsu batean erantzun behar dugu; ez da erantzun sindikal hutsa izan behar, erantzun sozial bat izan behar da. Greba deitu dugun sindikatuetatik haratago, jendarte oso baten borroka egun bat bihurtu behar dugu heldu den martxoaren 29-a. Euskal Herriak Madrileko gobernuari ozen erranen dio Euskal Herriak burujabetza behar eta nahi duela bere politika sozio-ekonomikoak erabakitzeko eta bide horretan pausak emanen ditugula, Greba orokorraren eguna prozesu horretan mugarri bat izanen delarik. Atera gaitzen aberztale eta ezkertiar garen guztiak heldu den martxoaren 29an Madrileko gobernuari oihukatzea ez ditugula inposaketarik onartuko eta gure burujabetzaren alde borrokan jarraituko dugula, hori da eta gelditzen zaigun bide bakarra: inposaketen aurka burujabetza lortzea.

«Langileok erantzun egin behar dugu, baina klabe garrantzitsu batean: ez da erantzun sindikal hutsa izan behar, erantzun soziala baizik»

Irakurleak mintzo

Espainiar
estatuko
lotsaren
urteurrena

Saharaztan

Hainbeste urte pasa direnean, heldu denarekin 36, estatuko agintariak emandako hitza nola jaten duten ikusteak hori pizten digu, ez gutxiago: lotsa.

Lotsa-emangarria baita Espainiar estatua-ren menpe egon zen herri batek jasan duen bazterketaren aitzineko ezaxola sumatzea. Lotsa-emangarria da herri horren lurraldearekin erabiltzen duzuen jolas modua konprobatzea.

Sahara Espainiako kolonia izan zen, horrek duen esanahi osoarekin. Espainiarrak izendatu zuten, 'patriaren' zatia, frankistei komenigarria iruditu zitzaizkion. Sahararren hobe beharrez usiatu zuten eta, gero, Marokoaren hatzaparretan utzi ondoren, 'esku garbiketarena' itxuratzen duzue.

Ardura zuena da. Espainiak du, nazioarteko legearen arabera agintaritzatza.

Baino aldiro, gobernuaren aldaketa gauzatzeko den bakoitzean, antzerki lan berbera plazaratzen duzue: esandakoa atzendu, bereiz utzi eta huskeria bihurtu.

Ez Nazio Batuen aurrean, are gutxiago Marokoren aitzinean, ez duzue inolaz ere sahararren eskubideak babesteko dagokizuen egin

beharra betetzen. Arrantzak, fosfatoak, barazkiak eta Ipar Afrikako hiri-koloniak... edota, hobe esana, "espainiar" enpresariaren interesak duzue buruan. Hori da zuen benetako kezka, hitz poto-loen artean ezkutaturik.

Zuen lorpenez gero etamehegoak, ahulagoak diren gu herritar xumeen bizkar gelditu da sahararren biziraupena, jatekoa, sendatzekoa... nahitaezkoa duten gutxienezko laguntza.

Konpromisoa hartu dugu eta jarraitzeko prest gaude. Gurea beteko dugu baino, agian, holako batean, zuei kontuak eskatzeko indarra bilduko dugu.

Gaur, 1976ez geroztik 36 urte pasiak, 2012 otsailaren 27rako ez diguzue beste altxorrik eman. Lotsa eta hase-rearen pilaketa.

Beste behin, berriro ere, lelo bakarra: Sahara sahararentzat!

Andereño
Maria JesusiDoneztebeko San Miguel
eta Mendaur ikastetxeak

Gaur egun, itsasontzi handi batean itsaso bare eta geldietan zehar ibiltzea erraxa egiten ari zaigu. Baina zu, Doneztebeko ibaiak nahasiak eta indarrean jaisten zirela, txalupa txiki batekin itsasoratu zinen eta olatuen eraso eta bortizkeriari aurre eginez, eskolan eta



Bota bertsoa

Jon BARBERENA (Baztango bertso eskola) • Doinua: Zure eskaerak egia esan

Nafarroako konkista

Mila bortzehun (e)ta hamabiko
Noaingo biolentzia...
Gordinagoa suertatuko zen
gordin zena berez ia
mila bortzehun (e)ta hogeita biko
uztaila(re)n hemeretzia.
Hor galduko zen gaztelu baten
nortasuna, esentzia...
gudari za(ha)rren bizitza eta
gure independentzia.

Nola ahaztu Jaime Del Burgo-n
tesi edo parodia
egiak nonbait sortuko zion
beldurra, klaustrofobia.
Denbora ote da lineala edo
buelatka ari den noria?
Nahiz amnesia(na)stu nahi duten
euskaldunon memoria
etorkizuna ereingo dugu
a(ha)ztu gabe historia.



herrian gure hizkuntza
eta kultura zabaltzealor-
tu zenuen.

Ikasle asko izan dituzu,
eskolako argiak noiz-
nahi gaueko bederatzietan
itxali dituzu, zure ta-
koien ahotsek errespetua
sortzen zuten, zure
mezuak pisuzkoak eta
pentsatzekoak izan dira
baina egia erran, ikasle
ohien artean ez da Ma-
ria Jesusentzat hitz txar-
rik entzuten, zure eki-
men guztietan entzutea
eta errespetua izan bai-
tira balore nagusienak.

Eskolan zein herrian
ditugun ohitura asko eta
asko, betidanik eta ze-
rutik opari gisa iritsi zaiz-
kigula dirudien arren, zu-
re azarnak nabarmene-
giak dira eta denbora eta
egoera aldrebesen gai-
netik, hortxe izango di-
ra betiko.

Orain dela bi urte zu-
re erretiroa ospatu ge-
nuen eta agudo joan za-

ra baina bidea erakutsi
diguzu. Ea bide hori lu-
zatzeko gai garen.

Bizitzan eskerrak oneko-
ak behar dugu, beraz,
ikasle eta lankideon par-
tetik, herriaren partetik,
euskaldunon partetik eta
gizartearen partetik es-
ker mile aunitz.
Gero arte Maria Jesus.

Sartagudari
Oda

Gotzone REKONDO (Lesaka)

*Ai Sartaguda maitea!
Beti bazterrean
negar ixilean.
Maite ez zaituenak
ez zaitu inoiz ikusiko
zaren ederra ta lerdena.*

*Zenbat min
eta zenbat kalbario,
ezin kontatutako
sufrikario.*

*Mutu gelditu zinen
belaunaldiz belaunaldi
kikildu zinela koan,
ez zekiten
zure kemenaz,
zure indarraz.*

*Ai Sartaguda maitea!
bazterrean egoteagatik
baztertua...
zein da zure errua?
zein zure zoritxarreko
patua?*

*Neuk maite zaitut horrela
udan erregalatzen
dizkidazu
melokotoi muxu goxoak,
hain zara nafarra,
hain zara osoa!*

*Eta ezjakintasunak
uzten bazaitu berriz,
bazterrean...
oihu egidazu, maitea!
Neu joanen naiz
zure bila...
ni bainaiz herria,
ni bainaiz hizkuntza,
ni bainaiz aberria.*

*Jauntxoari muzin eginez
joanen gara hegan,
hegan eginez...
akaso Tuteraldira
edo nahi duzun herrira!*

*Maite zaitut, Sartaguda,
zuregatik bainaiz
nafarra ta baita
euskaltzalea!*

SOS Lodosa-Sartagu-
dako ikastola!
EUSKARAZ IKASTEKO
BALIABIDEAK,
NAFARRO OSOAN!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.net**
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Nafarroako mendialdean eta Gipuzkoako Beterriko herrietan Erdi Arotik zetorren behi, unai eta sarobeen sistema zaharra agortzen joan ahala, zabaltzen joan zen nekazal sistema [frogatu nahi dut ikerketaren bidez]. Nekazaritzaren hedapenarekin batera, ardi, artzain eta ardi-bordaren sistema nagusitu zen. Eboluzio horri lotuta, beste hiru fenomeno ematen dira: burdinolen industriaren gainbehera; Ameriketarik datorren arto eta arto-taloaren inguruan

baserriak sortzea, eta baserri horien luzapen modura ardi-bordak ere sortzen hastea; eta hirugarrenik, unaien mundu horren sostegu ziren sarobe eta herri lur asko, pribatuak zirenak, herri lur edo komunal bihurtzea. Eboluzio hori erakusteko, Leitzako udal artxibategian dagoen *Cuenta de vaqueros 1683-1781* dokumentua erabiliko dut ardatz gisa».

Patziku PERURENA
Idazlea
AIURRI, 2012.02.17

11 galdera labur

Nor dugu Jonmi Matxiarena?

Joe... erantzuteko zaila... ba lagun oso oso laguna, eta umorerik gabe bizi-tzen ez dakien gazte bizizale bat!

Zein afizio dituzu?

Lagunartean egon, edan eta eztabai-datu; musikaz gozatu, futbola...

Inauterien balantzzea eginen diguzu?

Uf, balantze bat egiteko oraindik ez nabil oso ondo (resakak gero eta egun gehiago irauten dit), baina balantze oso ona egiten dut.

Nolakoa heldu da Gazte Eguna?

Pixka bat errena dator, Odri eta Naia-ren atxiloketen ondoren. Aurten, are eta ozenago esan beharko dugu aski dela, errepresioa ez dela bidea eta utz gaitzela behingoz bakean!

Laugarren Gazte Eguna izanen da.

Zer aldatu da urte hauetan?

Inposaturiko mugak gero eta ezabatuago daude eskualdeko gazteen kontzientzietan, eta gure arteko harremanak, kostata, baina pixkanaka areagotzen doaz.

Hasierako helburuei eusten zaie?

Leloak dioenez, *mugak hautsiz, gazteria aitzinera*. Hori da helburu handiena, inposaturiko mugak hautsi eta gazteen indarrak, elkarlanean nahi dugun etorkizuna eraikitzea.

Zerk kezkatzen dituzte gazteak?

Herri honetan gazteak jasaten duen zapalketa, eskubide urraketa, eta gure inguruan batez ere, Poliziaren jazarpena, segimenduak eta errepresioa.

Oraingo gazteak ez direla lehen-goak bezalakoak diote aunitzek...

Beharbada, ez daude oso oker. Gazte asko sozialki eta kulturalki mugitzen da, baina beste portzentaje handi bat erosotasunean bizi da, bere herriko arazoei aurre egitea kostatzen zaio edo ez ikusiarena egiten du.

Nola ikusten dituzu inguruko gazteak?

Gazteen portzentaje altu bati normalean arazoa etxeko ateraino iristen ez bazaio, ez da asko mugitzen.

Zer eman dio gaztetxeak Berako herriari?

Kolorea eman dio. Edozein gazte edo ez hain gaztek dakienari buruz erakusteko espazioa eman dio; elkarlanean proiektuak sortu, ideiak eraiki, gizarte eredu berri baten bidea zabaldu...

Ametz bat?

Alaitz eta Maideren abestia da! Ez, serio, kuartelik gabeko Euskal Herria.



Jonmi MATXIARENA → Berako gaztea

USOA
Nekazaritza kooperatiba
Tel. eta Faxa: 946 63 52 14 + ETXALAR

Berriak egoteko perisak, bertze markak eta ekologikoa.
Organikak - Burdin trusak
Insektizidak - Edanak - Haziak
Botikak (jenezitarienak)
Etxez etxeko banaketa egiten da
Kalefakzioa eta ibigailuendako gailoak

ERREKALDE
PATEZ COMESTIBLES
BERRAK
Tf: 945 630 259 BERA

BIDASOA
BIDEKOA - BIDEKOA
BIDEKOA - BIDEKOA
T.F. 859 971 442
BERA

ERROTAZAR
harategia
Berrak
produktuak
Estagera, 3 - BERA
Tel/Faxa: 946 630 052

arrapak - marmitak
paninak - marmitak
sallak - kottinak
alfanbrak
Goya
Kontak: 946 630 052

TTIP: TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttapa.bera

udana
salazones
LAC
SOC-02-0199
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztuta
Bakailu gaztuta eta konjelatua, erabiltzeko prestatu
Salazones s.d. - Berata, 8 - 23. poliole - LESAKA - Tfno: 946 631 536 - Faxa: 946 631 550



EZKONTZA GEHIGARRIA 2012

JANTZIAK EMAZTEGAIENDAKO

Erromantikoa vs. minimalista

Emaztegaien jantzietan bi estilo erabat ezberdin ikusiko dira aurten. Vintage estiloko tendentzia erromantikoa eta minimalistagoa den joera.

Soineko erromantikoak, gona zabalak eta tirante bakarreko soinekoak izango dira nagusi aurtengo andregai jantzietan. Modan daude *palabra de honor* eskotea (besoak agerian uzten dituen), baita tirante bakarrekoak ere, *vintage* estiloko soinekoak, printzesa itxurako look-a, lazoak gerrian, kolorezko ukittuak soinekoetan, soinekoaren goiko aldea enkajezkoa izatea, bizkar guztia agerian uzten duten eskoteak, eta gona oso zabalak, andregaiari itxura erromantikoa emanaz. 2012an bi estilo ezberdin ikusiko dira:

Alde batetik, *vintage* estiloko tendentzia erromantikoa: silueta oso markatuak apaingarri ugariekin, bolumen handiko gonak enkajezko zurrunbilo fin ez osatuak eta lazo ugariz zein loredun motiboak dituzten tela gainjarriez apainduak; harribitxiak dituzten bordatuak, zilar-koloreko perla eta hariak, bihotz itxurako zein forma asimetrikoko *palabra de honor* eskoteak eta bizkarra erabat agerian uzten dituzten eskoteak. Ehundurei dagokionez nagusi izanen dira enkajea, zeta, satina eta brokatsuak. Soinekoen koloreetan zuria- ren tonaltate guztiak ikusiko ditugu, baita soineko batzuk arrosa argian. Soineko xurietan kolore biziko (gorria, urdin argia, arrosa, moratua, berdea) detaileak ere ikusiko ditugu.

Bestalde, minimalistagoa den tendentzia: zeta eta satina bezalako ehundura noblez egindako jantziak, evase formako zein sirena itxurako gonak eta goiko aldea estu-estua duten soinekoak. Aurten osagarriek aurreko urteetan baino garrantzi haundiagoa izanen dute: beloak asko ikusiko dira, soinekoaren

estiloaren arabera desberdinak izanen dira, batzuk oso luzeak eta leunak eta beste batzuk mantelina itxurakoak, modu desberdinez jarriak.

Andregaietako bolero eta berokietan ere diseinu ugari izanen dira.

Diadema eta tiarak eta lorez eta lumaz osatutako burukoak ere asko ikusiko dira.

OINETAKOAK

Andregaietako oinetakoetan eskaintza ugari daude, lokarriekin lotutako botinetatik hasita plataformadun peep toe-taraino.

Andregaien zapata klasikoak eraberrituko dira: brillanteekin, perlekin, bordatuekin... apainduak aurkituko ditugu. Sandaliak asko erabiliko dira, itxura desberdinekin: xuriak, urre-kolorekoak, zilar-kolorekoak, harribitxiak. Aurten tendentzia dira takoi oso altuak eta zapataren atzeko aldean edo takoiaren harribitxiko inkrustazioak dituzten zapatak.



TEXARTU

Euskal ezkontzak
Josteko eta brodatzeko gure tailerra daukagu

San Frantzisko 8 eta 10
Ald. Zaharra • IRUÑA
T. 948 22 64 95 • www.texartu.com

JANTZIAK SENARGAIENDAKO

Dotore eta aldi berean xalo


2012rako azken joerak oinarritzko bi motatako senargai jantziak aurkezten dizkigute: sastre trajeak eta txakea. Giblean gelditu dira frak edo esmokinarekin jantzitako senargaiak.

Aurtengo joera senargai dotore eta aldi berean xumea izanen da, kolore ukittu finak emanez osagarri ezberdinei, korbata edo txaleko-ei errate baterako.

SASTRE TRAJEAK

Zenbait arrazoiengatik, gehien erabiltzen den trajea da:

- Edozein ospakizunetan erabiltzen ahal den trajea da.
 - Gizonezkoek nahiago dute, bertze senargai traje batzuk bezain "disfraz" ez dela uste baitute.
- 2012rako kolore ilunetan datoz sastre trajeak eta osagarriek ematen diote kolorea. Txaketak senargaia-
ren siluetara egokitzen dira doto-



retasuna emanez. Botoi bakarreko txaketak bueltatuko dira.

TXAKEA

Ezkontza klasikoagoetan senargaiak txakea aukeratzen dute. Galtzak marra diplomatiko xuabegoekin datoz. Korbata eta txalekoek betiko koloreak berreskuratuko dituzte. Ato-
rra txuriak eta korbata estuagoak.



JUAN J. PIKABEA
SENARGAIENTZAKO TRAJEA
ZURE NEURRIRA
15 egunez

Neurri handiak
Galtzak eta bakeroak 70 arte
Atozrak 56 arte
Jertseak
SILBERRA HIZTARI GALTZAI

Amekitia z/g • DONEXTI • 948 451 670

MERCHÉ
MODA HOMBRE

Giovani Valdi • Sandro Sellini • Caramelo gala
Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943 612 626

www.capeleltimercheirun.com

Facebook icon



ainhoa
estilista

ORAIN: Albistur, 63B-an LESAKAN
948 638 170

Amaya Picabea

- Tratamendu bereziak
- Makillajea
- Manikura
- Depilazioa
- Solariuma

Amestria z/g • DONEZTEBE
T. 948 450 163

ILEA

Jantziekin batera aldatzen da andregaiaren orrazkera

Emaztegaiei jantziak aldatzen dira denboralditik denboraldira eta disenatzaileek hartzen duten inspirazioa ere urtetik urtera aldatzen da.

Ezkontzako lookean oinarritzkoa den emaztegaieiaren orrazkera ere, jantzien diseinu eta estilo ezberdinetara egokitzen da.

Azkeneko hilabeteetan zalaparta dexente sortu duten eta joera markatu duten bi ekitaldi hartu dituzte gehien bat abiapuntutzat jantzien diseinatzaileek, hain zuzen erret-ezkontzak eta *The Black Swan* filmaren balletaren munda. Ingalaterran ospatu zen ezkontzak burukoien inguruan mugarrria ezarri zuen eta Natalie Portmanek lortu zuen Oscarrak eta komunikabideetan izan

zuen arrakastak, bailarina estiloko xehetasunak sartu zituen emaztegaiei jantzietan. Orrazkera edo ileko konplementoak aukeratzeko orduan joera hauek hartu behar dira kontuan:

- Burukoak demokratizatu egin dira eta ukitu chic eta glamurosoak hartzen dituzte. Kasu honetan, minimalismoaren alde egin, ilebildu zoragarri bat eta makilaje arina.

- Mantelina motako emaztegai beloa lortu edo enkajez egindako tradizional batekin saiatu, tularekin edo bordatuekin ... Eta apuntatu zaitez *vintage* estilora.

- Bailarina itxurako ilebilduak perfektuak dira buruko edo belo estilo ezberdinak erakusteko. Aurpegia ongi erakustea eramaten da!

Koleta ere aukera ona da, erosotasunez orraztea nahi baduzu. Udaberri-uda ailegatzan denean aukera ederra da emaztegaieiendako, garai horretan orrazkerak lasaigoak eta naturalagoak direlako. Eguraldiak hain egun zoragarria hondatzen ahal du neguan, baina eguraldia hobetzen denean eta ospakizuna kanpoan egiten denean, ez dira hain ongi ikusiak neguko orrazkera super estilizatu horiek.

AZKEN JOERAK


1- Ilebildu osoetan, ilebildu baxuak erabiltzen dira, orrazkera hagitz modernoak eta xingleak... Osagarriak loreak, trabak eta pasadoreak dira.

2- Melena soltea, melena uhinekin eta melena erdi soltea ere modan daude andregai orrazkeran. Kixkurra nahiz lisoan, diadema, loreak eta trabak dira osagarriak.

3- Aurten, ilebilduetan uhinak dituzten andregai orrazkerak eramanen dira, orrazkera erromantikoak eta osagarri moduan tiara, loreak edo diadema eraman daitezke.

4- Ilebildu erdiak ere ikusiko dira denboraldi honetan, osagarri moduan lumak, tiara, trabak, loreak eta diademak erabiliz.


5- Alde batera egindako koleta, moño altuak, koleta uhinekin edo alde batera egindako moño baxua ere ikusiko dira eta osagarri moduan lumak, diademak, beloa, loreak eta pasadoreak.



MAKILLAJEA

Larruazala ongi zaintzen hastea da onena

Makillajea azalaren gainean ematen dela kontuan hartuz, larruazala ongi zaintzea da adituek ematen duten oinarritzko aholkua. Hori kontuan hartuz, udaberri-uda honetan emanen den ez ohiko koloreen leherketarako prestatzea komeni da.



Udaberri-uda honetan ezkontzekotan bazaude, kontuan hartu behar dituzu zortzi aholku hauek:

- 1- Zaindu ezazu zure larruazala:** Heldu den udaberri-udarako makillajearen-dako garrantzitsuena larruazala da, beraz, aholkurik onena hori ongi zaintzea da. Gisa honetara, inperfekzioak estaltzeko ez duzu oinarri eta zuzentzaile astunak erabili beharrik izanen.
- 2- Kolore leherketa:** Kolore bizia izanen da joera, baina animatzen ez baldin bazara, nude tankerako makillajea ere aukera bikaina izaten segitzen du.
- 3- Larruazala tonalizatzeko:** Itxura brontzeatua eman nahi baduzu, tonalizadore mate edo satinatuak erabili. Ezkontzerako orduan, badaezpada hobe duzu tonalizadoreak erabiltzea eta ez eguzkitan jartzea, larruazala ilundu, idortu edo kasurik okerreanean, alergiaren bat izaten ahal baituzu, zure bizitzako egunik bereziena hondatuz.
- 4- Aurpegiara nola argiztatu:** Argia emateko argiztagarriak eman. Argiztagarria aurpegiaren edozein tokitan ematen ahal da, beti ere aurpegiaren forma kontuan hartuz. Orokorrean, emakume guzietan mesede egiten die masailalboan (pomuloan) eta bekainen arku inguruan ematen badute.
- 5- Ezpainak nabarmendu:** Zure ezpainak nabarmendu nahi baldin badituzu, erabiltzen diren koloreak fuchsia eta korala dira, beraien kolore-sorta osoan. Denboraldi honetako joera da akabera matea izatea, beraz tonu hauen alde egiten baduzu, ez erabili glossik gainetik.
- 6- Begiak nabarmendu:** Udaberri honetan begiak nabarmendu nahi dituzten horiendako bi aukera daude. Alde batetik, smokey eyes lookaren alde apostu egitea, urdinen kolore-sortan eta tonu metalizatuetan. Edo bertzela, kolore bizien alde egin, berdea, turkesa korala edo fuchsia, errate baterako.
- 7- Garrantzitsua:** Garrantzitsua da kontuan hartzea begiak nabarmenduz gero ezpainen makillajea xuabea izan behar duela eta alderantziz, ezpainak nabarmentzen badituzu, zure begiak makillatzeko delineatu on bat, betile bikainak eta iluminatzailea aski izanen dira.
- 8- Koloreak ongi konbinatu:** Makillajeak burukoarekin, lore-xortarekin edo jantziari emandako kolore ukituarekin konbinatu behar du beti. Kontuan hartu beharreko xehetasuna da hori, batez ere udaberri honetan. Ez gaude kolore hauek erabiltzera ohituak eta beldur pixko bat ere ematen ahal du. Baina ematen ez badu ere, laranja, fuchsia, urdina edo berdeak larruazal tonalidade gehienei mesede egiten dieten koloreak dira. Bakoitzarentzat egokiena zein den topatzea, horixe da gakoa.

ARRATE EJTETIKA ZENTROA
EZKONGAIENTZAKO TRATAMENDUAK
Aurpegi eta gorputz tratamenduak
Manikura | Pedikura | Makillajea
Betele permanentea • tintea
Intrakard, 7 | DONEZTEBE | 948 450 284

maria
lemaingotia
T. 948 450 922
Zazpigarutze, 6
Doneztebe
Zuri eta zuri ileari egokitu, arnarenko tendentziak ila biduetan eta ileko apaingarrietan

ruth
Leizola
948 637 438 | LESAKA
Produktu ekologiko profesionalak
Amonako gabeko tintak
Laser
Solanium
Makillajea
Londresko azken modako ile mozketak eta orrazkerak

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Ospakizun berezietarako jantokia
Menua eta karta
Sasoian sasoiko platerak

Ezkontzetarako
leku paregaboa

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
www.zalain.com

ETXALAR
HOTEL

- 275 laguntzako jantokia
Ezkontzetako menu aldatagarria
- Xoko politak bai kanpoan baita barruan ere
- Eguraldi onarekin musika terapezia
- Ongi etorri koktela - lunch afariak
- 21:30ak arte musika
- Gana hotelarekin pasatzeko prezio bereziak taldeentzako...

Suita oporretan alago ezkontza gunean
Arroak eta imprenta hotelarekin konbinatu

**AUTOBUS ZERBITZUA
PREZIO ONEAN**

Iruleta - Iruñe errep. 60km | ETXALAR
T. 948 635 000 | F. 948 635 263
info@etxalar.com | www.etxalar.com

JATETXEA

Arrakastaren gakoa otordu on batean dago

Zalantzarik ez dago. Otordu on bat ezkontzaren arrakastaren bermea da. Gonbidatu guziek espero dute ezkonberriei eskainitako banketea, lagunekin eta senideekin ongi pasatzeko. Koktela eta ondotik datorren bazkaria edo afariaren araberakoa izanen da, aunitzetan, ospakizunak utziko duen oroitzapen onaren neurria.

Horregatik, ezkonberrien kezka ere hori izaten da, dena ongi atera dadila. Menua aukeratzeko orduan eta ondoko besta plantatzerako orduan, badira segitu beharreko zenbait parametro. Honela, gastronomia eta protokolo adi-

tuen arabera, tentuz aukeratu behar dira ospakizunaren lekua eta menua. Kubiertoetatik hasi eta aurkezpenera bitarte, xehetasun guziak zaindu behar dira. Garrantzitsuen, menuaren aurkezpenera eta osaketa ezkonberriei, eta ahal den neurrian, gonbidatu guzien izaerari egokitzea da. Sarrerako batzuekin hastea aholkatzen dute. Azken urteetan, gonbidatuei harrera egiten zaie, lunch tiki batekin. Normalean, otordua eginen den jangelatik hurbil eskaintzen da, gonbidatuek goserik handiena uxatzeko eta aldi berean, bikote protagonistak azken argazkiak egin ditzan.

OTORDU PERFEKTOA

Segidan, gonbidatu guziak bakoitza bere mahaian antolatu behar dira eta hau ere aitzinetik ongi prestatzea komeni da. Mahai presidentzialak lehentasuneko lekua izan behar du jangelan eta gainerako mahai guzietatik eguneko protagonistak ikusteko modua izan beharko lukete. Mahai honetan, noski, ezkonberriak eta hauen gurasoak egon behar dute. Gainerako mahai bakoitzean, hurbilekoak egotea komeni da. Lankideak batean, lagunak bertzean, familiakoak... Ez da komeni mahaiak 12 lagun baino gehiagokoak izatea eta egokiena 6 eta 10 artean izatea da.

Ondotik, sarrerakoak aterako dituzte. Garai batean, denetarik ateratzen zen, baina pixkanaka finitzen joan da prozesua. Gauregun, delicatessen eta produktu esku-



siboak dira protagonista otorduaren atal honetan. Gazta, izokia eta itsaski arinak dira gehien aukeratzen direnak, baita ogi-tosta tikiak ere, itxura dekoratibo eta deigarria duten produktu arinekin estaliak. Segidan etorriko da mariskoa edo itsaskia, ezkontza-ko menuan nahitaezkoa izaten dena. Hau, ardo txuri berezi batekin lagunduz gero, denak gustora geldituko dira.

Ondotik, digestioa arintzeko eta menuarekin arinago segitzeko, salda edo zopa bat aterako da. Gero, arraina eta haragia ematen dira normalean eta bertze ardo bat eskaintzen da aukeratzeko. Protokolo arauak diote arrainarekin ardo txuria egokiagoa dela eta haragiarekin ardo beltza. Baina gero eta gehiago dira bi aukerak dastatzea eskaintzen duten menuak ere. Kasu honetan, bi plateren artean sorbete bat ateratzea nahitaezkoa da, zaporeak bereizteko. Behin otordua bukatuta, aunitzentzat momenturik bereziena ailegatzeko da, ezkontza-tartarena. Ezkontza gehienetan normaltzat hartzen da tarta jatearena eta dagoeneko batere goserik izaten ez bada ere, gonbidatu guziek jaten dute, ezkonberriei ohore egiteagatik eta ospakizunaren garrantziagatik. Ohituraren arabera, ezkonberriak dira tarta dastatzen lehenbizikoak eta elkarri eskaintzen diote, maitasun sinbolotzat, eta gero gainerakoei gonbidatzen diete otorduari ginda jartzera. Egiatzko artelanak izaten dira tarten artean.





HOTEL BAZTAN

Irutien-Fruntzia errep. 52km • 31700 Elizondo
T: 948 580 050 • F: 948 452 323
www.hotelbaztan.com • info@hotelbaztan.com

- Gonbidatuen ogi-otorta ematen dien **aperitiboa** gure lorategietan egiten da, naturaren onduan, baita inguruetan dauden mendiak ikusgai dituela.
- Aurrerik erabakitako **menua proposamen berrenda** luze batietik aukeratuakoa izaten da, ukalaluztan tradizioenaren eta plater berrikapenaren arteko batugia.
- **250 lagunentzako tokia** duen gure saloi handian egiten da edo nahiaoa izatez gero, lorategian karpas bat jartzen ahal izaten da.
- Ondorengo dibertsioa eta dantzaritza ere segunak izaten dira gure musika-performantzi eta gitarra eskei.
- Buztatzeko xer hobetrik afurritza baino; milarak betetzeko eta dibertsionekin segitzeko.
- Gonbidatuentzako **aparkaleku estali** handi bat ere badugu, eta gure legezko gonbidatu eta santutxakentzako prezio bereziak ere egiten dira.







KOKKONTA

Jatetxea



2012an
ezkontzen
diren
bikoteendako
promozioa

T. 948 627 519 • 948 627 503 • 689 801 657
Olsango auzoa, 1 • LESAKA

ZUBIONDO
Jatetxea

BANKETEA ETAKARTA

- 350, 160 eta 40 lagunendako hiru jangela
- Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera
- Auto eta autobusendako aparkalekua
- Haurrendako jolasparkea
- Koktelarako leku aproposa

eskatu gure ezkontzetako menua

www.zubiondojatetxea.com



Alanta karrika

BERA NAFARROA

T.F. 948 627 519

agardotegia jatetxea agardotegia

JATETXEA

Kalitatea eta erosotasuna behar dira otorduan

Ezkontza ospakizuneko otordua antolatzea ez da kontu zaila, baina denborarekin hartu behar da eta garbi eduki zenbat eta nor izanen diren gonbidatuak.

Zenbait modutan ospatu daiteke ezkontza: batzuek nahiago dute handikiro; beste batzuek, berriz, modu apalagoan.

Ospakizuna antolatzea ez da kontu zaila, baino denbora behar da. Lehenik, garbi izan behar da gonbidatuak nor izango diren. Azken batean, talde txikia ala handia izango den jakin behar da.

Ezkontza zibiletan lunch-erako menua egiteko ohitura gero eta handiagoa da. Kasu horretan, jaki hotzak ematen ahal zaizkie gonbidatuei, esaterako, sandwichak, jaki gaziak eta etxean eginiko janaria. Edaria oso kontuan hartu beharra dago: gonbidatu bakoitzak botila bana edaten du normalean. Era honetako ezkontzak gertukoenekin ospatzea komeni da, lagunena eta senideen arteko harremanak sendotzeko modurik onena delako.



MUSIKA

Soinularia, orkestra edo DJa, bada non aukeratu

Ezkontza egunean detaile guztiak zaindu behar dira: soinekoa, loreak, opariak... eta bazkalosteko musika. Ezkongaiak dantza egin ondoren, gonbidatuak hartzen dute protagonismoa, eta musika ongi aukeratu behar da.

Orotariko musika gustatzen zaio jendeari, eta denen gustuak hartu behar dira kontuan. Horretarako aukera zabala eskaintzen du DJak. Gure inguruan, akordeolariak ere ederki betetzen dute musikaren funtzio hori, ezkongaiak eta gonbidatuak gogoko dituzten edo puri-purian dauden piezak joz.

Garai batean orkestra taldeek jarduten zuten ezkontzetako giroa alaitzen, baina, gaur egun, gero eta gehiago dira DJa kontratatzen dutenak. Orkestra taldeek eta DJek musika mota anitza eta kantu bilduma amaigabea izan ditzakete, eta dantzaldia nahi beste luzatu daiteke. Gainera, arreta eta zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen dute, eta ezkongaiak euren gustuko musika eskatzeko aukera daukate. Bata edo bertzera aukeratu ezkonberrien musika gustuen arabera da.

Musika aparatuak eta festa girorako beharrezko guztiak musikariek beraiek ekartzen dute, eta ezkongaiak ez dute ezertaz arduratu beharrik izaten. Prezioak eta musika estiloak aitzinetik zehaztu beharko dira.



TXINGUDI DEEJAYS®



TXARTEL HAU AURKEZTEAN

%25

-EKO BEHERAPENA*

*ESKAINTEZA HAU EZ DA METAGARRIA.



BODAS Y EVENTOS

**EGUN AHAZTEZIN BATENTZAKO
GIRO ETA MUSIKA EZIN HOBEA
LA MEJOR MÚSICA Y ANIMACIÓN
PARA UN DÍA INOLVIDABLE**

637 51 33 62 | www.txingudideejays.com

INTERVIDEO
Bereizmeneko produktak

EZKONTZETAN ESPERIENTZIA HANDIA DUGU

Emportajeak bereizmen handian (HO)

- Talde profesional batek egina
- Merkaturako prezioak onenak

T. 948 599 055 M. 609 488 412
Gute egotza • DANTXARINEA
Mendinueta, 7 2. Ezk. ELIZONDO

Ezkontzak

Zaldúa argazkilariak

Elizondo - Donostia www.zaldua.com

TELLETXEA

ARGAZKIGINTZA 999 032 201 LERAKA

ARGAZKIAK ETA BIDEOAK

Bikotekide gehienentzat ezkontzako argazkien albuma beharrezkoa da

Argazkiak dira, ezkontza bideoaz gain, egun bereziko momentu eta emozioak ez ahazteko modu bakarra. Ondorioz, guztiok nahi dugu argazkilariak lan dotore bat egitea, bizitza guztirako argazki eder batzuk izateko.

Hori dela eta, zenbait neurri hartu ditzakezu, argazkiaren kalitatea bermatzeko. Jakina, argazkiak plano egokienetatik aterako dituen argazkilari profesional bat bilatzea garrantzitsua da.

Hona hemen argazkilaria aukeratzeko eta argazkiak egiterakoan kontutan izan beharreko aholku batzuk:

- Argazkilariarekin solas egitean, eskatu bertze ezkontza batzuetako argazki bildumak. Edozein argazkilari, errekurtsu gutxien duenak ere, osatu dezake aurretik duen argazkien bilduma.
- Ezkontza zehatz bateko argazki bilduma ikusitakoan, ohartu gaitezke argazkilariak bere lana ezagutzen duen ala ez. Aukerarik onena, oro har, gomen-dio pertsonal bat da. Zure lehengusua-ren argazkiak atera zituen gustatu bazitzaizun, kontratatu ezazu.
- Argazkien momenturako denbora gorde. Zeremonia eta bazkariaren artean denbora eduki behar duzue, bertze argazkilaria presionatua sentitu daiteke, eta emaitzan eragina izan dezake.
- Kontratuan argi azaldu zer motatako argazkiak nahi dituzuen. Aurrez esan eskaera bereziren bat baduzu.
- Kostu gehigarri eta zerbitzu bereziak idatziz azaldu daitezela eskatu. Zuri-beltzeko argazkiek, handitze digitalek eta kopiek kostu osoa igo dezakete.
- Xehetasun guztiak zehaztu egun batzuk lehenago. Argazkilariari azaldu zure etxera nola eta noiz joan behar duen, elizara edo bake-epaitegira zer ordutan joan behar duen eta bazkarira zer ordutan joan behar duen. Inori ez zaio gustatzen argazkilari behar den momentuan ez egotea. Hori guztia zehaztuz gero, lasaiago egongo zarete.



EZTEI-BIDAIA

Nola planeatu ametsetako bidaia



Momentu batzuek ia perfektuak izan behar dute bizitzan, eztei bidaiarena esaterako.

Ezkongaiek une oro amets egiten duten momentua da eztei bidaia, bizitzan izango duten oroimenik politenetakoa izango da eta. Garrantzitsua ez da bidaia hiru, lau edo 40 egunekoa den. Garrantzitsua da bidaia paregabea izan dadila. Horretarako, ordea, eztei bidaia aurretik antolatu behar da, denborekin, xehetasun guztiak konpontzeko. Lehenengo egin beharrekoa da bikoteak bidaia egiteko zenbat diru duen eta zein lekutara joan nahi duen finkatzea. Ondoren, aurrekontuak, bidaia agentziak... etorriko dira.

NOLA PLANIFIKATU EZTEI BIDAIA

Sei hilabete lehenago:

- Lekua aukeratuakoa, hegazkineko eta hoteleko erreserbak egin behar dira. Hobe bidaia agentzia baten bitartez egitea norbere kabuz baino.
- Pasaportea eta Nortasun Agiria eguneratu.

Hiru hilabete lehenago:

- Erreserbak berriz baieztatu eta bisarekiko tramiteak konpondu. Zenbait bidai agentziak bisarekin egin beharreko tramiteaz arduratzen dira.
- Funtsezkoa da bidaia aseguruia edukitzea.

Bi hilabete lehenago:

- Zerrenda bat egin bidaiarako beharrezkoak izango diren gauzekin: aspirinak, eguzkitako krema, betaurrekoak, argazki kamera...
- Informatu herrialde horretako ordutegi, tenperatura, txertoekin...

Hiru aste lehenago:

- Erreserbak ordaindu, hegazkineko txartelak eta bidaia agentziako ordainagiria jaso.

Aurreko egunean:

- Lasaitu! Dena konponduta dago.



FOTOMENA ELIZONDO



Bidales, bisitatzeko, bidai zoragarrietan izandako esperientziak maiteminduenak. Proposamen pisgarrienak eta promozio tentatzailleenak aurki ditzakezu Bidaiari Maiteminduen 2012 katalogo berrian. BARCELONA ETOR LAITZE ETA BEKA EZAZU

BIDAIARI MAITEMINDUAK
Aholkurik hobetena zure Barcelo agentzian
LESACA Plaza Zaharra, 4 • 948 63 81 70
lesaca@barceloviajes.com



Norain bidaia nahi duzue?
Aholkurik hobetena zure Viajes Marfil agentzian.
Zure zehazki bidaia nahi duzueko beharrezkoak dira.

Canary Islands, 13-15 • IRUÑA • 948 206 246 • carlos3@marfilviajes.com
Paseo Gabilondo, 40 • IRUÑA • 948 290 350 • pcaballero@marfilviajes.com
Fonten Plaza, 13 • BARANAIN • 948 286 266 • baranain@marfilviajes.com
LA MOREA merkataritza zentrua • CORDOVILLA • 948 290 220 • hiper@marfilviajes.com
Gastacón kalea, 3 • TUTERA • 948 848 416 • tudela@marfilviajes.com

VIAJES MARFIL & VACACIONES

UDABERRI UDAKO MODA
hurrengo alean

Irakurkiz jori nahi baduzu
deitu martxoaren 12a
baita leheni

ttipi-ttapa T. 948 435 458



Aralea
Altzale 26 BERA 948 831 121

Andregaiendako jori sortak
Eiza edo epailegiko apaingarriak
Kotxeak loreak

LORTU PUNTUAK
ZURE EZKONTZA
EGUNAREKIN



Belén
lore-denda

Elizako loreak eta andregaiaren
lore sorta erostegatik
AUTOKO LOREAK
OPARI

ZATOZ eta SORPRESA bat josoko duzu!
Intzakerdi DONEGATEBE T. 948 46 17 58



- Andregaien erramuetai espezialistak
- Elizen dekorazioa
- Ezkontza opariak
- Arrak
- Serpenti kanoliak
- Herako apaingarriak
- Ligak

ESTHER
NARBARTE
T. 948 59 22 00



EZKONTZA rako
ESKAINZA
BEREZIA



LOREAK

Arau nagusia, araurik ez dagoela

2012an andregaiaren lore-xortarako moda-joeran bakoitzaren gustua eta pertsonalitatearen arabeko estiloa errespetatzen da, beti ere ospakizuna, jantzia eta bertze osagarriekin bat eginez. Arau nagusia, “ez dagoela araurik”.



Azken aldian garrantzi handia hartu du andregaiaren lore-xortak eta erramu bakoitza proiektu pertsonal bat bilakatu da. Horregatik, lore-diseinuan profesional baten laguntza beharrezkoa da, xorta andregaiaren gustoari eta aurrekontuari egokitzeko, eta bere sentimentuak eta emozioak interpretatuz, diseinu bakar eta originalak egiteko gai izanzen dena. Kolore txuriak agintzen segitzen du, baina gaur egun andregaiaren kolore kuttunarekin nahasten da. Lumek, zilar-hariak, perlak edo kristalezko orratzek bat egiten dute loreekin. Kanpoaldean, hondartzan edo lorategietan ospatzen diren ezkontzetarako, kolore biziek eta lore exotikoek zoriontasuna ematen diote andregaiaren xortari.

EZKONTZARAKO LORE-XORTETAN HIRU JOERA

Bouquet egokiena aukeratzea ez da erraza, loreen dekorazioak eta jantziaren estiloak bat egin behar dutelako eta, batez ere, andregaiaren izaera adierazi behar duelako. Hauek dira 2012rako joerak:

- Bouquet koloreduna. Xortak ez du beti kolore eta lore berdinak eraman beharrik. Lore eta kolore ezberdinekin esperimentatuko da.
- Vintage estiloa eramanen da udaberrian. Xorta erromantikoa izanzen da, gehien bat larrosekin eta bertze lore osagarriekin egina.
- Diseinu minimalista eta klasikoa, lore txuriekin, ez da inoiz modaz pasatzen.



DETALLEAK-OPARITXOAK

Betiko puroaz gain, bada zer aukeratu

Ezkontzetako oparirik tradizionalenak gozokiak eta puruak izaten dira, baina gonbidatuei detailetxoa ematerako orduan ere, denetik dago. Tamainaz gauza txikiak izaten dira normalean opariok, eta katalogo asko dago kontu honetan. Eskuz zer edo zer egiteko aukera ere hor dago.

Oraindik ere askok aukeratzen dute opari tradizionala: gozokiak eta purua. Baina egia da, beste gauza guztiekin gertatzen den moduan, oparitxoetan gero eta originalagoak izatea nahi izaten dugula. Abanikoak, makillajea, norberak egindako bitxiak, boligrafoak, argazkiak jartzeko euskarriak, kandelak, liburuetak orri markatzaileak... Era guztietakoak dira. Hori bai, opari xumeak izaten dira eta, ahal izanez gero, txikiak: kontuan izan emakumearen esku-zorroan edo gizonezkoaren jakaren poltsikoan gorde beharko dela. Katalogoak gero eta gehiago dira, eta presupuesto guztien arabera. Gauza xumeak izaten dira opariok. Askotan bikoteek gozokiak banatzen dituzte. Gozoki tradizionalenak azukre-al-mendrak izaten dira, eta kolore guztietakoak daude. Bonboi sorta banatzeko ohitura ere badago, dotore apaindutako kaxa baten barruan. Gozokiek pakete bitxiak izaten dituzte, eta badaude, adibidez, argazkiak eusteko euskarriarekin lotuta datozen poltsak.



ALIANTZAK

Klasikoa berritzen

Bitxien munduan klasikoa izan da ezteietarako aliantza, baina honen ere aldaketa nabarmenak izan dira. Klasikoak klasiko, urre gorriaz egindako aliantzak indartsu jarraitzen dute merkatuan. Hala ere, urreak ere koloreak badituela erakutsi dute azkenengo urteetan bitxidendetan.



Denbora beharko duzue bitxidendan ere. Eskaintza izugarri handia da, aliantza guztiak ez dira berdinak eta norberaren izakerarekin lotura handia izan deza keela ikusiko duzue. Aliantza egiteko urrea da nagusi oraindik ere; urre gorriari, urre zuria gehitu zitzaion lehenengo, indartsu gainera. Azkenengo urtetan, berriz, urre larrosak hartu du indarra. Ez dira gutxi, gainera, era desberdinetako urreak batzen dituzten ezkonkideak eta urre gorria, zuriarekin edo arrosarekin konbinatu. Hala ere, azken aldian, urreari zilarra edo altzairua gehitu zaizkio aukeraketa egiterako orduan. Bitxiak merkeak ez direla izaten argi dago, baina gaur egun edozein aurrekonturekin erosteko moduko bitxiak badaude. Gainera, gehiago gastatzeko aukera izanez gero, bada horrelako bitxietan pisua hartu duen materiala: diamantea, hain zuzen ere.

COsas DE CASA
Izotzokari 9 • DONETIETE 948 45 04 09
cosasdecasa2@terre.es
www.cosasdecasa.com

2012 urte honetarako
ezkontzako gonbidapen
eta oparitxoetan
nobedade
guztiak ditugu.

Gehien gustatzen zaitzue
sena emaztearen irudirik eta
sorpresa! oparitxoak ditugu.

Etorri gure dandara

UDABERRI UDAKO MODA
hurrengo alian.

Irteerakia jarri nahi baduzu:
datu martxoaren 12a
baieztatu.

T. 948 455 455 ttipi-ttapa

Kalash
JEWELRY

Ezkontzako eratzunak erosteagatik 50€ko deskontua.

Eratzunak
zure gustura
diseinatzen
ditugu

Karrosbarr. 6 • SENA • 948 630 751 | Melkoren K. 7 • DONETIETE • 948 451 519



GONBIDAPENAK

Irudimenaren arabera, mila aukera!

Garai batean, ezkontza gonbidapenean paperaren kalitatea eta testu-arendako tipografia polit bat bertzerik ez zen eskatzen, baina gaur egun merkatuan aukera zabala dago.



Familia eta lagunei zure asmoaren berri emateko aukera izaten da gonbidapenarena, baina beti gordetzen dira horrelakoak egun hori gogoratzeko eta hau ere gero eta gehiago zaintzen den detailea bilakatu da. Antzina, gonbidapenaren paperaren kalitatea eta testu-arendako tipografia baino ez ziren kontuan izan behar, baina gaur egun merkatuan dagoen aukera amaitezina da.

Herriko inprenta eta kopia-dendetan nahi besteko aukera izango duzu. Denborarekin egin beharreko kontua da, denborarekin banatuko baituzu. Oraindik ere letra etzaneko eta pergamino papereko gonbidapenak egiteko aukera tradizionalak aurrera darrai, baina zure gonbidapenean bestelako aukerarik baduzu. Eskuz egindako loreak, marrazkiak, koloretako paperak, bizikleta gainean jarritako bikotea, egunkari bateko notizia izango balitz maketatutako gonbidapena... aukerak mila dira. Denbora baino ez duzu beharko, beste guztia merkatuan badago.



OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 10EAN

Dena prest dago larunbateko eskualdeko Gazte Egunerako

Bazkarirako
txartelak salgai
daude

TTIPI-TTAPA

Mugak hautsiz, gazte-
ria aitzinera lelopean egun
osoko egitaraua antola-
tu dute eskualdeko gaz-
teek larunbat honetara-
ko, martxoak 10. Eskual-
deko gazte eguna izanen
da, aitzineko urteetan Sa-
ra, Legasa eta Azkainen
egin dena.

- **09:00:** diana –elektro-
bian, Eztegará–.
- **10:00:** aurkezpena eta
gosaria –elektrobian,
Eztegará–.
- **11:00:** haurrentzako ro-
kodromoa Altzateko
frontoian.
- **11:30:** mural margoke-
ta eta eztabaida –elek-
trobian, Eztegará–.
- **14:30ean:** bazkaria
gaztetxean. Txartelak
zortzi eurotan salgai Eli-
zondoko Intzan, Donez-
tebeko Titin, Arantzako
Aterpen, Berako Kata-
kun eta Errekalden, Le-
sakako Arrano eta
Atxaspin, Azkaineko Xo-
ko Nan, Hendaiako
Kanttun, Ziburuko Ta-
nan eta Sarako Herriko
Etxeko Edantegian.
- **16:30:** joko-poteo-txa-
rangeo herrian barna.
- **22:00:** kontzertuak
Altzateko frontoian: La
po'p'la, Ztah, talde sor-
presa eta DJ Bull-ekin.

Bertzalde, Emaku-
mearen Nazioarteko Egu-
na tarteko, hainbatekital-
di egiten ari dira gazte-
txean. Ortzegunean, adi-

bidez, *Prohibido recor-
dar* Saturrarango ema-
kumeen kartzelari bu-
ruzko dokumentala
ikusgai izanen da,
19:00etan.

Zinegotzi berriak

Jose Mari Telletxea
Mitxelena Bilduko zine-
gotziak eta Jaione An-
dueza Intxaurren Ar-
larkoak dimisioa aurkeztu
dute, batek zein bertze-
ak «arrazoi pertsonalen-
gatik zinegotzi karguari
uko egin diotela» adiera-
ziz. Honenbertzez, Jose
Mariren ordeaz, Ugaitz
Ado Prieto sartu da, eta
Jaioneren ordeaz, Neka-
ne Perez Irazabal.

UDAL PLENOAK

Orain arte, Udalaren
osoko bilkurak hilabete-
ko hirugarren ortzegune-
tan egin dira. Baina he-
mendik aitzinera, hilabe-
teko bigarren astearte-
tan egingen dira, 19:30ean.

Liburutegia zabalik

Amatasun bajarekin
dagoen liburuzaina or-
dezkatzeko Nafarroako
Gobernuak bertze inor
kontratatu ez zuelako li-
burutegia hiru astez itxi-
ta egon da, baina berriz
ere zabalik dago otsaila-
ren 21az geroztik. Egun
batzuk lehenagotik, Na-
farroako Gobernuak Kul-
tura kontseilaria den
Juan Luis Sanchez Mu-
niainek, behin betirako li-
buruzaina izendatu bitar-
te ordezeko bat paratuko
zutela jakinarazi zion Ma-
risol Taberna alkateari eta
hala hasi zen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Euriari aurre egin diote Inude eta Artzaiek inauterietan

Euriak eta hotzak ere ez dituzte galdu nahi izan inauteriak. Ortzegunarekin goizez
haurrek puxka bildu eta arratsaldean ohiko ibilbidea egin ondotik, igandean, 49
bikotek Inude eta Artzairen lana bete zuten. Inauterietako Astelehenean, goizeko
Zingar Arraultz eskearen ondotik, karrozen desfilea egin zen. Ospakizuna normalta-
sunez igaro zen, nahiz eta guardia zibilak, Beratour Bus autobusa geldiarazi.



UTZITAKO ARGAZKIA

Txema Otxoteko eta Iratxe Ordokik irabazi dute mus txapelketa

Inauterietako larunbatean mus txapelketa antolatu zuen Gure Txokoa Elkarteak.
38 bikotek parte hartu zuten eta lehenbiziko saria, Txema Otxoteko eta Iratxe
Ordokirentzat izan zen; bigarren saria Asier Calderon eta Andoni Martinezek
eskuratu zuten; hirugarren saria Joseba Susperregi eta Xuster Goikoetxearen-
tzat izan zen eta laugarrena Karlos Pombar eta Saturnino Pikabearentzat.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak jubilatuen elkarteko bazkaria

Arkupeak jubilatuen elkarteko Bera eta Irungo bazkideek bazkaria egin zuten
otsailaren 19an Zalain jatetxean. Giro ederrean bazkaldu zuten, musika eta mus
txapelketa jokatu zituzten.

LESAKA

UDALA → BERRESKURATU NAHI DA

Auzolan Batzordea osatzeko lehen bilera martxoaren 19an egingen da

Herritarren partehartzea bultzatzeko bertze batzordeak ere ari dira lanean

Aitor AROTZENA

Gure inguruan aspal-diko ohitura den auzolana berreskuratzeko asmotan dabil udala. «Herrian gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoa zein den ikustek, tresna honek duen garrantziaz konturatzeko lagundu digula ohartzen gara», aipatu digu Peio Etxabide alkateak. Auzolanean, lan ezberdin aunitz egiteko aukera ikusten du Udalak (bideen mantenimendua, mendiko bidaxkak garbitu, landaketak, besta ondoko garbiketa ...) honek herriarentzat ekar dezakeen onura ekonomikoaz gain, herriaren kudeaketan parte hartzeko bertze modu bat

dela iruditzen baitzaio. Hau dena martxan jarri eta honen inguruko plangintza bat osatzeko, herritar guzientzat idekia den batzordea sortuko da, interesatua dagoen edozeinek parte hartu eta bere proposamenak egin ahal izateko. Lehenbiziko bilera martxoaren 19an egingen da, udaleko batzorde gelan eta ondotik egingen diren bileren deialdiak, baita lehenbiziko hau ere herrian zehar jarriko diren kartel bidez egingen da.

Kultur arloari dago-kionez ere, poliki poliki eredu parte hartzailea aplikatzen saiatzen ari da Udala. Bide honetan, lehen saiakera Olentzero batzordea eta kultur eta kirol dirulaguntzak banatzeko irizpideak izan ziren. Sanferminetako besta batzordea ere bi astetik behin biltzen da, ortziralarekin 18:00etan. 15 lagun inguru bildu izan dira.



Ba al zenekien...

11870.com webguneko 70.000 erabiltzaile erregistratuen arabera Kasino jotetxea dela estatuko enpresa faboritoetako bat. Estatu osoan 2.500 enpresa saritu dituzte, 18 Nafarroan eta bakarra, Kasino, Baztan-Bidasoaldean.



ARGAZKIAK: RAFAEL ENETERREAGA /AITOR AROTZENA

Giro ederrean joan dira inauteriak

Goitarrek, Zakozarrek eta Fraindarrek beraien ohiko ibilbideak egin zituzten, baina zail da horrekin bakarrik inauterietako hiru besta egunak eta gauak laburbiltzea. Asteleheneko karrozen desfilea ere aski ikusgarria izan zen.

LEHIAKETAK → MARTXOAREN 23RAKO AURKEZTU BEHARKO DIRA LANAK

Herri bozketak erabakiko du aurten bestetako kartel eta portada lehiaketak

A.A.A.

Udalak Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatzen du.

Lanak aurkezteko epea martxoaren 23ko 13:00etan bukatuko da eta oinarrietan ez da al-daketa handiegirik. Ho-

ri bai, aurkezten diren lan guziekin erakusketak osatuko da Beti Gazten apirilaren 3tik 15era eta herri bozketak erabakiko du lehiaketa. Erakusketa aretoan ez ezik, udalaren webgunearen bidez ere bozkatzeko aukera izanen da. Bai kartelak, baita azalak ere 400 euro-

ko lehen saria izanen dute. 6 eta 12 urte arteko haurrek gibeletako azalean argitaratuko den portada lehiaketan parte har dezakete eta epe bera izanen dute. Irabazleak, herriko dendetan eskola materiala erosteko 200 euroko baliola duen taloia izanen du saritzat.



OSPAKIZUNAK → BUKATU DIRA INAUTERIAK

Giro ederrean joan dira inauteriak

Eguraldi hotzak ez du umore ona alde batera utzi

Irune eta Itsaso

Hotz egiten bazuen ere, herritarrak ez ziren karikara ateratzeko beldur izan. Ortzegun gizenarekin hasi ziren inauteriak. Landangain eskolako neska-mutikoez herrian barna antzerkiak egin zituzten eta ondotik, musikarekin lagunduta, berendua izan zuten frontoian.

Igandearekin, kinto bazkariak izan ziren eta honen harira, giro polita sortu zen herrian.

Astelehenean, *inaute-inaute* baserri bazerriko eskea izan zen. Bi auzotan banatuta, 55 lagun inguru ibili ziren eskean gauera arte.

Asteartean, berriz, mozerro eta karrozek herriari itzulua eman zio-

ten eguerdian. Denetarik ikusi ahal izan zen plaza eskinean: pailazoak, mamuak, okupak, txirindulariak, futbolarriak, baserritarrak... Karroza saila ere bazegoen; rally-arena, pintxoena, Asiako liztor beltzarena (erle eta suhiltzaileekin), mendi barbakoaena, mamu harrapariena, sukaldariena... Ondotik, Herriko Ostatuan bazkaria izan zen. Larraburuan ere egin zen bazkaria. 33 lagun inguru bildu ziren eta bazkal ondotik Beñat akordeoilariarekin giro ederrean dantzan aritu ziren.

Arratsaldean, Beñaten akordeoi doinuek lagunduta, taloak izan ziren Herriko Etxe azpian. Lehenengo urtez antolatu da taloen afera hau eta ikaragarritzko arrakasta izan zuen.

Orain, urtebetez esperoan egon beharko dugu berriz ere egun hauek ailegatzeko!



ARGAZKIAK: JABIER IRIARTE, GARBINE MAIA ETA IRUNE ELIZAGOIEN

Ortzegun Gizen egunaren ondotik, eskearen txanda etorri zen eta bukatzeko mozerro besta.



ARGAZKIA: AXUN MAIA

Gazteria dantza taldearen saioa

Otsailaren 25eko ilunabarrean Parisko Gazteria dantza taldeko 25 dantzari bereen saioa eskaini zuten elizan. Herriko dantzariak ere dantza batzuk egin zituzten, denen artean ikuskizun polit eta atsegina eskainiz. Ondotik, denak batera Herriko Ostatuan afaldu zuten. Jende andana bildu zen saioa ikustera, eliza ia bete baitzen.

ARGAZKIA: IMANOL ITURRIA

Sua itzaltzeko palak

Nafarroako Kutxaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* proiektuko diruarekin larrean sua itzaltzeko palak erosi dira eta sute elkarreko ondoko ordezkarien baserrietan launa pala banatu dira, behar deneko: Beheko-zubian, Xindolan, Xoraxuriko bordan, Santsineneko bordan, Maixterreneko bordan eta Landaburuko bordan.



LEKARILDEK eta LINDURAREN BORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Tolosa | 948 452121 - 626 494317
LINDURAREN BORDA | Nafarroa | 948 637212

ARANTZA

GIZARTEA → EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Bortzirietako emakume mendizaleek ibilaldia eta bazkaria antolatu dute iganderako

Horrez gain, ortziralean kalejira egingen da herrian

Nerea ALTZURI

Lehedabiziko urtean, igantziarrek bideratu zuten eguna. Unanu, Bianditz eta Harritxulo mendi gainetan barna ibilaldia egingez. Iaz, beratarrek lekukoa hartu zuten eta Labiagara mendi ateraldia antolatu zuten. Eta aurten, herriko Mentxu Peña mendizalea arduratu da antolatzeaz eta Mendaurrea ibilaldia izanen da. Goizeko 9etan aparkalekuan hitzordua jarria da eta mendi itzulia egin ondotik, Aterpean bazkalduko dute. Egun ederra pasatzeko aukera, zinez!

Hori baino lehen, eta Arantzan, Emakumearen Nazioarteko Eguna harira, ekitaldia antolatu da. 19:00etan plazan pintxoak izanen dira eta 19:30ean kalejira egingen da herrian barna bertsoak kantatzeko geldialdiak egingez. Ondotik berriz plazara itzuliko da.

Ekaitza Elkarteko junta aldaketa

Bi urteren ondotik, ailegatu da Ekaitza Elkarteko junta aldatzeko ordua. Martxoaren 16an jakinen da zein diren ordezkari berriak.

Sagardotegira ateraldia

Sagardotegira irteera antolatu du Gazte Asanbladak. Martxoaren 31n izanen da eta Iparra-girre sagardotegira joanen dira. Autobusa 13:00etan aterako da herritik eta 03:00etan itzuli. Txartelak Pabloenean erosten ahalko dira hilaren 11 arte, zortzi eurotan. Txartela denboraz kanpo hartzen duenak hiru euro gehiago ordaindu beharko ditu, baina beti ere, martxoaren 17a baino lehen.

IKASTAROA

Gurutze Gorriarekin

Gurutze Gorria erakundeak jubilatuei sakeleko telefonoa erabiltzen erakusteko ikastarobaten eskaintza bidali du Zahar Txokora. Guztira sei orduko ikastaroa da, hiru orduko bi saio edo egunez banatua. Ikastaroaren prezioa 150 eurokoa da eta parte-hartzaileen kontura izanen da. Guttienez zortzi lagun eta gehienez hamabortz behar dira ikastaroa antolatzeko. Jubilatuek telefonoa beraiekin ibiltzeak duen garrantzia ere azpimarratzen dute mezu horretan. Norbaitek interesa izanez gero, Martin Legarrari abisatu behar dio lehenbait lehen.



ARGAZKIAK: AITOR ELEXPURU

Bago landaketa

Negu gorriko eguraldiak izan genituen otsail hasieran. Hori dela eta, eskolatik egin beharreko bago landaketak atzerapenak izan ditu. Hala ere, ezin uka, udaberriko aro ederrekin egun morderka izan ditugula. Eguraldia probextuz, joan den otsailaren 24an, eskolako lagunek udal langileen laguntzarekin, Azkilarrea auzoko Simonenbordako ardi bordaren inguruko parajeetan ehun bago landatu zituzten. Han bertan gosaldia eta bazkal tenorerako eskolara itzuli ziren.

Mozorro Besta martxoaren 17an

Nerea ALTZURI

Urteko ekitaldien zerrendan, inauterien ondotik, egiten den Mozorro Besta dagoeneko agendan finkatua da. Aldi honetan, martxoaren 17an egingen da, Mozorro Xuriek antolatuta. Eguerdian, Mozorro Xuriek herri kirol

saioa eskainiko dute frontoian eta ondotik, bertso bazkaria egingen da Aterpean. Meza ondotik, Irurtzun, Lizarra eta Arantzako dantzariekin kalejira izanen da eta ondotik, dantza saioa eskainiko dute frontoian. Eta gauez musika izanen da Gorapean.

BARATZEA

Baratze ikastaroa

Udalak antolatuta, joan den larunbatean baratze gintza ekologikoari buruzko ikastaroa abiatu zen. Guztira 17 lagun ari dira parte hartzen eta ondoko bi larunbatetan ere saioak izanen dira.

SORMENA


Sormen tailerra

Sormena lantzeko tailerra antolatu da haur (6-12 urte) eta helduentzat. Haurrak martxoaren 13an hasiko dira eta helduek martxoaren 9ra arteko epea dute izena emateko. Udaletxean apuntatu behar da.

DANTZARIAK

Irurtzunen dantzan

Larunbat honetan, martxoak 10, herriko dantzariak eta txistulariak Irurtzunen dantza emanaldia eskainiko dute, Arantzako Dantza Luzea, hain zuzen. Oroitu, abenduan Lizarran izan zirela.



BERTSOLARITZA → BARDOAK 2012 TXAPELKETA

Taldekako bertsolari txapelketako saioa jokatu da hilaren 17an Biltokin

Txartelak martxoaren 12ra arte salgai

Joxean ORTEGA

Bardoak 2012 Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa bigarren fasean sartua da eta saio bat gure herrian jokatu da, martxoaren 17an. Lesakako *Rimak Exkaxko* eta *Bertze mal-dikoak* taldeak ariko dira.

Afaria 21:00etan hasiko da eta txartelak aitzinetik erosi beharko dira La Villa eta Allinea ostaltuetan, Lesakako Arranon eta Arantzako Pabloenean. Gainerakoan, txartelak enkargatu nahi duenak 680 141899ra deitzen ahal du. Txartela 15 euro kostako da, eta martxoaren 12an bukatuko da erosteko epea.

Arazoak araztegiari

Herriko araztegiari zuzendutako den Nilsa en-

presak arazo larri baten berri eman dio Udalari: ur-zikinekin batera araztegiari ailegatzen diren euri-urak filtroak egin beharko lukeen lana eragozten duela. Udala arazoa moldatzeko irtenbide bila hasi da.

Herri kirol jolasak

Herriko bi talde ari dira Nafarroako Herri Kirol Jolasetan parte hartzen: Abelu eta Unanu. 9-11 urteko 16 haur dira. Apirilaren 1ean herrian jokatuko dute jardunaldia.

Zinema

Martxoaren 25ean *Aupa Etxebeste!* pelikula ikusgai izanen da.

Aisialdi gunea

Olaia Matxikote eta Ana Loiarrek *Tikitto aisialdi gunea* zabalduko dute ortziralean, hilak 9, Ziberrean, 17:00etatik 19:30era. 3-12 urteko haurrentzako izanen da eta dohainik.



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

Xake erakustaldi ederra

Otsail hondarrean egindako xake erakustaldia sekulakoa izan zen. Jende aunitzek parte hartu zuten eta Unai Garbisuk eta Mikel Ortega erakutsitakoak harri eta zur utzi gintuen, batez ere, itsu eran jolastutako partida ahaztezinak!



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkartekoen bazkaria

Igantzi eta Lesakako Arkupeak jubilatuen elkarteko bazkideek bazkaria egin zuten otsailaren 17an La Villa jatetxean. Aitzinetik, hildako lagunaren aldeko meza entzun zuten. Otsailaren 15ean, berriz, mus txapelketa jokatu zuten.

TRANS TXAKAIN
TRANS TXAKAIN, S.L.
JOSU BARBOSA
ALBIZURAY

ERAIKUNTZA-HONDAKINEN KUDEATZAILEA
(Eraikuntza-hondakinak dokumentatzen, kudeatzen eta biltzen)
NAFARROAKO GOBERNUAK BAIMENDUA

Otsango Ind., 1 - LESAKA
T. 948 638 052 - T. 699 930 169 - info@trans-txakain.com

KIRRI
KIRRI
KIRRI

Javier Manterola
Javier Manterola
Burgineta - gela
kalifikazioa
Tfno: 629449902 • BERA

LEGARRA
Egunkariak | aldizkariak | liburak | opusak | bideoak
tiketak | enkoademazkoak | plastikazkoak | tax publikoak

ZERBITZU BERRIAK!!
FOTOKOPIAK KOLORETAN A3 eta A4
USB-tik zuzenean inprimatzen dugu

Tfno: 948 63 77 30 - Alameda, 9 - LESAKA

SUNBILLA

GIZARTEA → OHIKO BATZARRA

Ulibeltzak elkartean junta aldaketa egingen da martxoaren 17ko bileran

Hiru urte eman ditu orain arteko juntak lanean

Maidar PETRIRENA

Martxoaren 17an, larunbatarekin, ohiko batzarra egingen du Ulibeltzak Elkarteak. 19:00-etatik aitzinera, hainbat gai izanen dira hizpide, eta tartean junta aldaketa. Dagoeneko hiru urte pasatu dira aitzineko juntakideak sartu zirenetik, eta zortzi bazkide berri juntan sartzeko ordua ailegatu zaigu. Lerro hauen bidez, bazkideak animatu nahi ditugu ahalik eta jende gehien etor dadin bozkatzera.

Rakel Urtxegi Gelbenzu, Edurne Urrotz Agesta, Miren Hernandorena Ibarra, Edurne Zubieta Almandoz, Maria Jesus Iriarte Irurueta, Maria Jesus Rekarte Elizondo, Josune Anzizar Elizon-

do eta Maidar Petrirena Gorosterrazu egon dira orain arte juntan.

Junta aldaketaz gain, aitzineko aktaren onepena, bazkide berriak, 2011ko kontuak, elkar-teko obrak eta dokumentazioa bezalako gaiak izanen dira mahai gainean.

Euskal Herriko Mus Txapelketa

Ulibeltzak Elkartean, urtarrilaren 13an egin zen Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketak bat eta irabazle izan ziren Jose Martin eta Teresita Agirre Iriarte anai-arrebek otsailaren 25ean Iruñean egin zen herrialde mailako kanporaketara sailkatzea lortu zuten. Iruñean izan ziren, eta nahiz eta ez zuten aitzinera egiterik izan, eguna hagitx ongi pasatu zutela aipatu digute. Zorionak!



Ba al zenekien...

Joan den otsailaren 29an Nafarroan sortu zen lehenengo haurra sunbildarra izan zela? Ainhoa Armendariz Aizkorbe da. Zorionak gurasoei eta familiari.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Sahara sahararentzat dela aldarrikatu dute

Sahara sahararentzat lelopean, hainbat ekitaldi izan ziren Saharaztan elkar-teak antolatuta otsailaren 24an. Arratsaldean haurrendako jokoak izan ziren. Egia errateko ez zen haur aunitzik elkartu, baina agertutakoak hagitx gustura egon ziren. Ondotik, plazan elkarretaratzea eta Ulibeltzak Elkartean hitzaldia izan ziren. Gero, berriz, 65 lagun elkartu ziren afaltzeko, Ukele taldearekin alaituta.



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

Jubilatuena besta

Besta eguna izan zuten Arkupeak elkarteko herriko jubilatuek otsailaren 19an. Meza-ren ondotik, zortzi bikote aritu ziren musean eta lau bikotek eraman zuten saria: laugarrenak Oryo eta Santiago izan ziren, hirugarrenak Estefani eta Gregorio, bigarrenak Patxiku eta Fulgenzio eta txapeldunak Pako eta Luis -argazkian, Arkupeak-eko Juan Antonio Ibarra ordezkariarekin-. Gainerakoan, 64 lagun elkartu ziren bazkaltzeko eta ondotik, Jose Inazio Muruaren musika doinuekin kantuan aritu ziren.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Lau haur bataiatu dira

Jubilatuena meza ondotik, otsailaren 19an lau haur bataiatu ziren: Lukas Ezkurra Arretxea, Hegoa Iratzoki Urtxegi, Xabat Mikelperizena Portu eta Nahia Portu Zelaie-ta. Ondotik, ohiturari segituz, haur andana elkartu zen eliz atarian goxokiak biltzeko.

MERKATARITZA → DONEZTEBARRAK MERKATARIEN ELKARTEAREN ESKUTIK

Eskaintzen azoka eginen da ortziral honetan Intzakardin

Herriko komertzioek 10:00etan emanen diote hasiera azokari

Nerea TELLETXEA

Doneztebarrak Merkatarien Elkartek eskaintzen azoka antolatu du ortziral honetarako, martxoak 9. Intzakardi karrikan izanen da.

Herriko merkatariek eskaintzak eta denboraldi aurrerapena erakusteko aukera izanen dute egun osoan, 10:00etatik 20:00etara. Eta eguna animatzearen, haurrendako jokoak antolatuko dira arratsalderako.

Kontsumitzaileen bulegoa

Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak Iratxe Kontsumitzaile elkartearen bidez eskaintzen duen kontsumitzaileendako informazio bulegoak ekainera arte behintzat martxan jarraituko du. Halaxe adierazi digute Mankomunitatetik.

Dena den, egun hauetan Nafarroako Gobernuak Donezteben kontsumitzaileendako informazio bulegoa zabalduko dela jakinarazi du. Apirilean izanen omen da, eta urte osoan, astean behin, informazioa eta arreta zerbitzua eskainiko omen ditu. Malerrekako Mankomunitatearen eta

Gobernuaren arteko akordioaren ondorio izanen litzateke zerbitzu hau, baina heldu den asteko asanbladan tratatu eta onartuko du Mankomunitateak.

Hitzarmen hau urtebetez egonen litzateke indarrean, eta bi aldeek interesa badute, ondoko urteetan segituko luke.

Sagardotegira ateraldia

Sagardotegiko garaia iritsi zaigu eta Gazte Burrunba Kultur Elkartek aurtengoan ere sagardotegira ateraldia antolatu du martxoaren 18rako. Igandearekin izanen da, astelehena jaia dela aprobetxatuz.

Apuntatzeko Titi ostatura hurbiltzeko aukera duzue.

Igandeko zinema

Igandeetako zinemak aitzinera segitzen du eta honetan, martxoak 11, 16:30ean *Cars 2* filma ikusteko aukera izanen da eta 18:30ean *No habrá paz para los malvados*.



Pertsonaia

Joxe ETXEBERRIA

Erremontelarik onena izan da otsailean ere

Oriamendi 2010 enpresak hilabetero egiten duen ranking-aren arabera, urtarilean eta otsailean Joxe Etxeberria, Etxeberria III.a, doneztebarra izan da erremontelarik onena. Etxeberria III.ak jokatutako sei partidetatik hiru irabazi zituen otsailean, baina galdu zituen hiruetatik bi, tanto bakarragatik galdu zituen. Honela, 36,33 puntu lortu zituen (banaz bertze partidako lortutako tantoak). Partida nagusiak jokatzen dituzten erremontisten A multzoan, otsailean ez zen jokalaririk bera ere izan hiru partida baino gehiago irabazi zituenik. Multzo honetan nagusitu zen Etxeberria, Juaristi eta Xanti Utergaren aitzinetik. Utergak 35 puntu lortu zituen. B multzoan, berriz, Oñatz Gonzalez izan zen onena, jokatutako partida guztiak irabazita 40 puntu lortuz. Bigarren Matxin VI.a eta hirugarren Urko izan ziren.



Mozorrorik hoberena.

Karrozarik hoberena.

Karrozarik hoberena.

ARGAZKIAK: NEREA TELLETXEA

Inauteriak giro ederrean

Inauteriak eguraldi bikainean igaro ditugu eta horrek izugarrizko jendetza erakarri zuen larunbat arratsaldeko mozerro eta karrozen desfilea. Aipatu behar da herriar aunitzek parte hartu zuela. Izan ere, ia 30 karroza atera ziren desfilea. Inauteri hauetan, merkatariek karrozarik eta mozerrolik politenak saritu zituzten. Izan den partehartzea eta lan izugarria kontuan hartuta, epaimahaiak ez zuen batere lan erraza izan aurtengoan. Sariak *Oktoberfest* eta *Karlos Arguixuri*; *Txipiroiak* bete-beteak taldeendako izan ziren.





TXARUTA, S.L.

Iturgintza | berokuntza | gasa

948 45 17 28 • 659 77 00 15 • GAZTELU

**GALDAREN 2012ko
RENOVE PLANAREN
ENTITATE LAGUNTZAILEA**



Ayuntamiento de Murguía
Consejería de Medio Ambiente
Energía y Medio Ambiente



**ahorra
energía**



IDAE
Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía



Ayuntamiento de Murguía
Consejería de Medio Ambiente
Energía y Medio Ambiente



**ahorra
energía**



IDAE
Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía



<<<<<< H I R U >>>>>>

Eguzki panelak <>> Iturgintza
 Industria mantentzen <>>
 Aire egokitua <

T. / F. 948 625 395
 Alkaga ind. • Alasta. 4-6 Behea • 31770 LESAKA

**GALDAREN 2012ko RENOVE
 PLANAREN ENTITATE LAGUNTZAILEA**



Euzko Legeburtuak
 Euzko Legeburtuen Batzarra
 Euzko Legeburtuak



**ahorra
 energia**



IDAE
 Instituto para la Diversificación y Ahorro Energético

Zozaya

FONTANERIA · CALEFACCION · GAS

Aire gisusia · Zoru bero-emaria · Eguzi energia
Komunikazio mobilerik · Aparatu sendatzenak · Mantentze
Tasak · Suaren aurkako babesa



ahorra energia

Comunidad de Vecinos
de Barrio de San Juan
de los Rios de Guadalupe

GALDAREN
2012ko RENOVE
PLANAREN
entitate laguntzailea

Galdaren eta zirkulu berriko
Le-bereogailuen arduratzaile
(akadaguntza)

INFORMA ZAITEZ
ZURE BEREOGAILUA
ALDATZEKO DAUDEN
LAGUNTZETAZI



IDAE

Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía



GOBIERNO DE ESPAÑA
Ministerio de Industria, Turismo y Comercio



GOBIERNO DE Euzkadi
Departamento de Industria y Comercio

Aholagiazia: **Victoriano**
Etxebarria, 3
31100 Lasaosa, Nafarroa

948 630 883

948 631 002

zozaya@zozaya.es

**400 edo 800 euroko
diru-laguntza
galdara zaharrak
aldatzeko**

Partikularrez gain, irabazi asmorik gabeko enpresek, udal entitateek eta etxek jabeen elkarteek eskatzen ahal du te diru-laguntza 2102ko Renove Plan honetan. Nafarroako Gobernuak, eskaerak hartu ahala emanen ditu laguntzak eta litekeena da epea agortu baino lehen (2012ko irailaren 26a) diru-poltsa agortzea. Beraz, hobe da lehenbailehen eskatzea.

Diru-laguntza tramitatzeko, baimenduta dagoen enpresa laguntzaile batengana jo behar da. Eurek azalduko dizute zein galdara klase dagoen diruz lagundua eta bideratuko dute eskaera egiteko dokumentazioa

Diru-laguntzak eginkizun hauetarako dira:

- Galdara bakarrak edo zirkuitu irekiko berogailuak kendu eta kondentsazioko galdara-itxi berriak jartzeko. **Laguntza: 400 euro.** Gutieneko inbertsioa: 1.200 euro.
- Erradiadore eta metagailu-elektrokoak kendu eta kondentsazioko galdara-itxi berriak jartzeko. **Laguntza: 800 euro.** Gutieneko inbertsioa: 3.000 euro.



- 1) Legearen arabera, 4 izarrekoa izan eta Europako Zuzentzarakuek ur-beroko galdarai buruz eskatzen duten errendimendu izatea.
- 2) Eskatutako errendimendu maximoa %104 baino altuagoa.
- 3) Begiz jotako galdara Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Erakundeak (IDAE) duen datu-basean egotea.

Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra egin dezake.



Fontaneria
Carlos Pacheco

C/Leizaola nº 19
31780 BERA (Navarra)

Teléfono: 637 15 11 70

GALDAREN
2012ko RENOVE
PLANAREN
entitate laguntzailea



ahorra
energia

Ministerio de Hacienda
Departamento de Hacienda y
Presupuesto, Industria y Medio Ambiente



IDAE



DIRUZ LAGUNDUKO EZ DIREN GAUZAK

- Berokuntza instalazio kolektiboetatik banakako instalazioetara pasatzea.
- Ordezkatu nahi den galdara edo tximinia egur edo biomasarekin dabilenean.
- Ur-berogailu bat kentzea beste ur-berogailu bat jartzeko.
- Butanozko berogailuak edo antzekoak kentzea eta galdara bidezko berokuntza sistema batekin ordezkatzea.

ZER EGIN BEHAR DA DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO

Diru-laguntza tramitatzeke, baimenduta dagoen enpresa laguntzaile batengana jo behar da (2 orrialde hauetan ageri den batengana, adibidez). Eurek azalduko dizute zein galdara klase dagoen diruz lagundua eta bideratuko dute eskaera egiteko dokumentazioa. Zure aldetik Nortasun Agiriaren fotokopia bat (helbidea Nafarroan duela) edo IFZa (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia) erakunde bat izanez gero eta bankuko kontuaren zenbakia. Datu horiekin, enpresa laguntzaileak erregistratuko du eskaera zure sinadurarekin. Eskaera egiten denetik kontatzen hasita, instalatzaileak 90 egun ditu obra egin eta fakturatzeko. Instalatzaileak galdara berriaren prezio osoa kobratuko dio bezeroari eta Nafarroako Gobernuak hiru hilabeteko epean ordainduko dio dagokion diru-laguntza bezeroari bere kontuan.



ULI-ZAR
ELKARTE A.S.L.

ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA - GASOLIOA
KOMUNERAKO OSAGARRIAK
MOBLEAK | MANPARAK

Bide-ondo etxea | **ARÉSO**
647 525 516 | 948 610 678

GALDAREN 2012ko RENOVE
PLANAREN ENTITATE LAGUNTZAILEA



gastelu sol
iturgintza
T. 948 510 006 - 948 510 196
LEITZA - gastelu@infonegocio.com

GALDAREN
2012ko
RENOVE
PLANAREN
entitate
laguntzailea



SUMINISTROS
OYANCI
35 años experiencia

GALDAREN 2012ko RENOVE PLANAREN
ENTITATE LAGUNTZAILEA



Diru-laguntzaile nabarmen dugu
Zaldube Industriales, 2 - BURITA - 948 580 109

IÑIGO ETXARTE
ARBURUA

Bekolanda: 9 ETXALAR
Tel.: 657791507 / 948635256

Iturgintza, Gasa, Berokuntza
eta Aize egokitua

GALDAREN 2012ko RENOVE
PLANAREN ENTITATE LAGUNTZAILEA



GOIENBURU
iturgintza

T. 600 902 723
Goienburu, 10 - 31790 ARANTZA

Galdaren 2012ko Renove Planaren
entitate laguntzailea



BEROTZA
ITURGIN

Errotaldeia Industrialdea
31745 Aurtiz - Ituren (Nal)
Tel.: 948450669 - 620886443
www.berotza.es - Email: info@berotza.es

Gobierno de Navarra
Departamento de Desarrollo Rural,
Industria, Empleo y Medio Ambiente

Gobierno de España
Ministerio de Industria, Comercio y Turismo



• ENERGÍA BERRIZTAIAK
• FOTOVOLTAIKO
• TERMIKOA
• GEOTERMIA
• AEROTERMIA
• BIOMASA

• PELLETA, KURRIKOTZA
• ESTUFAR eta HIDROESTUFAR
• PELLETA, BIRUTA, ZERRAKUTSA
• EURIARRA, EZPAIAK, ERRETA
• GAS eta GASOLIOZKO
• GALDARA KONTINGENTIA

GALDAREN 2012ko
RENOVE PLANAREN
ENTITATE LAGUNTZAILEA

• KLIMATIZAZIOA
• ITURGINTZA
• ELEKTROITATEA
• AUDITORIA ENERGETIKOAK
• PELLET-BANATZAILEA
• CARPETAN eta SOLTE
• GALDAREN RENOVE
• PLANAREN LAGUNTZAILEA
• NAFARROKO
• GOBERNUAREKIN
• INSTALAZIOAK FINANTZATU
• LEHATZATZ eta
• LAGUNTZEN TRAMITAZIOA
• agian dugu

ITUREN

AIZKORA → KIROL IKUSKIZUNA

Herritarren arteko aizkora apustua jokatu da martxoaren 17an

Martin Telletxea eta Kenari Erasun, Ander Erasunen aurka

Arkaitz MINDEGIA

Herritarren aizkora gosea asetzeko asmoz, ikuskizun ederra prestatu dute herritarrek martxoaren 17rako. Martin Telletxea eta Kenari Erasun ariko dira alde batetik aizkora eta Ander Erasun izanen dute aurkari. Alde bakoitzak zortzi kanaerdiko moztu beharko ditu, eta egurak erdibana eramanak izanen dira.

Hitzordua, berri, tailerreko atarian egin dute, 17:00etan. Jokoa afarirako bildotsak jarri dituzte.

Aizkora apustuaren ondotik, Aurtizko elkartean afaria izanen da eta apuntatu nahi duenak, ostatuan edo tailerrean izanen du zerrenda. 10 euroko seinalea utzita, martxoaren 11 izanen

da izena emateko hondarreko eguna.

Bardoak 2012

Akitu berria da Bardoak 2012 Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketako lehenbiziko fasea, eta bigarren fasera gure herriko bertsolariak pasatu dira. Male-rrekako *Jituk* taldeak ez du zorterik izan, baina *Erauntsi* taldeak bigarren faserako txartela eskuratu du.

Lehenbiziko fase bukaerako saioa, Leitzaan jokatu zuen *Jituk* taldeak, baina leitzarrek irabazi zuten. *Erauntsi* taldeak, berri, Iruñean jokatu zuen *Xirristi-miristiren* aurka eta *Erauntsi* nagusitu zen. Honela, bigarren fasera sailkatzea lortu zuten.

Aitzinera egin duen *Erauntsi* taldeak ortziral honetan, martxoak 9, eginen du hurrengo saioa. Non eta herrian, Herriko Etxeko ganbaran. 21:00etan, afaria eta bertso saioa eginen dira



ARGAZKIA: BERTIZKO PARTZUERO TURISTIKOA

Tresanea apartamentuak eta hotela

Aitzineko TTIPI-TTAPA aldizkarian erran bezala, zerbitzu berri bat ireki dute herrian: Tresanea izeneko apartamentu hotela. XVI. mendean egindako etxea du-gu Tresanea, nahiz eta XIX. mendean erabat berritu zen, lau solairu eta lau isuriko teilatua eginez. Orain dela berriki arte obretan aritu dira Baztan-Bidasoaldeko igeltseroak, zurginak, margolariak... Lanean azkeneko itxura polit hau eman arte. Gehiago jakin nahi izan ez gero, web orrian sar zaitezke: www.tresanea.com.

eta *Erauntsi* (Iker Gorosterrazu, Alazne Untxalo, Amaia Elizagoien) eta *Leitzaundi* (Miel Mari Elosegi, Iñigo Ibarra, Iñigo Sagastibeltza) ariko dira.

Pulunpa eskola

Berri aunitzekin heldu zaigu herriko eskola. Alde batetik, aurrematrikulazio kanpaina itxi da eta hurrengo urteari begira bederatzi ikasle berri izanen dira, 3 urteko zazpi haurtxo hasiko dira eta 4 urteko bi haur.

Bertzalde, eskolako klasetik aparte, berriki mintzaldi bat antolatu zuten eskolakoek gurasoei begira. Pedagogo orien-

tatzaile batekin 40 bat guraso egon ziren. Hurrera ezin hobea eduki zuen solasaldiak eta aitzinerago gehiago antolatzeke asmoa dute.

Aitzineko urteetan bezala, eskolako ikasleek Haur Kantari Jaialdian parte hartuko dute, nahiz eta aurtengo murrizketekin kinka larrian egon. Koordinatzaileak ez da izan murrizketak direla eta, baina parte hartzen duten haur, irakasle eta gurasoei aitzinera eramanen da besta haundi hau.

Eskolako berri gehiago jakin nahi izanez gero, blogean sartzen ahal za-

rete: malerrekaherrieta-koeskolak.blogspot.com

MIGEL MAISUA

Aipamen berezia merezi du gure eskolan azkeneko urte parrastan irakasle aritu den Migel, martxoaren 5ean jubilatua baita.

Hainbertze herritar pasatu dira bere gelatik, momentu ezin hobek bizituz, irri eta algar, tarte haserre batzuk hartuaz, baina dena bere goxotasunean. Oraingo bizitza berri honetan, Iturrengo irakasle, ikasle eta herritarrek ongi pasa dezala opa diogu. Besarkada bat eta ongi segi!

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun asaguriak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, beheko • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colin Pas. 8 - atzea • Tel-Fax: 948 632050 • INIUN

BERAUTO
tailerra

4+ topi biatzaile

%5
DESKONTUA

HERNANDE TELLETXEA
Hc

ERAIKUNTZA LANAK OROKORREAN

Zanburketa, sukaldeak, kominak...
Alkatzenak, lantzerak, garajeak...

Hc BERA (Nafarroa)
670 064 744
948 630 554
albertellobos@gmail.com

GIZARTEA → EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Emakumearen Eguna ospatzeko afaria egingen da larunbat honetan

Herriko Ostatuan afalduko dute giro ederrean

Fermin ETXEKOLONEA

Ostegun honetan, martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna da, eta Zubietan ere, modu berezian gogoratu nahi da eguna. Hortaz, urtero bezala, afaria antolatu da emakumeendako eta larunbat honetan, martxoak 10, izanen da, Herriko Ostatuan.

Izena emateko epea, asteazken honetan, martxoak 7, akitzekoa zen. Seguru aurten ere giro ederrean afalduko dutela!

Mendiko lanak

65.302,89 euroko aurrekontuarekin mendiko lan batzuk egingen ditu Udalak. Alde bategatik, 59.301,11 euroekin, Goienetxeko bor-

darako pistako sarrera moldatuko da eta Aurkidiko pistan zementua botako da. Bestetik, berriz, landaketak egingen dira, 6.001,78 eurotan. Landaketa hauek hilabete honetan egitekoak dira eta pistetako lanek abuztua baino lehen eginak egon behar dute.

Aipatu, lan hauek Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jasoko dutela.

Herriko kantariak

Joan den urtean izandako esperientzia polita aurten berriz errepikatzeko asmoz, Haur Kantarien Jaialdian parte hartuko dute herriko neska-mutikoek, Ituren-go Pulunpa eskolara joaten diren ikasleek, hain zuzen.

Auto lapurtua Gasteizen

Herrian lapurreta batzuk izan zirela jakina-



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Urteak dira emakumeek afari batekin ospatzen dutela Emakumearen Eguna. Argazki honek, esaterako, hamar-hamabi urte izanen ditu.



ARGAZKIA: JON MIKEL ARAGON

Malerreka Eguna Zubietan

Malerrekako Mankomunitateak bideratuta, aurten lehenbiziko aldiz, Malerreka Eguna ospatuko da maiatzaren 26an. Urtero-urtero ospakizun egun hau herri desberdinean egitea da asmoa, denak elkartuta. Baina lehenbizikoa gure herrian egingen da. Aurrera begira, xehetasunak jakin ahala, horren berri emanen dugu hemen.

razi genuen aurreko aldirizkarian, tartean auto

bat ebatsi zutela. Bada, jakin dugunez, Gastei-

zen agertu da ebatsi zuten auto hori.

APARAN, S.A.

ERRINOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukaide mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Banurako mogleak eta osagariak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



txinelka

%10eko DESKONTUA

GIZARTEA

INGURUMENA → OIHANGINTZA

Larreak erretzeko baimenak hilaren 16a baino lehen eskatu behar dira

Apirilaren 15a izanen da erretzeko azken eguna

TTIPI-TTAPA

Asteak dira neguko basozaintza kanpaina abiatu zenetik, Nafarroako Gobernuak basoetan suteak prebenitzeko eta itzaltzeko egiten duen kanpaina hasi zela, alegia. Eta las-ter bukatuko da horretarako epea. Larreak erretzeko baimenak martxoaren 16ra arte eska daitezke eta erretzeko azken eguna apirilaren 15a izanen da.

Baimenduz gero, berteak berte, hainbat baldintza bete behar dira. Alde batetik, larreak erre behar diren egunean, hurbilen dau-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Aitzineko astean, nahita sua emandako kasuak izan ziren. Horren adibide da argazki hau, Bertizaranako Oteixon mendian gertatua. Oronozko suhiltzaileek itzali behar izan zuten.

den suhiltzaileen parke-
ra deitu behar da, toki
horretan erretzea bai-
mendua dagoen ala ez
baieztatzeko eta zehazki
non erreko den adiera-
ziz. Horrez gain, landa-
reak bakarrik erre dai-
tezke, eta erreka, kune-

ta eta sakabanatutako
zuhaitzetan ezin da erre.

Ordutegia ere aipa-
tzekoa da, erreketan ezin
delako 09:00 baino le-
hen egin eta 17:00 eta-
ra bukatua egon behar
delako. Eta erretzeko
momentuan, guttienez

bortz lagunek hor egon
behar dute sua erabat
itzali bitarte.

Basoak erretzeko
baimena eskatzea ezin-
bertzekoa bada ere,
oraindik ere baimenik
gabe larrei su ematen
dietenak badira.

MALERREKA

‘Malerreka
Kantuz’
ekimena
abian

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko karri-
ketan kantuan ibil-
tzeko ohitura dagoe-
la ikusita eta horrek
sortzen duen giro
ezin hobea kontutan
hartuta, Malerreka-
ko Mankomunitate-
ko Euskara Batzor-
deak Malerreka Kan-
tuz ekimena martxan
paratu du. Helburu
horrekin, martxoaren
2rako Donezteben
kanturako deia egi-
na zuten, Donezte-
beko karrikak kantuz
alaitzeko asmoz.
Horren ondotik, api-
rilaren 6an Iturengo
plazan bilduko dira,
19:30ean, eta maia-
tzaren 4an Donama-
riako plazan egin du-
te hitzordua, ordu be-
rean.

GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDO (BAZTAN) | LETIZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

OSPAKIZUNAK → AKITU DIRA INAUTEAK

Heldu den inauteetako aiherrik

Urtero bezala,
borondate
handiko
inauteak
izandu dira

INAUTEAK

**18-20 lagunek egin-
dako basurde jatea-
rekin hasi ziren inau-
teak. Aurtengo berri-
tasun bat moto-ka-
rroza izandu da.**

Markel LIZASOAIN

Joan ziren aurtengo inauteak ere. Ortzira-lean, basurde jatea egin zuten 18-20 bat lagunek. Afalondoan, batzuk musean eta besteak tertulian aritu ziren. Hori bai, mahaian tenorez jarri eta tenorez erretiratu ziren, bi haramunean aiseago jaikitzeke.

Larunbatean, baserriko buelta egin, eta arratsaldean, herriko etxeetan ibili ziren.

Osotara, jende franko ibili zen, nola etxez etxe, nola jendeari ongi etorria ematen kroketekin, fritoekin, saldairekin, kafearekin, tortillekin, pattarrarekin, etxeko sagardorekin, pasteekin, txokolate beroarekin, erroskilekin; aurtengatik, baita taloekin ere! Afalondoan, berriz, mahaiak bildu eta dantzari aritu ziren goizaldera arte. Igandean lanak!



ARGAZKIA: IBAN URRUTIA

Intxureko atarian, baserrietan ibili zirenak.



ARGAZKIA: ANDER ERASUN

Etxezarreko ezkerra txapeldun

Ibai Erasunek Errekako eskuz banakako pilota txapelketa irabazi berri du. 11 urte ditu, eta zartako politikari ematen dizkio ezkerrekin. Argazkian, Arretxe luzaidarrarekin ageri da. Kontensko daude ama, anaia eta denak!



ARGAZKIA: SALDIASKO ESKOLA

Eskolan ere inauteriak

Otsailaren 24an saldistar eta labaiendarrek inauteriak ospatu zituzten. Saldistarrak Beintza-Labaienera joan ziren mendiz eta labaiendarrek gosaria eskaini zieten. Gosaldia eta gero Beintzara joan ziren oinez eta hango plazan dantzari aritu ziren. Eguerdian kotxeetan Saldiasko ostatura itzuli ziren bazkaltzera eta arratsaldean jolasean ibili ziren eskolan, dantzak ere egin zituzten eta egunari behar bezalako akabera emateko, gurasoek prestatutako merendua dastatu zuten.

Alberto RETEGI
abokatuak
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

ERDIZ
ARKITEKTOAK + ABOKATUAK
ANOLKULARITZA ARKITEKTONIKO ETA JURIDIKOA

TXOSTENAK · PROIEKTUAK
OBRA JUZENDARITZAK · ZAHARBERRITZEAK
ANOLKULARITZA JURIDIKOA · EPARGETA MOTA GUZTIAK

TELEFONO ARRIETA: 17.00etatik 20.00etara
gastokienentzako gutunak: 948 630 763

Barrion Etorbidea, 17 - 3. Bulegoa - IRUÑA

J. RAMOS
zolak akutzilatzen dituen
barnizatzen dituen

Satelefono: 617 816 071 - LESAKA

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!

Berrira arazi taldea

NARBARTE

OSPAKIZUNAK → AKITU DIRA INAUTERIAK

Hasierako ilusioa bestondoan bilakatuta akitu dira inauteriak

Giro eta umore ederrean joan dira haur, gazte eta helduentzat

Martin BERTIZ

Afaltzeko ardua da, jendea mozorrotorik ostatuan agertzen hasi da, ilusioa nabaria da, edozein lekutara begiratu eta besta egiteko gogoia ikusten da. Horixe izan zen inauteriak hasi baino lehen gertatu zena. Eta orain, pasatu direla, gustura joan zaizkigula erraten ahal dugu, umore onez eta giro ederrean.

Ederki pasatu zen ortziral gaua, goizeko ordu ttikietara ailegatu zen besta eta batzuen-dako gosarira arte.

Gosaldu ondotik, berriz mozorrotu eta

hain gustura hartzen den etxez-etxeke bisita egitera joan ziren gazteak.

Gauean, berriz, afaria izan zen eta aguantatuz gero, gaupasan segi. Horrelaxe joan zaizkigu aurtengo inauteriak, hasierako ilusioa bestondo ederrean bihurtuta.

ORTZEGUN GIZENA

Herriko haurtxoek ere ederki pasatu zuten inauterietako bere egunean, Ortzegun Gizen egunean. Gurasoak medio zirela, mozorrotuta herriko etxeak bisitatu zituzten. Eguerdian ederki bazkaldu zuten ostatuan eta jarraian, joko betetako arratsalde polita pasatu zuten. Seietan jende guziaren-dako berendu bapoa eskaini zen.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Kuadrilla ederra ibili da aurten ere etxez-etxe.



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Herriko Ostatura

Urte bat igaro da herriko txokorik bisitatuena itxita egon zenetik, eta berriro ere itxi ditu ateak. Bittoriren zikloa pasatu da eta orain espero duguna lehenbailehen bertze aro berri bat hastea da. Horretarako, Kontzejuak errentan emateko lehiaketa zabaldu zuen duela gutti eta astelehen honetan, martxoak 5, akitzekoa zen eskaintzak aurkezteko epea.

BERA Zure inguruko klase guztietako txokorik (xamorra, zinoarra, urmiratza, kaxako...) eta urritan zuzentzen garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduen!

GOIKKO Inbentario Garrantzitsua! Informazioa!

Tel: 948 630 587 - Azken, 40 6 - BERA

F. LANCHAS

Akzioak eta berriztatzeak
Parkes eta parkes flutatzailak
jartzeak
Mota guztietako solak

Tel: 948 630 755 - M: 607 406 781

Bidali ttipi-ttapa
herriko kanpo
biziren lagun
edo familakoel

(0034) 948 63 54 58

ola
SAGARDOTEGIA

Bertako sagarrarekin
egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizazioa
- Sagardotegiko menuak

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Melea auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 423 130

ELGORRIAGA

UDALA → DIRU SARRERAK ETA IRTEERAK

244.329 euroko aurrekontua onartu du Udalak 2012rako

WiFi paratzeko aukera esku artean darabilki Udalak

Mattin LARRALDE

Udalaren aurtengo aurrekontua 244.329 eurokoa izanen da.

Horren inguruan, azpimarratzekoa da aurtengo partida bat bideak moldatzeko izanen dela. Horrez gain, WiFi haririk gabeko sarea paratzeko aukera ere begiratzen ari dira udal ordezkariak. Horiei gehitu behar zaizkie, aitzinako ataletan aipatu di-

tugun erosketak eta proiektuak, horiek ere aurrekontu honetan sartzen baitira. Egin ahala, horien berri ematen joanen gara.

Bertzetik, erran, gurasoek frontoi sarreran zerbait paratzeko eskatu zutela, haurrak ez zitezten kanpora atera eta kotxeekin ezbeharririk ez gertatzeko. Eskaerari erantzunez, hiru errelduko korda paratu da hesia paratu beharrean, eta hagitz txukun gelditu da.

HERRITARREN BUZOIA

Udalak buzoi bat ere jarri nahi du herritarren



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Neska-mutikoak frontoitik ez ateratzeko, hiru korda paratu dira sarreran.

eskura, Udalari eta gainerako herritarrei di-

tuzten kezka, ideiak edo nahi duten hura

adierazteko aukera izan dezaten.

LEGASA

EKONOMIA → LAN KONTUAK

Legasako lantegia ez duela itxiko dio Arcelor Mittalek

Ehun bat langilek lanean segituko dutela jakinarazi du

TTIPI-TTAPA

Bidasoa planaren barne, Arcelor Mittalek Legasan duen lantegia itxiko zela adierazi eta bertan egiten zen produkzioaren zati bat Lesakako lantegira eraman ondotik, orain Legasako lantegia ez dela itxiko ja-

kinarazi du enpresak, prentsan azaldu denez.

Legasako lantegiak bi lan-lerro izanen ditu: estatu osoan 25 biltegi dituen banaketa arlorako mozketa lanak eta laminatua hotzean. Ehun bat langile ariko dira eginkizun horietan, baina denak berriz ere Lesakatik bueltan etorriko omen dira. Zabaldutik denez, baliatuko gaur egun Asturriako Avilesko lantegian egiten diren bernizatze lanak ere Legasan



ARTXIBOKO ARGAZKIA

libili eta buelta, Legasako lantegiak produzitzen segituko du.

egitea, instalazioak aprobetxatuz.

Duela urtebetetik hona, Lesakako lantegiak lerro konbinatu berria du, altzairuzko txapa mar-gotzeko prozesua duena. Lerro hori 2009ko abenduan hasi zen jar-

tzen, 25 milioiko inbertsioa eginda.

Bere garaian, Legasako lantegia itxiko zela erran zenean, instalazioak eta lur eremuak industriagune berri bat egiteko aprobetxatzea pentsatu zen eta Nafa-

roako Gobernuak ere interesa agertu zuen. Alde horretatik, Arcelor Mittal enpresak, industriarako erabiliko ez diren eremuengatik izan ditzakeen eskaintzetara zabalik dagoela adierazi omen du.

GIZARTEA

ESKUALDEA → EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Emakumeen Egunaren harira, hainbat ekitaldi izanen dira gure eskualdean

Bortzirietan emakumezkoek mendi ateraldia egingen dute

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna da eta hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dira eskualdean.

BORTZIRIAK

Bortzirietan Kontziliazio eta Berdintasun Itunaren bidez, hilaren 11n **Bertsolari dokumentala** eskainiko da Berako Kultur Etxean, 18:00etan. Biharamunean, *Emakumearen ikuspegia bertsolaritzan* izanen da aztergai, 17:30ean Lesakan. Bi egunetan haur txoko zerbitzua eskainiko da eta izena emateko 948 635036ra deitu.

Horrez gain, martxoaren 11n **mendi ateraldia** egingen dute bortz herrietako emakumezkoek Mendaurmendira. Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Bortzirietan mendi irteera antolatzen den hirugarren



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Erratzuko emakumezkoek San Anton egunean egiten dute urtero biltzeko hitzordua.

aldia da: lehendabizikoan Igantzitik Unanura, eta Bianditzen barna Aritxulora joan ziren eta beriz itzuli ziren Igantzira; bigarreanean, beratarrek Labiagara antolatu zuten eta aurrean arantzarek hartu dute lekukoa. Hala, igande honetan, 09:00etan aparkalekutik abiatu eta Mendaurrera joanen dira. Gero Aterpen bazkalduko dute.

Hortaz aparte, herriz herri ere izanen dira ekitaldiak. **Arantzan**, adibidez, kalejira egingen da herrian barna martxoaren 9an.

Berako Kaxerna **gaztetxean** aste osoan egiten ari dira ekitaldiak Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta. Martxoaren 2an *Etiketadun kateak hautsiz* antzezlan ikusteko aukera izan zen, biharamunean mural margoketa egin zen; astearte honetan, martxoak 6, *Zorupelbikoa* izenburupean hitzaldia egitekoa zen, 19:30ean, eta ortzegunean, hilak 8, *Prohibido recordar* Saturrarango emakumeen kartzelari buruzko dokumentala ikusgai izanen da,

19:00etan gaztetxean. Eta ondotik, luntxa.

BAZTAN

Baztanen ere izanen dira ekitaldiak. Gazteetxearen ekimenez, Emakumearen Egunean, ortzegun honetan, *Nahaste borrastr* antzezlan ikusteko aukera izanen da, 19:00etan Elizondoko gaztetxean.

Ortziralean, martxoak 9, *Ikusezina ikusiaraziz: neska edo mutila izatearen ondorioa* izenburupean eztabaida izanen da, 18:00etatik 21:00etara, hau ere gaztetxean.

Larunbatean, azkenik, 19:00etan kalejira abiatuko da eta 21:00etan afaria egingen da gaztetxean, 10 euroren truke. Eguna akitzeko, 23:00etan AFUren kontzertua izanen da, bertzeak bertze.

Bertzetik, Eguzkilore Emakume Elkartearen ekimenez, martxoaren 7an, *Criadas y señoras* pelikularen emanaldia izanen da 18:30ean, Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean. Ondotik, Bidelagun Elkartearen egoitzan, merendu-afaria egingen da.

LEITZA

Leitzaldean, berriz, nabarmentzekoa da Arano, Areso, Goizuetako emakumeen formakuntza beharrak ezagutzeko, kanpaina paratu duela martxan Emakume Batzorde sortu berriak.

MALERREKA

Herriz herri egingen dira beharbada Emakumearen Egunaren seinaleak. Zubietan, erraterako, larunbatean afaria izanen dute.



ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> Langile autonomoak Nekazariek eta mendi langileak Nominak eta Aseguro Sozialak Lan-Kontratatutako laguntzak Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> Diru-laguntza ezberdinak Kontabilitateak IVA eta IRPF Errenta alorpenak Etiberritasun eta jarduera espedientiak Bidegaitasun planak eta sumakortasunak
--	---

artekari@artekari.com

LEZAKA: Siltzio, 77. behe - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050

BURLEATA: La Vito, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

GIZARTEA → ZUBIMUXU ATERPEKO OBRA BUKATU DA

Aterpearen kudeaketaz arduratzeko lehiaketa zabaldu du Udalak

Ostiralerako aurkeztu beharko dira eskaintzak

TTIPI-TTAPA

Hilabeteko lanen ondoren, prest dago Zubimuxu aterpea. Bere garaian, garbiketarako labaderoa, nesken eskola eta irakasleen etxebizitza hartu zituen XVI. mendeko eraikinak, orain, turistak hartuko ditu. Luze gabe, gainera, Udalak aterpea alokairu bidez kudeatzeko prozedura irekia zabaldu baitu. Ostiral honetan, martxoak 9, bukatuko da eskaintzak aurkezteko epea, 12:30ean. Interesatuak udal idazkaritzara jo beharko dute eta han egonen dira administrazio-baldintza partikularren plegua eta gainerako agiriak ere.

Hasiera batean, bost urterako kontratua izanen da, baina bosna urteko epeetan luzatu ahal da, gehienez ere hogeiturogei urte egin arte. 96.000 euroko balio estimatua kalkulatu da.

Aterpeak 30 lagunen-tzako toki izanen du, bi logeletan dauden hamar oherekin. Aipatu, eraikina egokitu eta zaharberritzeko lanak 691.174,60 euro kostatuz, eta Nafarroako Gobernuak 414.704,76 euroko dirulaguntza eman duela.

ATZERA BEGIRA

Historia luzea du atzean Zubimuxuk eta bere garaian honela azaldu zuen Jose Jabier Etxeberriak TTIPI-TTAPA: «Goizuetako Udalak 1904. urtean Zibolako nagusiari, Bizconde del Cerro jaunari, Zubimuxu etxea erosi zion 1750 pezetetan, behe-



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Inauteri ederrak

Hitzak soberan dira inauterietako giro ederra deskribatzeko. Argazkiak dira lekuko.

an labaderoa, aurreneko pisuan nesken eskola eta goian maisu-maistren etxebizitza egiteko. Goikoiturrako errekan presatxo egin eta 1908an ekarri zuten ura. (...) Pentsa labadero honek garai hartako emakumeei nolako aurrerapena eta erosotasuna ekarriko zien! Ordura arte erreka bazter batean edo urrutiko labadertiki haietan garbitu behar izaten baitzuten arropa, eta ez honelako toki eroso eta estalian. Bai, zerbitzu ederra eman dio herriari 1980 aldera arte.

Hala ere, batek edo beste segitu zuen hona etortzen (...) Errematea izan zuen arte, Goikoituri inguruan pista egiterakoan ur hodiak urratu eta urik gabe gelditzean. Geroztik, biltegi gisa erabili zen, 2007an auzolanean berriro martxan paratu zen arte».

Subentzio kanpaina

Ardi eta behi eta txekorren subentzio kanpainarako ziurtagiriak eskatzeko epea martxoaren 16an bukatuko da. Udalarekin egin beharko da, dokumentazio hau aur-

keztuz: errolda agiria hiru urteko antzinatasunarekin, herrian urtean guttienez 9 hilabetez bizi denaren zinpeko aitorpena, Udalaren zorrik ez duenaren ziurtagiria, baikoitzaren lurren zinpeko aitorpena, azienda kopuruaren ziurtagiria eta txosten sanitarioa, bizikide guztien dirusarreraren ziurtagiria eta nagusiki abeltzaintzan edo nekazaritzan aritzen denaren ziurtagiria.

Ordenantza berria denez, zalantzak argitzeko bilera egiteko azen asteartean, martxoak 7.



Bi Herriak

TABERNA - JATETXEA



EGUNEKO MENUA · PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK · RAZIOAK...

Otordu goxoa egiteko, tragoa bat hartzeko,...
LEKU PAREGABEA! Bixita gaitzazu!

Akarregi Ind. 1 · HERNANI | 943 331 228



LEITZA

GIZARTEA → EMAKUMEAK ETA FORMAKUNTZA

Eskualdeko emakumeen beharrak ezagutzeko batzordea sortu da

Emakumeak formatzeko kanpaina jarri da abian

JM BARRIOLA

Leitza, Arano, Areso eta Goizuetako emakumezkoen eskaerak ezagutzeko asmoz, Emakume Batzordea sortu da berriki. Aurten eskualdean lanean hasi den berdintasun teknikariarekin batera, udaleko berdintasun zinegotzia, Bilgune Feministako kide bat eta iaz Bilgune Feministak eta LABek egin dako kanpainari esker Sarriopapelen lan egiten duen emakume bat elkartu dira batzorde honetan, eta dagoeneko hasiak dira lanean, emakumeen formakuntza bultzatzeko kanpainajarrir baitute martxan.

Batzordetik azaldu dutenez, «zonaldeko emakumezkoen nahi, interes eta beharrak jakitea dute helburu». Izan ere, beraien irudiko, «batzuetan formakuntzari ez zaio behar besteko garrantzia ematen eta guxtiago adin batetik aurrera. Emakumeak formatzeak duen garrantziaz ohartarazi nahi ditugu, bai lan munduari begira eta bai aberastasun pertsonalerako ere. Formatzeak gure bizitza pertsonalean lagunduko digu, gure baliabideak zabaltzen eta gure buruak baloratzen ere. Honetaz aparte, uste dugu lan munduan sartzeko ere tresna baliagarria dela».

Hilabete honetan formatzeko interesa edo-

ta beharra duten emakumei izena emateko aukera emanen zaie. Interesatuak 948 510840ra dei dezakete edo emakume.batzordea@gmail.com era idatzi. Izena ematekoan beraien formakuntza maila eta interesak adierazi beharko dituzte eta behin apuntatzeko epea amaitzean, Emakume Batzordeak datuak aztertuko ditu. Horren arabera, taldeak osatu eta formakuntza bideratuko du, «tailerrak, ikastaroak edo dena delakoak antolatuz».

JATORRIA

2011ko udaberrian LABek eta Bilgune Feministak Sarriopapellantegian emakumeak kontratatzeke egin zuten kanpainari lotuta, aurten go urtarilean honen baloraziorako batzar bat deitu zen, eta han ikusi

IZEN-EMATEA

Formatzeko interesa edota beharra duten lau herrietako emakumeek izena emateko aukera izanen dute 948 510840-en edota emakume.batzordea@gmail.com-en.

zen formatzearen beharra. Batzordekoen hitzetan, «balorazio horretan argi geratu zen egindako kanpainaren garrantzia, eskualdeko emakumeek inguruan lan egiteko duten nahia eta beharra ondorioztatu baitzen». Aldi berean, «eskualdean emakume asko langabezian edota lan prekarioetan ari direla» ikusi zuten, «eskualdean prekaritateak berreziki emakume aurpegi duela».

Bardoak Leitza

Bigarren fasean sartu da Bardoak 2012, Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa eta saio horietako bat Leitza jokatu du martxoaren 17an. 18:30etik aurrera *Leitzaundi* (Miel Mari Elozegi Luze, Iñigo Ibarra, Iñigo Sagastibelza) eta Malerreka Oronozko *Erauntsi* taldeak nor baino nor ariko dira.

Saharar herriarekin elkartasuna elkartea

Otsailaren 29an, Mohamedek, Polisarioko Nafarroako delegatuordeak denak, hitzaldia eman zuen herrian. Saharar herria egoera larrian dago: batetik, erbestetatuta, errefuxiatu zelaia, Arjeliako basamortuan oso bizi baldintza gogorretan daude

1975etik eta bestetik, egun egoera okertu egin zaie gero eta laguntza guttiago dituztelako, eta desnutrizioa eta gaitzak zabaltzen ari dira.

Leitza elkartasun elkarrekin bat dago aspalditik lanean eta uda aldean umeak ekartzen dituzte gure artean egoteko. Oso inportantea izaten da egonaldi hau beraientzat, beroaldi haundiak saihestuz eta osasuna, emozio eta heziketa aldeetik ere bai.

Ume bakoitza ekartzeak 885 euroko kostua du, egonaldiaz aparte. Leitza aurretik bi ume etorriko dira eta Nafarroa 115 osotara. Elkartetik garrantzitsua ikusten dute familiak kooperatzea, ume hauei laguntzeko animatzea eta ekartzeko dirua jasotzea.

Ongizatearen defentsan

Udalak sektore publikoari buruzko erreformaren aurka mozioa onartu du BILDUren zortzi botoekin eta UPN eta DNEren kontrako bi botoekin. Helburua ongizate estatutaren defentsa da.

Erreformen neurri murritzaileekin ondorio oso larriak izan daitezke, jurbilatuz joaten diren langileak ez ordezkatzeko, adibidez, lan publikoko eskaintza izoztuta geldituz, eta udalek eskaintzen dituzten zerbitzu asko okertzea ekarriko ditu egoera honek, ongizate estatua desagerraziz. Liberalizazio basatiarekin gero eta dirua gehiago beharko da zerbitzu duinak jasotzeko.



ARGAZKIA: JUAN MARI BARRIOLA

Osasunako jokalarien bisita

Osasuna Fundazioaren laguntzaile da Leitza Udalak, kirola eta kirolak dituen baloreak zabaltzeko herriko umeen artean. Iazko moduan, aurten ere otsailaren 23an Osasunako bi jokalarik izan ziren herrian, Riesgo gipuzkoarra eta Ibrahim Balde senegaldarra, Fundazioko bi zuzendaritzako kideekin batera. Herriko umeak eta guraso asko hurbildu ziren hauekin solastera eta galderak egitera.

GIZARTEA → BERDINTASUNAREN BIDEAN

Emakumeen batzordea osatzeko bilkura egingen da ostiral honetan

Herriko emakumeen beharrak jaso nahi dira

Juana Mari SAIZAR

Emakumeen Batzordea osatu nahi da herrian eta horretarako, eskualdeko berdintasun teknikaria hariak mugitzen hasi da. Lehen hitzordua ostiral honetan, martxoak 9, izango da, 19:00etan udaletxe gaineko solairuan.

Hitzordu horretan Aresoko emakumezkoen formakuntza maila, interesak eta beharrak ezagutzeko batzarra egin nahi da, alde batetik, egungo egoeraren berri izateko eta bestetik, daudden beharrei erantzun

na ematen hasteko plangintza osatzeko oinarriak ezartzeko.

Lan ildo hauek jorratu, azaldu eta denentzira iritziak jaso ahal izateko

ostiral honetarako antolatu den batzarrean parte hartzera gonbidatuta daude herriko emakumezko guztiak.

Kirol Mankomunitatearen egoera larria

Kirol Mankomunitateko teknikaria eskola-ko haurren gurasoekin

egon da eta mankomunitatearen egoera argi azaldu du: aurten Nafarroako Gobernuak dirulaguntza guztiak kendu ditu eta gainera, 2011n ordaintzera konprometitu zegoen diru kopurua ere ez du eman. Horren ondorioz, oso egoera eskasean geratu da mankomunitate hau eta herrian egingo diren kirol jarduerak eta saioak garestiago izango direla jakinarazi du kirol teknikariak.

Hala ere, aurrera begira, proposamen batzuk ere egin ditu, besteak beste, monitorean kontratazioa erazuzenean egitea, horrela gastuak murrizteko asmotan. Orain gurasoen esku gelditu da jarraitu nahi duten ala ez erabakitzea.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Depuradorako lanak aurrerratuak

Herriko depuradora azken fasean sartu da. Aldameneko lurrak txukuntzen hasi dira eta lanaren parte handiena eginda dago jada!

1961tik
Casa Cambra
Ientzeria-errea
Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA
edrebi fiutak · albornozak · edrebi norilikak · ohe estailak · maingireak · mantelak · kaxanak · totilak

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → ARRATSALDETIK AITZINERA

'Iruritan eskuaraz' eguna eginen da martxoaren 24an

Dantzariak, bertsolariak, Anje Duhalde eta kontzertuak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Maita nazazu gutiago, goza nazazu gehiago lelopean Iruritan eskuaraz eguna dute iruritarrek martxoaren 24rako, larunbata. Hainbat ekitaldi izanen dira arratsaldean hasita.

17:00 aldera, herriko dantzariak erakustaldia eskainiko dute. 18:30ean hasita, Julio Soto, Amets Arzallus eta Iñaki Aleman bertsolariak kantuan ariko dira. Ondotik, 20:00etan, Anje Duhalderekin kantaldia izanen da eta 22:00etan afalordua. Bokatak eginen dira nahi duenak bertan afal dezan. Fanfarreak alaituko du afalorduko tartea.

Egunari bukaera emateko, 23:30etik aitzinera, kontzertuak antolatu dira: Ufestuek, Bizardunak eta Trikidantz taldeek joko dute.

Aipatu, egun guztian Elizondoko FanfarRE-MI-FAK alaituko dituela herriko xoko guztiak. Sarrerak 12 euro balio ditu.

Aukeren azoka

Bertan, ostalari, merkataria eta zebitzuen elkarrekin, aukeren azokaren 6. edizioa antolatu du martxoaren 17 eta 18rako. Feria Elizondoko pilotalekuan izanen da, larunbatean 10:00etatik 20:00etara eta igandean 10:00etatik 19:00etara. Bazkidehauk parte hartuko dute azokan: Virgilio, Ipingi, Fantxike, Argibel, Mari Cruz mertzeria, Azken Muga, Pottoki, Izeta, Narfapress, Kattalingorri, Zangue, Piko Piko eta Malkorra.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Txotxongiloak haurren eta gurasoen gozamenarako

Ikuskizun ederra eskaini zuten Eñautek eta Arkaitzek otsailaren 26an Elizondoko gaztetxean. *Erraldoi bihotz gabea* haurrendako txotxongilo antzezlanaren taularatu zuten eta gaztetxea haurrez eta gurasoz bete zen. Gustura gelditu ziren bildutakoak. Ondotik, txokolatea eta bizkotxoak izan zen denendako.

Hitzaldiak

Krisi kapitalista eta ezkerreko alternatibak izenburupean hitzaldia antolatu du Baztango Ezker Abertzaleak. Isidro Esnaola ekonomialariarekin izanen da, martxoaren 15ean Arizkunenean, 20:00etan.

Bertzalde, Ingurugiro Batzordeak antolatuta, martxoan bi hitzaldi izanen dira. Martxoaren 20an, energia alternatibo buruzko hitzaldia eta Energia Gara kooperatibaren aurkezpena eginen dira Arizkunenean, 19:00etan. Alejandro Arizkun eta Miren Meo-kik hitz eginen dute.

Martxoaren 23an, *ne-kazaleremuan, tokiko haziak mantentzearen garrantzia eta landareen erabilerak Euskal Herri*an hitzaldia eskainiko dute Esther Montero eta Gorka Menendezek Arizkunenean, 20:30ean.

Euskara Batzordeko berriak

TELP tailerra antolatu du Udalak, martxoaren 30 eta 31rako. Euskaraz eroso, nonahi eta noiznahi sentitzeko teknikak erakutsiko dira eta euskaraz aritzera koan sortzen ahal diren egoera deserosoak arindu eta desagerrarazteko balio-

ko du. Arizkunenean izanen da, hilaren 30ean 17:00etatik 20:00etara eta 31n, 09:30etik 14:00etara. Matrikula 10 euro kostako da. Izen-ematea martxoaren 20a baino lehen egin behar da, udal-txegan, 948 580 006ra deituz edo euskara@baztangoudala.eu ra idatziz.

Bertzetik, Baztango bortzikastetxetan euskararen erabilera sustatzeko tailerrak egin nahi dira Sortzen lkasbatuaz-ekin elkarlanean: *Kontu txikiak eta jolas tailerrak*. Gurasoei bideratua izanen da, haurrekin euskaraz jolasteko. Aitzine-rago xehetasun gehiago.

Kattalingorri
arropa denda

10% txartea

%10 erabiltzeko
DESKONTUA

ANYKIDONIA
Baserriak

Albergoak, apartamentuak, etxeak eta berriztatutako etxeak

Berriola Irujo 16, Elizondo • 948 591 807 • 948 581 853
berriola@anykidonia.com • www.anykidonia.com

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 500 312
ELIZONDO

MENDIA
Baserriak

T. 948 453 050 • AMAJUR
www.mendia.com

GIZARTEA → HONDAKINEN KUDEAKETA

Udaletxera
deitu beharko
da zabortegia
irekitzeko

«Denon artean Baztango inguruak garbi mantentzen dituzagun». Horixe da helburua.

Baztango UPNren kargu publikoek duten «gaitasun falta nabarmena» salatu du Ezker Aber-

Bagordiko hondakin begetalendako zaborte-
gian gisa guztietako hon-
dakinak botatzen direla
ikusita, hori erregulatzea
erabaki du Udalak eta
aitzineko alean aipatu be-
zala, zabortegia itxi egi-
nen du. Hala, udaltzai-
nak arduratuko dira za-
bortegia irekitzeaz. «Mo-
du horretan, bertan hon-
dakin begetalak barrik
botatzen direla bermatu-
ko da», azaldu du ohar
bidez Mikel Ortega zine-
gotziak. Zabortegira zer-
bait eraman behar dute-
nek aitzinetik udaletxera
deitu beharko dute, udal-
tzainekin harremanetan
jarri eta zerbitzua antola-
tzeko. Orain arte beza-
la, Bagordiko zaborte-
giaren erabilpena doa-
koa izanen da.

Zabortegia ixteko lanak egiteko, hiru aurrekontu eskatu zituen Udalak eta aurkeztutako en artean, merkeenari esle-



ARGAZKIAK: ONDIKOL / ALICIA DEL CASTILLO

Aurten ere giro ederrean joan ziren inauterietako egun eroak. Orain, hurrengo urtekoen esperoan egon beharko duqu.

tzaleak ohar bidez. Herri-
tarren %77 euskalduna
den udalerrian, UPNren
bortz zinegotzietatik ba-
tek bakarrik daki euska-
raz, «nahiz eta udalbat-
zar eta Batzar Nagusi
gehienetan erdaraz ber-
tzetik ez aritu», dio Ekzer
Abertzaleak. Gaineratu
duenez, «euskaraz ez ja-
kitek eta horrek daka-
ren gaitasun faltak udal-
batzarretan, Batzar Na-
gusian eta batzordeetan
arazo eta gastu aunitz
sortzen ditu: adibidez,
itzultzaile gastuak».

UPNko hautetsi publikoen «prestaketa faltaz» mintzo da eta «gaitasun falta konpondu eta euskaraz ikasi beharrean azken aldian harrokeri-

an eta espantukerian aritzea», leporatu dio Ezker Abertzaleak. «Horren erakusgarri dira idatziak euskaraz sartzten direlarik edo taldeen izenean norbanakoek idatziak euskaraz aurkezten dituztelarik egiten dituzten isti eta keinuak eta izaten duten jarrera». UPNk argitaratutako hondarreko berripapera ere aipatu dute: «eskuin muturrarena lasai aski izan daitekeen tonu erasokorra eta errespetu eskasekoa erabiliz, erdara hutsean argitaratu dute, euskararen guttiagotze eta bazterketan aktiboki parte hartuz». Dena den, horrek ez du «sobera harritzen» Ezker Abertzalea:

«UPN dagoen toki guztietan aski nabarmena baita, bai Nafarroako Gobernua euskarazko komunikabideei laguntzeki kenduz erdarazkoek milioiak ematen dizkien biztarteetan, edo Baztannen hizkuntza-kolonizatzailerisajokatzuz. Helburua beti bera, euskaldunak azpiritzea».

Bake Epaitegiko bulegoa lekuz aldatu da. Udaletxeko beheetikotik solairuan kokatu da eta sarri gabeleko aldetik izan den du, Pedro Axular karrak ematen duen aldetetik. Ordutegia orain artekoa da (09:30-13:30).

DIANA YRENEA BENEJUNTO
idazlea eta irakaslea
Nork ez du inoiz laguntzarik behar izan?
Beharrik behar bezala haur eta helduek
 Arrakastak, jarduerrak, jarduera irakasketa, ikasgai irakasketa, iraketa irakasketa eta irakasketa
 Aste gutxiaren zehar, haur eta helduentzat margo tailerrak (ordutegi ezberdinak)
<http://dianayrenea.blogspot.com>
 659 908 926 – 948 453 478


IGOGAILUEN INSTALAZIOAK
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK

Santiago, 71
31700 ELIZONDO
T. 948 580 166
F. 948 452 557
M. 619 424 999 - 649 699 820

GIZARTEA → UPN-REN SALAKETA

UPNren ustez Bilduk Udalaren kudeaketa 'ilegala' egiten du

Bilduk eta
Ezkerrak UPN
gezurretan ari
dela salatu dute

TTIPI-TTAPA

Udalaren funtzionamenduan «behin eta berriaz ilegaltasunean» dabilela Bildu salatu du UPNk. «Sistematikoki prozedura ez da betetzen, batzordeak egin gabe batzarak deitzen dituzte, dokumentazioa epeaz kanpo eta geronek eskatzen dugulako bakarrik ematen digute eta behin eta berriaz eskatu dugu plenoak bi hizkuntzetan egitea», dio UPNk, «Udalaren funtzionamendua txapuza bat dela» gaineratuz. Batzorde informatiborik ez dagoela ere badio eta egoera aldatzen ez denez, Nafarroako Auzitegi Administrazioan errekurtsoa sartu omen du.

«Udalaren lan erritmoa eta lana kudeatzeko gaitasuna» murriztu direla ere adierazi du etxez etxe banatu duen boletinean. EKainetik abendu-ra aztertu diren gaiak zenbatu ditu, eta kalkulatu duenez, 2008ko bigarren sei hilekoan 134 puntu landu ziren, eta 2011n 54.

Aurrekontuaren harira, «sinestezina, ulertezina, ausartegia, xahutzaila, arduragabea eta ez eraginkorra» hitzak erabili ditu UPNk: «Nafarroako Gobernuari baliabideak murriztea egotzi ondotik, aurrekontua iazkoa bai-

no 400.000 euro haundioa dela ikusita sorpresa hartu dugu. Gobernuak %70eko laguntza emanen lukeen eta Hirurteko Planean zeuden aurreikusitako jarduerak Bilduk eta Ezkerrak alde batera utzi dituzte».

Estatu mailako azien den lehiaketarako partidak kendu izana ere kritikatu du: «40.000 euroko gastua da eta babesle eta dirulaguntzekin 20.000 eurokoa». Abeltzainei buruz solasean «ahoa betetzen» dutela leporatu die, «baina errealtatean ez dira beraien lehentasunak».

Magnak Zilbetin egin nahi duen harrobi proiekturako, herrilurrak uzteko Udalarik egindako eskarian «Bildu bakarrik gelditu» dela ere badio UPNk eta proiektu honekin «Baztan, instituzioak eta joko demokratikoa irabaziz atera direla».

Udal langile guztiei EGA eskatzearekin ere ez da konforme agertu, «adin gehiago eta maila akademikoko baxuagoa dutenendako eta euskaldun zaharrendako kaltegarriagoa izan daitekeelakoan». Dioenez, «UPNk proposamen alternatiboa aurkeztu zuen, euskararen jakintza maila lanpostura egokituko lukeena».

BILDU ETA EZKERRA

Nafarroako Gobernuak Baztango piriniar behien feria egiteko laguntzak ia hutserat moztu dituela argitu dute Bilduk eta Ezkerrak eta aldi be-



UPNko zinegotziek otsailaren 28an egin zuten agerraldia.

ARGAZKIA: ONDIKOL



Bildu eta Ezkerrako zinegotziek martxoaren 1ean eskaini zuten agerraldia.

UTZITAKO ARGAZKIA

rean, UPNk honen inguruan erran dituenak gezuratsu nahi izan dituzte.

Iaz Elizondoko Aspinarekin batean egin zen piriniar behien feria denetara 48.000 euroko gastua izan zuen. Baina Bilduk azaldu duenez, «kontuak oraino ziritu gabe daude, Aspinak eta babesle gehienek beren partearien handiskoena ordaindu badute ere (3.700 euro falta dira), Gobernuak oraino ez du bere zatia ordaindu, 15.250 euro, hain zuzen».

Are gehiago, Amairuko abuztu-ko ardien feriako 3.675 euroak ere ez omen ditu ordaindu eta momentuz, diru hori Udalak jarri du, «bertze behar batzuk ase gabe utziz; adibidez hiltetgia». Hala ere, «Udalak esfortzu bat eginez 17.000 euroko partida bideratu du hiltetgia moldatzeko», jakinarazi dute.

Gobernuak 2012ko aurrekontuetan feriak egiteko diru kopurua iazko 50.000 euroetatik aurtengo 25.000etara gutsi duela ere aipatu dute Bilduk eta Ezkerrak. Eta murrizketak direla eta,

25.000 euro horiek iaz agindutako dirulaguntzak ordaintzeko erabiliiko dituzte: piriniar behien feria, Amairuko ardiarena, Elizondoko feria, Uharte Arakilgoa... «Bistan denez, 25.000 euroekin ez da aski, eta modu horretan, herritarrek jakin behar dute iazko Elizondoko ferietako azien den merkaturako Gobernuak hitz eman zituen 6.000 euroak ez dituela ordainduko, hortaz, Elizondoko herriak kostu hori berregain hartu beharko du».

Egoeraren aitzinean, feriei buruz solastu da Udala Abeltzaintza Saileko arduradunekin, baina «dirulaguntzak ez segurtatzeaz gain, guk aurtengo feriak antolatzeakotan, aurtengo laguntzen ordainketa 2013an egiten dutela adierazi digute».

Udalak feriarik ez duela antolatu nahi eta nekazarien aldeko solasekin ahoa bete baina ez duela deus egiten erranez, UPNk egindako adierazpenei ere erantzun dieten, gezurretan ari zela leporatuz. «Feriak ez egitekotan, Gobernuak da

ez egitearen ardura duena eta Gobernuak da urte hauetan nekazariak jasateko dituzten neurrien arduraduna, tartean Begoña Sanzberro UPNren zinegotzia eta aitzineko legegaldian nekazaritza eta abeltzaintza kontseilaria». Kontseilaria zela nekazaritza eta abeltzaintzarako laguntzak %30 murriztu direla oroitarazi dute Bilduk eta Ezkerrak, «berriaz ere Baztango nekazarien guztiz kontrako den eredia bultzatuz eta, hain izan dira zabarrak, Europatik nekazaritza iraunkorrerako eta neurri agroanbientalerako laguntzak ez dituzte la politika horiek egiteko erabili ere egina, eta hori aski kezagarria da, laguntza horiek Baztango nekazariak zuzenean ukitzen dituztelako».

Gobernuaren jokaera ikusita, Udalarendako «ezinezkoa da» 48.000 euroko aurrekontua duen feria antolatzea. «Horrek ez du erran nahi ez garenik ari bertze aukerak aztertzen, gure bozondatea lehiaketa urtero antolatzea da».

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → ABELTZAINZA

Laborarien mundua finitzen ari da gure herrietan

Behi esnedunen etxe bat baizik ez da gelditzen Zugarramurdin

Koro eta Margari

Aitzineko egun horietan hil zitzaigun Damaxo Goiburukoa, eta horrek pentsarazi digu laborari mundua fini dela gure herrian, Zugarramurdin. Etxe bat bakarrik gelditzen da behi esnedunak dituen, eta hau ere, ez luzerako. Urdazubin ere, lau edo bortz baino ez dira gelditzen.

Ardiak dituztenak zerbait gehixeago dira, baina hor ere gutti. Laborantza lan nekagarria

da, egunero segitu behar dena, ez dago ez iganderik ezta bakan-tzarik ere. Beraz, kon-prenitzekoa da jendeak bertze lanetan aritzea nahiago izatea.

Hala ere, bertze gisarat aipatzekoak ere bada-ira: hortxe ditugu Etxe-lekuko bi gazte, Xabier eta Ana Mari anaia-arrebak, gurasoek sortutakoa aitzinera eramaten. Kuraiez beterik, beren artalde eta gasnategia-ekin ilusione haundia-ekin lanean ari dira, eta zorionez, lanaren uztza sarien bidez biltzen: azkenekoak gan den ur-tean Birminghametik (Erresuma Batua) eka-ritako hiru do-minak dira.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Etxelekuko Ana Mari dugu argazkian, gan den urtean irabazitako hiru dominekin.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Inauteriak giro ederrean

Aurtengo inauteriak ere umore ederrez gan dira. Zugarramurdin larunbat eta igandean ospatu zituzten, eta Urdazubin, berriz, asteartera arte luzatu zituzten. Betiko usaia xaharrari segituz, besta etxez-etxe ibiltzea da, gazteek musika eta umorea etxeetara eramanez, eta horren truke etxeko-nagusiek zerbait eskainiz. Argazkian ageri den Haitzondoko-bordan ere gustura har-tu dituzte inauteriak.

Ba al zenekien...

1910. urtean 616 lagun bizi zirela Zugarramurdin eta 647 lagun Urdazubin? Berriki 2011ko datuak argitaratu dira, eta Zugarramurdik 211 biztanle ditu eta Urdazubik 388.



AZPIEGIETURAK → URDAZUBI

Dantxarineko zeharbidea lehengoratzea baztertu du sententzia batek

TTIPI-TTAPA

Dantxarineako zeharbideak orain dagoen bezala izaten segituko du, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak hala erabaki baitu, bi herritarrek zeharbideko obra egin aitzineko egoerara itzultzeko eskaera ez onartuz.

Auzia epaitegietan ibili da. Esleitzeko prozeduran irregularitasunak

izan zirela adierazi zuten bi herritarrek eta Nafarroako Auzitegi Gore-nak arrazoia eman zien, obra egiteko lanak esleitu ziren alkatearen ebazpena bertan behera utzi baitzuen sententziak.

Orain, berriz, herritarrek zeharbidea lehengo egoerara itzultzeko eskaria egin zuten, baina epaitegi-ak gibelera bota die.



GIZARTEA → URTEETAN EGINDAKO LANA SARITUA

Herriko domina eman diote Sebastien Anzizar pisutzaileari

40 urtez
herriko pisuak
atxiki ditu
Anzizarrek

Joana GUERENDIAIN

Sébastien Anzizarrek herriko medaila ukan du 40 urtez herriko pisuak atxiki baititu lhartzet berrian. Pisutegi horretan edozer pisatzen zen: animaliak, artilea, baita sokatirako partehartzai-leak ere!

Pisutegiak beti irekiak ziren, edozein egunetan eta momentutan etorrita ere, beti norbait bazen. Sébastien eta Martinak 2010era arte atxiki dituzte pisuak, eta geroztik, Portuako lan eremuan aurkitzen dira, baina orain elektronikoak dira, ez da gehiagorik behatzen egoten.

Saint Patrick gaua

Zazpiak Bat taldeak martxoaren 17an Saint Patrick gaua ospatuko du Lur Berrin. 21:00etatik goiti Deiedra taldea-



ARGAZKIA: JOANA GUERENDIAIN

Sébastien Anzizar bere ingurukoekin.

rekin kontzertua izanen da eta ez da sagarnorik, guinnessik, musika irlandarrak eta giro alairik faltako. Bertzetik, ohitura irlandarrak dioen bezala, zerbait ferdeajantzi behar da. Sartzea bi eurotan izanen da eta baso berria nahi izanez gero, euro bat ordaindu beharko da.

Lezeak

Lezeek gazte kolpe bat hartu dute aurtan. Obrak eginak izan dira

SAINT PATRICK GAUA
Zazpiak Bat taldeak gaudi antolatu du martxoaren 17rako. Sartzea bi eurotan izanen da.

gunea modernizatzeko, orain arte, aski tradizio-nala gelditzen baitzen. Museoa gune dinamiko bat bilakatu nahi izan da, horretarako objektuez gain, film bat pasatua izanen da sagu-xaharrei buruz, hologna-

moak pertsonaia mitologikoekin.

Bisitari dakogionez, duela bortz urte berdina dela. Beraz, bisitarien kuriositatea piztu beharko dute berriz: horretarako bisita aitzin film bat pasatua izanen da, gero bisitaren tesuaren pasarte batzuk aldatuak izanen dira alderdi kulturala eta ingurugiroa azpimarratuz.

Inauteriak

Aurtengo inauteriak gi-

ro goxo batean pasatu dira. Larunbatean gazteek auzoak animatu zituzten kantu eta trikitixa soinuekin. Arras ongi errezibituak izan ziren etxe eta ostatuetan eta eskerrak ematen dizkionte jendeari. Igandean euri errauntsiek desfilea kiroldegira desbideratu zuten, eta han jende multzoa bildu zen haurren kantuak eta dantza ikusteko, eta Sarako kantariak *Rabby Jacob* filmaren pasarte bat berriz egin zuten. Gero zanpatzar erre zuten eta bukatzeko hiru eskolek bazkaria antolatu zuten Lur Berrin.

Kirol emaitzak

Urtxintxek galdu egin dute 13-14 Hendaiko ekiparen kontra. Basurdeak forman daude eta 45-8 irabazi dute Pu-yoko taldearen kontra.

Sasoineko lana

Martxoaren 31 arte bada Herriko Etxera gutun bat igortzeko aukera, sasoineko lan baten galdetzeko.

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun

(0034) 948 63 54 58

CAFE DE LA MAIRIE

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

VENTA PEIO

SENPERE

HONDAKINAK → ZALUAGA KUDEATZEN DU

Qualitri hondakin kalitateko bilketa saria eman diote Bizi Garbia elkargoari

Bio hondakinak biltzen hasiko dira lehen aldikoz

Franck DOLOSOR

Berriki sari berria etorri da Senpererat. Zaluaga hondakin biltegia kudeatzen duen Bizi Garbi elkargoak bi sari eskuratu zituen jadanik eta orain Qualitri hondakin kalitateko bilketa ziurtagiria eman diote. 35 lagun ari dira hor lanean, hego Lapurdiko bederatzi herri eta Nafarroan Urdazubi eta Zugarramurdiko hondakinak biltzeko eta parte bat birziklatzeko, erranahi baita 40 000 herritarren eremua nunbait han. Gastuen kontrola, erabiltzaileei ematen zaizkien tresnak, garbitasun eta segurtasun neurriak eta inguramena egiten zaion eragina kontuan hartu dira Qualitri ziurtagiria eskuratzeko.

Bertzalde, geroari buruz proiektuak ez dira eskas, bio hondakinak biltzen hasiko baitira lehen aldikoz. Entsegu eginaraziko diote Senpereko enpresa bati, ikastegietako eta ostatuetako bio hondarrak biltzeko konposta egiteko gero. Dena den, kezka ere aski haundia da Zaluaga inguruetan

Ahetzen eta Bidarten bereziki usain txarren-gatik eta tratatuak izan ez diren urak isurtzen omen direlako. Ainitzek dakite hori inguruetako herrietan, baina bertako arduradunek ez dute hitzik aipatzen kalte horietaz.

Agur Ganizon urguritarri!

Senperen baldin bada auzo atsegini hori Urguri da, herriko plaza eta lbarrun artean, hor direlako gure herriko tokirik zelaianak. Urgurin bada estimatua den Zamora familia, egun hauetan penan dena Ganizon, aita eta aita-txi zendu baita 88 urtetan. Ganizon Zamora zena 1924ko urtarrilaren 3an sortu zen Amaiurren, bere familia Senperetik Nafarroa gain baitzen. Geroago Lapurdirat itzuli ziren eta Senperen ezagutu zuen bere andrea Graxi Sarasola urguritarra. Antzola baserriko nagusiak 1951ean esposatu ziren eta bi seme eta bi alaba izan dituzte, haur tiki andana ere bai. Berriki, denak elgatu ziren Ganizon eta Graxiren diamantezko ezteiak ederki ospatzeko: 60 urteko maitasuna! Bere bizi osoan, Ganizon laborantzaren aritu da azkarki egunez; eta



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

40 000 herritarren eremuan lan egiten du Bizi Garbi Elkargoak.

gauaz urratsa zalu! Bere adineko mutiko frango bezala gaueko lanari lotu zen sos piska bat irabazteko. Adiskideekin umore onekoa eta familiarekin arras maitagarria izan da beti.

Senperetik Senpererat oroitzapen bilduman agertzen dira urguritar hunen hitzak aise biltzen harekin solas egitea eta irriz aritzea. Bere erranak eta oroitzapen goxoa ez dira galduko eta gainerat ez ditugu sekulan ahanztziko. Ez adiorik Ganizon eta milesker!

1000 lagun Naia Lacroix-ren alde

Naia askatu, konponbide demokratikoaren alde lelopean mila lagun bildu ziren Senperen joan den otsailaren 25ean. Hogoi egun lehenago jendarmeei arrastatu zuten bere ahizparekin beren bu-rasoen etxean, lbarrun-nen, lotura zutelakoan iaz Senperen egin zen atentatu entsegu batekin udako etxe batean.

Ahizpa libro utzi zuten kargurik gabe bainan Naiak preso segitzen du Bordele ondoan.

Selauru hustea Amotzen

Apirilaren lehenetan, bigarren eskuko merkatu haundia egingen da

Amotzen horko eskolak selauru hustea apailatu baitu. Izanen da hor gauza frango ikusteko, saltzeko eta erosteko eta baita jateko eta edateko ere. Irabaziekin proiektu kulturalak egiten ahaliko ditu Amotzeko eskolak.



Mikel MARTIARENA BENGOTXEA

Oiartzungoa, 2008ko otsailaren 19an

IV. URTEURRENA

Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.

GOLDEA TAILERRA

EZKONTZAK

Marie Hélène Bernez Vignolle eta
Alain Baron, otsailaren 25ean Saran.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Agapita ADANSA BARATZEONDO

Felix Arretxearen alarguna

Donamarian, 2012ko otsailaren 24an, 90 urte

*Ez agurri, ez adiorik
gero arte baizik.
Gure bihotzetan betiko
maite zaitugu amaxi.
Gogoan zaitugu.*

ZURE FAMILIA



SORTZEAK

June Gartzia Garraus, Berakoa, urtar-
rrilaren 28an.

Ainhoa Armendariz Aizkorbe, Sun-
billakoa, otsailaren 29an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Maria Petra Juanikotena Salaburu,
otsailaren 14an, Arizkuingoa, 94 urte.

Eugenio Ugalde Elgorriaga, Lesakakoa,
otsailaren 16an, 77 urte.

Maria Pilar Goikoetxea Telletxea, Be-
rakoa, otsailaren 17an, 83 urte.

Fernando Arburua Mihura, Berakoa,
otsailaren 18an, 69 urte.

Miguel Oteiza Arostegi, Gaztelukoa,
otsailaren 18an, 69 urte.

Jose M^a Sansiñena Irisarri, Etxalarkoa,
otsailaren 19an, 93 urte.

Joakin Uriz San Bizente, Gartzaingoa,
otsailaren 19an, 79 urte.

Damaso Etxeberria Beola, Zugarramur-
dikoa, otsailaren 20an, 51 urte.

Ana Maria Larralde Iribarren, Aran-
tzakoa, otsailaren 18an, 99 urte.

Luis Ordoki Esteberena Gaxtelu, Lesa-
kakoa, otsailaren 23an, 89 urte.

Pakita Sanzberro Elizalde, Etxalarkoa,
otsailaren 23an, 89 urte.

Gertrudis Fernandez Lago, Berakoa,
otsailaren 23an, 94 urte.

Agapita Adansa Baratzeondo, Dona-
mariakoa, otsailaren 24an, 90 urte.

Jose Maria Jorajuria Arretxea, Elgorria-
gakoa, otsailaren 25ean, 77 urte.

Santiago Goienetxe Cordoba, Amaur-
koa, otsailaren 25ean, 66 urte.

Enriketa Belzunegi Meaka, Elizondo-
koa, otsailaren 26an, 95 urte.

Migel Iratzoki Larralde, Lesakakoa, otsai-
laren 27an, 83 urte.

Mercedes Larretxea Taberna, Aran-
tzakoa, otsailaren 27an, 77 urte.

Teodoro Etxenike Urrutia, Iruretakoa,
otsailaren 28an, 85 urte.

Robert Etxeberrigarai, Sarakoa, otsai-
laren 22an, 95 urte.

Jean Deleau, Sarakoa, otsailaren 21ean,
61 urte.



Franzisko DANBORIENA ARBURUA

Elizondon, 2012ko otsailaren 13an, 80 urte

*Beti irrifarrea zenuen lagunmin
gauza denen gaintetik aitzinerat ekin
bizitzari helduaz gogo guziekin.
Indar hau utzi duzu betiko gurekin
maite izan zaitugun familiarekin.
Beti gurekin egonen zara
aitetxi...*

ZURE FAMILIA



Pakita SANZBERRO ELIZALDE

Martin Irigoien Irisarriren alarguna
Etxalarren, 2012ko otsailaren 23an, 89 urte

*Betirako gure bihotzetan
Gure eskerrik zintzoenak
une samin hauetan
gurekin bat egin duzenoi*

BERE FAMILIA



Maritxu AZPIROZ IRAZUSTA

Leitzan, 2011ko martxoaren 5ean

I. URTEURRENA

*Eskerrik asko
gure ondoan
izan zareten guztiei.*

FAMILIAK

HEDABIDEAK

EUSKARAZKO HEDABIDEAK → MUS TXAPELKETA ESKUALDEKO HEDABIDEEN ALDE

Mus txapelketa jokatu da Xaloa, Xorroxin eta Ttipi-Ttaparen alde

Diru sarrera
alternatiboak
bilatzeko
elkarlana abian

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak euskarazko hedabideak dirulaguntzarik gabe utzi dituela ikusirik, Baztan-Bidasoaldean aritzen diren Xaloa Telebista, Xorroxin Irratia eta TTIPI-TTAPAK diru-sarrera alternatiboak bilatzeko erkarlana abiatu berri dute. Oraingoan, eskualdeko elkarteetan laguntzarekin Mus Txapelketa antolatu nahi dute.

Aste Santua baino lehen, herriz herri mus txapelketak antolatu nahi dira eta finala, apirilaren



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Euskarazko hedabideak diru-laguntzarik gabe utzi ditu Nafarroako Gobernuak.

14an egingen litzateke. Hasiera batean ostaluetan egitea pentsatu bazen ere, azkenean, ahal den guztietan elkartetant egitea hobetsi dute tokiko hiru hedabideek.

Elkarte bakoitzak erabakiko luke noiz komenizaion antolatzea. Hori bai, otsail hondarrerako jakinarazi beharko luke irratian, telebistan eta aldizkarian egingen den

publizitate kanpainan aipatzeko.

Txapelketan parte hartzen duen bikote bakoitzak 20 euro ordaindu behar ditu. Printzipioz, hortik bilduko da

Xaloa, Xorroxin eta TTIPI-TTAPA laguntzeko dirua. Eta herrietako sariak emateko bikote baten kuota (20 euro) elkartearentzat geldituko litzateke eta elkarrekin bakoitzaren esku utziko litzateke gero zer sari eman herriko txapel dunei. Finalerako sariak, ordea, antolakuntzak ordainduko litzateke. Erabat zehaztu gabe dago detailea, baina seguruenik, 200 euro ingurukoa izanen litzateke eta saski edo otorduekin osatua.

Aipatu bezala, Mus Txapelketaren kanpaina Xaloran, Xorroxin eta TTIPI-TTAPAN egingen da. Hor aipatuko dira zein elkarteek parte hartzen duten eta herri bakoitzean noiz jokatu den lehia.

KULTURA

BERTSOLARITZA → BARDOAK 2012 TXAPELKETA

Taldeakako bertsolari txapelketako saioak jokatu dira Ituren, Leitza eta Igantzín

TTIPI-TTAPA

Heldu diren asteburuetan Bardoak 2012 Nafarroako Taldeakako Bertsolari Txapelketako bigarren faseko saioak jokatu dira eskualdean.

Iturengo Herriko Etxeko ganbaran, ortizalean, martxoak 9, afa-

ria eta bertso saioa izanen dira, 21:00etan. *Erauntsi* (Iker Gorosterrazu eta Alazne Untxaloturendarrak eta Amaia Elizagoien oronoztarra) eta *Leitzaundi* (Miel Mari Elosegi Luze, Iñigo Ibarra eta Iñigo Sagastibelza) taldeak ariko dira aurrez-aurre.



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Rimak Exkaxko taldeko Iñigo Olaetxea Igantzín Biltoki elkartearen ariko da martxoaren 17an.

Martxoaren 17an, Leitza, bertso saioa jokatu da 18:30etik aitzinera. *Leitzaundi* eta *Erauntsi* taldeak ariko dira nor baino nor.

Egun berean, martxoaren 17an, Igantzín

Biltoki elkartearen, afaria eta bertso saioa jokatu dute *Rimak Exkaxko* (Iñigo Olaetxea eta Estitxu eta Eneko Fernandez lesakarrak) eta *Bertze maldikoak* (Ainhua Aranburu, Aimar Karri-

ka eta Oskar Sanz de Acedo) taldeek. 21:00etan hasiko da.

Horiek izanen dira bigarren faseari dagozkion eskualdeko saioak. Finala Leitza jokatu da martxoaren 31n.



ARGAZKIAK: JOSEMARI TELLETXEA

184 bikote aritu dira aurten Malerreko eskuz binakako txapelketan.

PILOTA → TXAPELKETAREN X. EDIZIOA

Diaz eta Arraztoa nagusi Malerreko eskuz binakako pilota txapelketan

Guztira 184 bikote aritu dira txapelketa honetan

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Erreka elkarteak hainmargarren urtez antolatutako Malerreko eskuz binakako txapelketako finalak otsailaren 25ean jokatu ziren. Guztira 184 bikote aritu dira txapelketan.

Benjaminetan, Aldabideko (Arbizu) Igoa eta Mariñelarenak 18-10 irabazi zieten Orozkoko Iriondo eta Ibarondori.

Alebinetan, Ilunpeko (Azpeitia) Egiguren eta Iriarte 18-14ko markagailuarekin nagusitu ziren Andoingo Alberdi eta Usurbilgo Arangurenaren kontra.

Infantiletan, Titin III.eko Marcos eta Lizarako Anduagak 18-10 irabazi zieten Lazkaoko Zubizarreta eta Sestao-ko Martitegiri.

Goizeko partiden ondotik, bazkari ederra izan zuten, 60 bat lagunekin.

Bertzeak bertze, Miguel Pozueta Nafarroako Kirol Institutuko zuzendaria, Nafarroako Pilota Federazioako presidente hautagaia izanen den Montxo Iriarte, Diario Vasco eta Elgetako txapelketak antolatzen dituen Juan Luis Ubera eta Gipuzkoako Pilota Federazioako presidente Patxi Jauregi izan ziren.

Arratsaldean jokatu ziren gainerako finalak.

Kadeteetan, Errekako Bakaikoa eta Donibane-ko (Iruñea) Arandiak 22-11 irabazi zieten Donibane-ko Laso eta Martijari.

Jubeniletan, Uharteko Zamora eta Errekako Andueza 22-17ko emaitzarekin nagusitu ziren Tolosako Aurrera Saizaldekoe Zelaia eta Iruetagoienaren kontra.

Bigarren mailako seniorren finalean, Ilunpeko Otamendi eta Aizpuruk 22-8 irabazi zieten Txarutako Unai Arraztoa eta Gure Txokoako Gorka Retegiri.

Elite mailako finalean, azkenik, Iñigo Diaz eta Txarutako Xabi Arraz-

Iñigo Diaz eta Unai Arraztoa elite mailako txapeldunak.



toak 22-14 irabazi zuten Usurbilgo Santxo eta Altunaren kontra. Honela, Arraztoak bigarren urtez segidan irabazi du txapela, iazkoan Onsalorekin lortu baitzuen. Bi aldiz segidan Errekako txapelketa irabazi duen lehen pilotaria da iruritarra.

Sari banaketan, agintari eta laguntzaileez gain, Iker Arretxe eta Aritz Begino pilotari profesionalak izan ziren. Finaleko pilotari onenaren saria Iñigo Diazentzat izan zen. Josu Prim epaileari ere oroigarria eman zitzaion, Errekako txapelketan egindako lanagatik.

ERREKAKO FINALAK

Errekako pilotarien arteko eskuz banakako txapelketaren finalak otsailaren 24an jokatu ziren Donezteben.

Benjaminetan, E mailako lehen multzoan, Oier Erkizia 18-11 irabazi zion Oier Oiarzabali eta bigarren multzoan, Asier Arregi nagusitu zen, 18-13 Fabricio Balmelliri irabazita; D mailan, Enaitz Portuk 18-13 irabazi zion Ugaitz Aldaberi; C mailan, Mikel Mikelarenak 18-11 irabazi zion Joseba Telletxeari; B mailan, Ruben Saldias 18-13 nagusitu zen David Mitxeo-

BORTZIRIAK

Eskuz banakako finalak larunbatean

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, martxoak 10, jokatuko dira Bortziritako Eskuz Banakako Pilota Txapelketako finalak. Txapelketaren XI. edizio honetan, 101 pilotarik hartu dute parte ttikien mailan, benjaminen A eta B mailetan, alebinen A eta B kategorietan, infantilen A mailan eta kadeteen A eta B mailetan.

ren aurka. A mailan, Aimar Sarrateak 18-15 irabazi zion Mikel Bangori.

Alebinetan, Ibai Erasun 18-11 nagusitu zen Gaizka Agirreraren kontra.

Infantiletan, Iker Salaberriak 18-4 irabazi zion Enaitz Telletxeari.

Kadeteetan, Beñat Etxekoloneak 18-16ko emaitzarekin irabazi zion Jabier Saldias.

Nafarroan herri kirola garatu eta sustatzeko lanean, 20 urte egin berri ditu Nafarroako Herri Kirol Federazioak. Bitarte horretan, Euskal Herri mailan eta Nafarroa mailan hain-

bat txapelketa eta erakustaldi antolatu ditu han eta hemen. Joxelu Retegi ere aspalditik dabil tartean. 1992an Federazioko lehendakari izendatu zuten eta 2002ra bitarte segitu zuen.

2005ean berriz sartu zen lehendakari eta ordutik bera dago karguan. Aurten, Federazioko ordezkariak izendatzeko hauteskundeak egingen dira maiatzean edo ekainean.

Joxelu RETEGI | Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakaria

«Lanean segituz gero, herri kirolak plazetan ikusiko ditugu»

G. PIKABEA | SUNBILLA

Eskualdeko herri kirol zale batzuek eta kirol koordinatzaileek Nafarroako Herri Kirol Federazioa sortu zutenetik, 20 urte pasatu dira. Geroztik, Nafarroan herri kirola sustatzea izan du xede nagusi, eta hainbat izan dira antolatutako txapelketa eta erakustaldiak. Norbaitek Herri Kirol Federazioa ongi ezagutzen badu, hori Joxelu Retegi da, urteak baitaramazki Federazioko lehendakari lanean. 1990eko lehen hartuemanen ondotik, 1991n sortu zen Nafarroako Herri Kirol Federazioa eta urtebetera izendatu zuten lehendakari, 1992an. 2002ra arte segitu zuen karguan. 2005ean berriz sartu zen lehendakari eta ordutik bere esku dago ardura.

20 urte hauen balantze «positiboa» egin digu Retegik: «hutsetik hasi eta egungo puntura ailegatzeko gauza aunitz egin dira». Baina aldaketak onerako eta txarrerako somatu ditu: «lehenbizian, herri mailan mugimendu haundia zegoen, herri kirol talde gehiago zeuden eta pixkanaka, su hori itzaltzen joan da. Bertzalde, kirolarien maila aldetik, maila dezentea hartu da. Adibidez, Zazpi Herrialdeen Txapelketan parte hartze hutsetik, hainbertze urtetan txapelketa irabaztera pasatu da Nafarroa. Egindako lanak emaitza hori eman du».



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Joxelu Retegik urteak daramatza lehendakari lanean: 1992tik 2002ra eta 2005etik 2012ra.

«Orokorrean, Euskal Herrian» herri kirolak nahiko egoera onean ikusten ditu, baina «kezka» puntu batekin: «Nafarroan nahiko osasuntsu daude herri kirolak, haurren taldeak badira eta berriak sortzen dira. Baina helduetan orain baino kirolari gehiago egon da. Ez dugu altxarorik botatzeko motiborik». Apustuez galdetuta, berriz, zera dio: «apustuak ez ditut beharrezkoak ikusten, baina ez naogo euren kontra. Jendeak gustura hartzen ditu, eta Nafarroan, aizkora adibidez, apustuengatik mantendu zen garai batean».

Nafarroan 12 dirajokatzaren diren herri kirol modalitateak, baina Retegiren-

2012KO AURREKONTUA
150.000 euroko aurrekontua izanen du Nafarroako Herri Kirol Federazioak aurten. Eta hori nola bideratu? Bada, hiru zatitan antolatzen dute: %40a Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza; bertze hainbertze edo gehiago Udalentzat erakustaldiak edo txapelketak antolatuta jasotakoa; eta azken zatia publizitate eta sarrerekin. Urtetik urtera, aurrekontua aldatzen da, antolatu beharreko txapelketen arabera.

tzat, «aizkora izan da eta da kirol erregea». Bertze herri kirol batzuen egoera bertzelakoa da: «batez ere larri dagoena sega da. Nafarroan segalari bakarra dago». Zera gaineratu digu: «sokatiran eta proba konbinatuetan ibiltzen diren herriz-herriko taldeak ere gero eta guttiago dira. Taldeko kirolak gehiago kostatzen dira. Eta lparaldeko Jokoetan denerarik bada. Koxkor biltzen, jende dezentea izaten da, baina ingude edo txingekin, juxtu ibiltzen gara».

Lehenxeago aipatutako Zazpi Herrialdeen Txapelketa izaten da urteko hitzorduetako bat, baina ez bakarra. Nafarroako Herri Kirol Federazioak Na-

farroa mailan hogeitaxapelketatik goiti antolatzen baititu urtean, baita Euskal Herri mailakoak ere. Haurrentzat Herri Kirol Jolasak antolatzen ditu, eta herriz-herriz erakustaldiak: «herri dezente dira bestetan kirol saioa antolatzeko deitzen digutenak, eta kontent gaude». Herri kirolei buruzko zortzi argitalpen ere kaleratu dituzte, azkena Federazioaren 20. urteurrenaren harira egindakoa, berriki argitaratua.

Etorkizunari begira «egiteko aunitz» dagoela uste du: «herri kirolak gehiago bultzatu behar genituzke eta gure eginberrereko garrantzitsuenak isketex-ikastetxe eta herriz-herriz, herri kirola zabaltzeko lagun bat jartzea da. Nafarroa haundia da eta badugu non zabaldu». Gazteak herri kirolelara hurbiltzea ere gustatuko litzaioke. Herri tikietan badagoela afizioa dio, herriko besta aunitzetan herri kirol probak antolatzen dituztelako bertako gazteek. Baina Retegiren irudiko, «gazte horiei kosta egiten zaie Federaziara hurbiltzea eta lehiaketetan parte hartzen animatzea. Gazte horien behar haundia somatzen dugu». Hori dena lortu ezean, herri kirolen sua itzaltzeko arriskuan ikusten baitu. Edo nola ere, ez du etorkizuna «hain beltza» ere ikusten: «lanean segituz gero, herri kirolak plazetan ikusiko ditugu moduan egonen gara».

AIZKORA → APUSTUA

Mindegia garaile, Kañamaresi minututik gorako aldea aterata

Mindegia erregularragoa izan da saio osoan

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Bigarrenen bai, bigarrenen lortu du aizkora apustua irabaztea Xabier Mindegia (Beintza-Labaien, 1984).

Aizkorazaleek ongi erantzun zioten demari eta Doneztebeko pilotalekua betea zela, Julen Kañamaresen (Berriozar, Nafarroa) aurka apustua jokatu zuen otsailaren 19an. Baita irabazi ere. Minutu eta

23 segundoko alda aterabaitzian Beintza-Labaiengoak aurkariari.

Aizkolari bakoitzak hamar pago-enbor moztu behar izan zituen: zortzi kanaerdiko eta bi oinbiko. Bi oinbikoak eta bi kanaerdiko Berriozar-koak eraman zituen eta gainerakoak Mindegia, aitzinetik hitzartu bezala. Eta alde bakoitzak 3.000 euro paratu zituen jokoan.

Biek egin zuten lan ederra, baina behar bada, Mindegia erregularragoa izan zen. Hasieran, Mindegia berak espero bezala, aurkaria aitzinean jarri zitzaion,

SAIOA AKITUTA

«Hasieran, bera guk pentsatu bezala hasi da, oso indartsu, eta tarte apur bat ateradigu; baina niri aitak eta anaiak lasai aritzeko esaten zidaten, harrapatuko nuela, eta horrela izan da. Nik beraien esanei kasu egin diet, eta emaitza oso ona ateradugu»

Xabier MINDEGIA
Beintza-Labaiengo aizkolaria

baina denborarekin berak hartu zion aurrea. Halaxe egin zuen akitu



UTZITAKO ARGAZKIA

Xabier Mindegia aizkora jokatzen, Martin atea eskuinean eta anaiak ezkerrean dituela.

arte, aita eta anaiaren aginduei fin segituz. Lan guztiak akitzeko 32 minutu eta 22 segundo be-

har izan zituen Beintza-Labaiengoak eta 33 minutu eta 45 segundo Julen Kañamaresek.

SOKATIRA → GOMA GAINEKO MUNDUKO TXAPELKETA

Brontzezko bi domina eskuratu ditu Amaiurrek Eskoizian

Lehia mistoan eta 560 kiloko gizonezkoen kategorian lortu ditu

TTIPI-TTAPA

Munduko Sokatira Txapelketa jokatu zen otsail hondarrean Perth-en (Eskoia), eta Euskal Herriko sokatira taldeen artean, Amaiurko gizonezkoak han izan zi-

ren. Bi domina lortuta itzuli zen etxera.

Gizonezkoen 560 kiloko txapelketan Amaiurrek hirugarren posturako lehia jokatu zuen Txina-Taiperen aurka, eta aise irabazi zizkion bi tiraldiak. Honela, Amaiurrek brontzezko domina lortu zuen. Abadiñok zilarrezko domina kolporatu zuen, finalean Country Club (Ipar Irlanda) taldearen aurka bi tiraldiak galduta.



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaiurko gizonezkoak Eskoizian jokatu den Munduko Txapelketan.

600 kiloko kategorian, Amaiurrek ez zuen finalerdietara sailkatzerik lortu, baina 600 kiloko txapelketa mistoan, podiumeko hiru koxkak euskal ordezkariak bete zituzten. Talde mistoak lau emakumezko eta berte horrenbertze gizonezkorekin osaturi-

ko taldeak dira. Lau taldek eman zuten lehian aritzeko izena, eta tartean ziren, Ibarra (Gipuzkoa), Badaiotz-Abadiño (Gasteiz, Araba-Abadiño, Bizkaia) eta Sakana-Amaiur (Arbizu eta Amaur, Nafarroa). Ligaxka jokatu zuten, eta Ibarako zortzikoak jant-

zi zuen txapela; Badaiotz-Abadiño izan zen txapeldunordea eta Sakana-Amaiur hirugarren.

Emakumezkoen 540 kiloko txapelketan Badaiotzek (Gasteiz, Araba) zilarrezko domina kolporatu zuen eta 600 kilokoan, berri, urrezkoa.

martxoak 9-22

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Solasaldiak



BERA-ELIZONDO | 2012.03

Koldo Martinez solasean Arkupeak elkartearen eskutik

Bizi testamentua, heriotz duina eta aurrez emandako borondateak solasaldia eskainiko du Nafarroako Ospitaleko UCiko medikuak hilaren 13 eta 14an.

Ospakizunak



BERA | 2012.03.10

Eskualdeko Gazteen Eguna Beran ospatulo da larunbatean

Egitarau zabala izanen da larunbatean Beran, eskualdeko Gazte Egunean. Gaueko kontzertuan Ztah (argazkian), La Po'p'lla, DJ Bull eta talde sorpresa ariko dira

Bertsoak



ESKUALDEA | 2012.03.09-10

Bardoak 2012 ekimenaren bigarren faseko saioak

Asteburuan Erauntsi (argazkian) eta Leitzaundiren arteko lehia bikoitza izanen da Ituren eta Leitzaun. Larunbatean, Igantzin, Rimak Exkaxko.

cumah Reggae Band, Norte Apache eta Selettah Stepi taldeek kontzertua eskainiko dute 21:30etik aitzinera Xaxerna Gaztetxean.

ELIZONDO

Ze esatek! eta Luz de Putas Lur aretoan**Martxoaren 10ean**

Ze esatek! eta Luz de Putas taldeek kontzertua eskainiko dute gauerditik aitzinera Lur aretoan. Sarrerak: aitzinetik 7 euro (Antxitonea, Txokoto, El Infiernito Guitar Shop eta Atxaspi). 10 euro bertan.

Chuchin Ibañez disko berria aurkezten Lurren**Martxoaren 17an**

Chuchin Ibañezek disko berria aurkeztuko du Lur aretoan 00:30etik aitzinera. Sarrera 9 euro eta kontsumizio bat doan 03:30 arte. Ondotik DJ Alkape eta Lur Djotak.

Bertsoak

Bardoak 2012

ITUREN

Martxoaren 9an

Erauntsi eta Leitzaundi taldeak Herriko Etxeko Ganbaran. 21:00etan bertso afaria.

LEITZA

Martxoaren 17an

Leitzaundi eta Erauntsi taldeak 18:30ean.

IGANTZI

Martxoaren 17an

Rimak Exkaxko eta Bertze Maldikoak Biltokin. 21:00etan bertso afaria.

Zinema

LEITZA

Zinemako azken saioak**Martxoaren 9 eta 11n**

Drive filma ikusgai zinemaren.

Martxoaren 16 eta**18an Le Havre filma**

ikusgai zinemaren.

Ostiralean 22:30ean

eta igandean 19:30ean.

Erakusketak

ELIZONDO

Birziklatuz ikastaroko ikasleen lanak**Martxoaren 1etik 20ra**

Birziklatuz ikastaroko ikasleen lanen erakusketak Arizkunenean.

Solasaldiak

BERA-ELIZONDO

Arkupeak elkartearen eskutik**Martxoaren 13an**

Beralandetan eta martxoaren 14an Arizkunenean Bizi testamentua, heriotz duina eta aurrez emandako borondateak solasaldia, eskainiko du Koldo Martinez Nafarroako Ospitaleko medikuak.

ELIZONDO

Krisiari ezkerreko alternatibak**Martxoaren 15ean**

Krisi kapitalista eta ezkerreko alternatibak solasaldia, eskainiko du Arizkunenean Isidro Esnaola ekonomilariak, 20:00etan, Ezker Abertzaleak antolatuta.

Energia alternatiboak**Martxoaren 20an**

energia alternatiboez solasaldia eta *Energia*

gara kooperatibaren aurkezpena Arizkunenean 19:00etan.

BERA

Alzheimerri buruz**Martxoaren 14an**

Alzheimerri buruz solasaldia eskainiko dute Ruth Gonzalez Etxalaroko medikuak eta Idoia Lorea psikologoak 17:30ean Beralandetan.

Ospakizunak

ARANTZA

Mozorro besta**Martxoaren 17an os-**

patuko da. Xehetasunak 28. orrian.

BERA

Gazteen Eguna**Martxoaren 10ean**

Mugak hautsiz, gazteria aitzinera! goiburupean egun osoan izanen den egitaraua La Po'p'lla, Ztah, DJ Bull eta talde sorpresaren kontzertuekin bukatuko da.

ESKUALDEA

Emakumearen Eguna**Martxoaren 8ko**

ospakizunaren inguruan

hainbat ekitaldi antolatuta dira eskualde osoan. Xehetasunak 34. orrian.

Kontzertuak

ERRATZU

Stupenda Jones**Zubipuntan****Martxoaren 16an**

Stupenda Jones taldea ariko da Zubipunta ostatuan 23:00etatik aitzinera.

BERA

Hip Hop Reggae Besta**bigarrenegaztetxean****Martxoaren 17an Ta-**

PROPOSAMENA

ELIZONDO

Chuchin Ibañezek diska aurkeztuko du Lurren

Aspaldiko ezaguna da Chuchin Ibañez nafar-mexikarra Lur aretoan eta hilaren 17an diska berria aurkeztuko du gainera (Sarrera: 9 euro). Aitzinetik, larunbat honetan, Ze esatek! eta Luz de Putas taldeek kontzertua eskainiko dute gauerditik aitzinera Lur aretoan. Sarrerak aitzinetik salgai daude ohiko lekuetan 7 eurotan eta Lurren egunean berean 10 eurotan salduko dira.



DONEZTEBE

Zinema marbtxan

Martxoaren 11n *Cars* 2 filma ikusgai izanen da zinematan 16:30ean eta *No habrá paz para los malvados* filma 18:30ean. Mendaurrea Erreka Guraso Elkarte-ek antolatua.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango

Mendigoizaleak

Martxoaren 11n Burkaitzea-Xaguxelai-Egurtegi-Artesiaga-Erregearen Bidea-Burkaitzea ateraldia egingen da (08:00).

Martxoaren 18an Eskola-Bereketxea-Arpekosaindu-Artzamendi-Burkaitzea-Lezeta-Eskola ateraldia egingen da (08:00).

BERA

Labiaga Ttiki taldea

Miaiarat

Martxoaren 11n

Miaiarat ateraldia antolatuko du Labiaga ikastolako Larun Ttiki mendi taldeak. Kotxez Maleteraino (09:30).

ARKUPEAK

Arizkun inguruan

Martxoaren 21ean Ordoki (Arizkun)-Arizkun-Otxazko-Soalar-Basabar-Iñarbegi-Xorroxin-Gorostapolo-Arizkun-Ordoki ibilbidea egingen dute (09:00 Ordokian).

SUNBILLA

Ulibeltzak Mendi Taldea

Martxoaren 18an Adira igoko da Ulibeltzak Mendi Taldea. (07:00).

ARANTZA

Bortzirietako emakume mendizaleak

Martxoaren 11n

Arantzatik Mendaurrea igoko dira (09:00). Gero, bazkaria Aterpen.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Txori txoraa

JUAN KRIZ IGERABIDE

Alberdania, 2011

Okil baten istorioa kontatzen da. Moko-okor jaitzen delarik, ez du balio zurgintzarako, eta familiak arbuiatu egiten du. Bere akatsari etekina ateratzen dio, ordea, eskulturagile bihurturik. Hori ez dute ontzat ematen familian, eta etxea utzi beharrean gertatuko da. Bidaia inizatiko luze bat abiatuko du, leku berriak eta aukera berriak ezagutzera, eta era askotako izakiekin topo egingo du, abenturaz abentura bere burua ezagutzeko. Bizitzan aitzinera egin beharra dagoela kontakizun poetikoan. Juan Kruz Igerabide idatzitako istorioa, Maite Gurutxagaren ilustrazioekin hornitua dator. Horrela hasten da ipuina: «Txoraturik nengoen arrautza barruan, laster jaio behar nuelako. Entzuten nituen basoko hots zoragarriak, eta gogoz beterik nengoen arrautzatik irteteko. Batzuetan, haizeño batek kulunkatzen zuen arrautza, sehaska bat bezala, eta lokaturik geratzen nintzen, amets gozotan».

Musika



Puntu bakar batean
elkartzeko dira ertzak

SHARON STONER

Mauka Musikagintza,
2012

Oñatiko hirukoteak hirugarren lan luzean, kanatu bakoitza pasarte desberdin aunitzek osatzen dute. Oñatiko Musika Eskolako gela batean baliabide gutxiarekin eta beraiekin kabuz grabatu badute ere, detailez, ñabarduraz eta mimo handiz eginda dago. Diskotik singletzat aukeratutako *Bosforo*, *desioa eta distantzia* stoner-rock pieza boro-bila da, indartsua eta itsaskorra eta *Saiak zai* piezak ere taldearen marka zizelkatua dauka, erritmo aldaketa ia jazzeroak baditu ere. Lan honetan tempoekin eta intentsitateekin are eta gehiago jolas-ten dute: erraterako, *Zure ezpainak lastandu gabe* pieza erromantiko aberatsean; melodiekin eta 70eko rockaren flirteatzeko tentaziioa dute (*Galbidean*, *Gogoan*); zein iluntasunean (*Ispiluak*), esperimentazioa (*Ertzak*), apatxeetan (*Jauzi*) edo zuzenean adituko ez dugun *Sizigia* folklyan murgiltzen. Oñatiko hirukotearen orain arteko disko melodiko eta aldi berean arriskatuena osatu dute.

Internet



Nafarroako taldekako
bertso ekimenaz

WWW.BARDOAK.COM

Dagoeneko azken txanpan sartua da Bardoak 2012, Nafarroako taldekako bertso ekimena. Eta ekimen honen berri, Nafarroako Bertsozale Elkartek kudeatzen duen www.bardoak.com webgunearen bitartez izaten ahal duzu. Aurkezpena (Zer da Bardoak 2012, Nafarroako Bertsozale Elkartea, Laguntzaileak), Albisteak, Parte-hartzaileak, Saiokak, Saillapena (Emaitzak eta egitura), Lanak eta Multimedia (Argazkiak, Bideoak eta eskuorria) ataletan banaturik dator eta bakoitzean klikatuz joan zaitetke, talde bakoitzeko partaideak zein diren jakiteko, hurrengo saioa noiz eta non izanen den jakiteko, baita sarrerak erosteko ere. Asteburu honetan bigarren fasean sartuko da ekimena eta lehian segitzen duten sei hirukotetatik hiruk lortuko dute martxoaren 31n Leitzan jokatu den finalerako txartela.

Nire aukera



Diego PEREZ
Narbarteko gaztea

«Konpainia onarekin joaten bazara, leku guziek badute bere xarma»

Lana eta gero igeri egitera joatea gustatzen zaio Diegori edo, bertzela, lagunekin egoten da. Afizioei dagokienez, «kirola egitea dut gogokoan, baina uso ehiza ere asko gustatzen zait. Gero motoan ibiltzea, mendian ibiltzea eta horrelakoak egitera joaten naiz batzutan». Narbartearrarentzat asteburuan hoberena «larunbata lasai lasai hastea da, presarik gabe jeikiz, eta atsaldean lagunekin planen bat, pala partida batekin edo norabait buelta bat ematera joan, gero afaldu eta juerga eder bat. Eta gero igande lasaia izan dadila, astelehenean berriz ere ahal bezain ongi egoteko». Oporretan handik hona ibiltzea gustatzen zaio, leku berriak eta kultura ezberdinak ezagutzeko. Konpainia onarekin berdin zaio nora joan, «zeren leku guziek daukate beren xarma». Hori bai, Machu Pichu ezagutzea gustatuko litzaioke. Musika aditza eta irakurtza gustatzen zaio, «kosta egiten zait liburuarekin hastea, baina gero asko engantxatzen naiz».

ETXEBIZITZAK**salgai**

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. 943 217817.

DONEZTEBE. Ogiberri gainean, pisua salgai. 2 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta trastelekua. 36m²ko terraza bikaina, oso eguzkitsua. Denahegoaldera. Prezio berria. 656 770373.

ELIZONDO. Balda medikuaren plazan, 50 m²ko apartamentua salgai. Gela bat, egongela, sukaldea eta jangela, komun bat eta trastelekua. Arras eguzkitsua eta igogailuarekin. Mobleztatua saldu daiteke. 121.200 euro. 626 389226.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BURLATA. 80m²ko pisua salgai. Altuera, argitasuna eta bista ederrak. 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Berritua. Eskola baten ondoan eta trafikorik gabeko karrikan. 180.000 euro negoziagarriak. 667 454917.

NARBARTE. Lakoizkitako enparantzan 87 m²ko pisua salgai, 90.000 euroan. Oso egoera onean. Pisu guztia berritua. Egongela, sukaldea eta despentsa, bainugela, balkoia eta trastelekua. 948 592018.

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

HABIBIZTI
PISUAK • GANBARAK • GARAJEAK
LOKALAK
Informazioa eta salmenta
607 946 785 - 948 109 818
BELURRA (Hondaketa) 3. Dendaketa 31.

ETXALAR. Lizaietako paraje zaharberritzeko borda salgai, lur eremuarekin. 661 121540.

BERA. 34 m²ko atikoa salgai. Arrazoizko prezioan. Leihoeekin eta altuera haundikoa. 650 981950.

DONEZTEBE. Herri erdian bi pisu salgai. Sartzeko prest, egoera onean eta berogailuarekin. 96.000 euro eta 108.000 euro. 649 472658.

ETXEBIZITZAK**errentan emateko**

LESAKA. Bittiria kalean mobleztututako pisua

errentan emateko, lehenbiziko solairuan. 4 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea. Oso eguzkitsua. 606 781082.

DANTXARINEA. Landa-ko etxea errentan emateko. Sukaldea, 3 logela, bainugela konpletoa, berogailua, beheko sua eta 30m²ko terraza. Aukeran, 50 m²ko garajea itxia eta 90 m²ko kamarotea. 659 849570.

IGANTZI. Pisu errentan emateko, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela, trastelekua eta garajearekin. Eguzkitsua eta mobleztatua. 620 997794.

ETXALAR. Etxebizitza errentan emateko. 948 635137.

DONEZTEBE. 80m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, trastelekua eta igogailuarekin. 607 890923.

DONOSTIA. Gros auzoan pisua errentan emateko. 3 logela eta 2 bainugela. 634 450747.

ETXEBIZITZAK**konpartituak**

IRUÑEA. Buztintxuri auzoan, logela errentan emateko, neska baten-tzat. Pertsona arduratsua

eta ez erretzailea. Hilabetean 250 euro + gastuak, argia, gas eta ura... 636 181546.

LURRAK/ORUBEAK**salgai**

SUNBILLA. 440m²ko lur eremu urbanizatua salgai, 220 m²ko familia bakarrekote etxebizitza eraikitzeko baimenarekin, argindarra, ura, gasa, urzikinen sarea, geoteknikoa eta proiektua. Guztira 66.000 euro. 616 289492. nabaz@hotmail.es.

LANA**eskariak**

BAZTAN. Irakasle titulua duen neska bat Lehen Hezkuntzako klase partikularrek emateko prest dago, baita haurrak zaintzeko ere. Behar izanez gero, haurrak eskolatik jaso edo eramateko auttoa badu. 687 012790.

BAZTAN ETA INGU-RUA. Irakasle titulua duen neska bat klase partikularrek emateko prest dago, baita haurrak zaintzeko ere. 678 309025.

Neska gazte batek zerbitzatzen, etxeak garbitzen edo adinekoak zaintzen lan eginen luke. 948 510665/695 716894.

Neska tituluduna ile-apaindegi batean lan egiteko prest, edo haurrak zaintzen. 607 750553.

LEITZA. Emakume batek adinekoak zainduko lituzke, orduka. 661 172065.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(otsailaren 17tik 24ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 48,00 € (+2,00)

Zerri gizena
1,244 € kilo. (+0,044)

Zerramak:
0,540€ Kg/bizirik. (+0,020)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,43 (=)
1.koa 4,13 (=)
2.koa 3,89 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,49 (=)
1.koa 4,21 (=)
2.koa 4,11 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 100,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 120,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,91/3,01
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,80/6,20
8-10 kilokoak: 4,60/4,80

SANTESTEBAN Tailerrak

KANGOO DYNAMIQUE
1.6 DCI 130CV
2007 urtekoa - 82.000km

HERANNE 16 TON-TON
1.9 DCI 100CV
2011 urtekoa - 20.000km

KANGOO AXA
1.4 DCI 96 CV
2007 urtekoa - 48.000km

ETA DAMIERA
Kangoo Express 1.5 DCI 100CV
Kangoo Express 1.5 DCI 100CV
Kangoo Express 1.5 DCI 100CV
Kangoo Express 1.5 DCI 100CV
Kangoo Express 1.5 DCI 100CV
Kangoo Express 1.5 DCI 100CV
Kangoo Express 1.5 DCI 100CV
Kangoo Express 1.5 DCI 100CV

DONEZTEBEKO RENAULT eta KOTZ JA BERRITAN SENGAND ESKUNTZAK

Neska euskaldun batek astez ordu batzuetan lan egingen luke: adinekoak zaintzen, garbiketan...
☎666 663642.

LANA eskaintzak

BERA. Etxeko lanak egiteko andre euskaldun bat behar da, astean behin, hiru orduz. ☎619 432396.

DONEZTEBE. Titi ostatuan asteburuetan sukaldetan lan egiteko pertsona bat behar da. ☎948 450271.

ANIMALIAK salgai

4 asto eme eder salgai, euskal arrazakoak. ☎690 181644.

Bi ahari mutur gorri salgai, 2 eta 6 urtekoak. 948 504498.

ANIMALIAK erosi

Ahari buru motza, gorria eta gaztea erosi nahi da. ☎948 634095 (deitu ilunabarretan).

Mastin leones arrazako

zakurkumea erosi nahi da. Arra. ☎609 404229.

ANIMALIAK oparitu

Katakumeak oparitzeko. ☎948 580231.

MOTORRAK salgai

Africa Twin motorra salgai, oso ongi zaindua. 22.000 km. ☎649 830152.



DENETARIK salerosketak

ORONÓZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.

Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 / 699 461394.

Pago egurra lotetan salgai. ☎659 867287 / 699 461394.

martxo
zk. sartua
9.558

Zonaldeko produktuekin osatutako lotea

Sartuak hiltaren 31 baino lehen deitu behar du.

Hortaztetako Hiri Hondakinen Mankomunitatera

☎48 63 52 54

Txerria hiltzeko kajoia eta bankoa salgai. Etxean 2 lagun artean, lasai ederrean hilko duzu txerria. Deitu eta etorri ikustera. Prezioa: 475 euro. ☎608 440628/660 240779.



DENETARIK galdu/aurkituak

ETXALAR. Sabueso arrazako zakurra galdu da. ☎690 616106.


BERA. iPod bat galdu dut Toki Onako aparkalekuan. Norbaitek aurkitzen badu, deitu. Eskertuko da. ☎948 450875.

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€



Iturego ILARGIK urteak bete ditu martxoaren 1ean. Zorionak maitia, 6 muxu potolo eta paaaaa.



ANE OSUA CABIDA beratarak otsailan 12 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia eta bereziki lkerren partetik. Aupa Xelebreak!



Berako IKER IPARRAGIRRE IARIATEK 6 urte bete ditu martxoaren 4an. Zorionak eta muxu bat Berako familiaren partetik. Tarta goxoa espero dugu!




Martxoaren 18an Labaiengo ANEK 10 urte beteko ditu. Egun on bat igaro dezazula eta zorionak familiaren partetik.



Zorionak urrezko bihotzei, urrezko muxuak familia osoaren partetik.




Aranoko ENERITZ SALABERRIA NARBATEK martxoaren 22an 7 urte beteko ditu. Zorionak etxeko partetik. Eneritz hemen dezu zazpi urteko festa; hobirik ezta; azturikan geundela ez izandu kezka; haunditzen zuazela indarrez garjezka; ikasten ta jostatzen alai ta parrezka; bizipozari eutsi bihotzeko neska.




IRADIK martxoaren 5ean, JONEK 18an, ATATXIK 19an eta TELMOK 20an, urteak beteko dituzte. Zorionak familia guztia partetik.



Zubietako LANDER INAKOTXEA ZUBIALDEK 4 urte beteko ditu martxoaren 9an. Mila kilo zorion Xune, Mirari, Unai, Jone eta Aimarren partetik, baita ama eta Irungo familiaren partetik ere. Ongi-ongi pasa eguna eta berendu goxogoxoa prestatu denentzat! Muxu handi bat.



SAIOA PEROTXENA DANBORIENA iruritarak martxoaren 16an 4 urte beteko ditu. Zorionak eta aunitz urtez Iruritarako familiaren partetik! Ongi-pasa eguna! Muxu haundi bat!



JOSU IPARRAGIRRE IGOA beratarak 11 urte beteko ditu martxoaren 16an. Zorionak eta muxu bat familia, eta bereziki Nerea, Ane, aita eta amaren partetik.

ttipi-ttapa

aldizkariaren bidez ezagutu nahi duzue:

- Hego Euskal Herria 2012
- Europa 2012
- Etxeak, Lurak eta Maitasuna 2012
- Arretak eta Aurteko 2012
- Ego Euskal Herria 2012
- Lurak 2012

(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

hemen agertu nahi duzu?

www.ttipi.net

4 aldizkariak 8 aldizkariak

ttipi-ttapa **liderrak** **gure eskualdean**

eta baita azterketa egiterakoan
 CIESek **Nafarroa Garaiko**
mendialdean
 hartu duen
 111 udalerrien eremuan ere

BESTE BATZUK
 5.000
 irakurle

EL PAIS
 1.000
 irakurle

MARCA
 1.000
 irakurle

BERRIA
 2.000
 irakurle

GARA
 6.000
 irakurle

D. NOTICIAS
 9.000
 irakurle

D. NAVARRA
 16.000
 irakurle

TTIPI-TTAPA
 29.000
 irakurle

mila esker ttipi-ttapa irakurtzen duzuen guztiei

SEXUAREN ARABERA

GIZONAK %48,90
EMAKUMEAK %51,10

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE %13,60
25-34 URTE %18,60
35-44 URTE %18,30
45-54 URTE %28,20
55-64 URTE %10,30
+ 64 URTE %11,00

IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE %3,20
LEHEN IKASKETAK %14,90
LANBIDE HEZIKETA %20,80
BATXILERGOA %27,40
UNIBERTSITATEA %33,70

MARTXOAK 10

ZE ESATEK!

+ LUZ DE PUTAS

00:00 7€ Aurretik 10€ Bortan
Salmenta puntusk: Ankytonex eta Tickots (Filizako) - El Infiernito Guitar Shop (Irailen) - Kozak (Lesaka)

MARTXOAK 17

CHUCHIN IBAÑEZ

+ DJ ALKAPE + LUR DJOTAK

00:30 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

BIRKO MARDOKO BARRIOA

MARTXOAK 24

OIHAN VEGA

DJ + GOGOS

01:00 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte





garagardotegia

Ostiral, larunatsa eta jaungoak bezperetan irekia
(IRAILERAK TEL. 94311861)

bardoak

2012

nafarroako taldeetako bertso ekimena





MARTXOAK 9 OSTIRALA

ITUEENSO HERRIKO ETXENDI (BARBASTA)
ZLOOSTAN BERTSO AFARA
ERRAUNTS (MALERREKA/ORONZO)
LEITZALAN (LEITZA)

MARTXOAK 12 LARUNBATA

LEITZAN, LEBROCAN BERTSO SAIOA
LEITZALAN (LEITZA)
ERRAUNTS (MALERREKA/ORONZO)

IZABEKO BIZTON ELKARTEAN ZLOOSTAN
BERTSO AFARA
RIMAN EKXAKKO (LESACA)
BERTZE MALDOKAK (IZRUGA/AURITZ)

www.BARDOAK.com

ttipi txartela

99 999 9999

Albora Mendegia

40120/41-2

00000000

000000

**DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK**

Eskatu zurea **948 63 54 58** telefonoan

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

560. ALEKO IRABAZLEAK

* **BAIZABAL 2 LIBURU**

Oreana Zabazguzan | Josefa Goni Aizkorbe | ITURRI
Mundoakutsua | Gloria Arretxe Apeztegia | SUNDIA

* **AQUARIUM 2 SARRERA**

M^{re} Luz Lariarte Ibarra | ELUDONDO

* **URTXINTXA ESKOLA PUNPALAPLAN CD + DVD**

Mila Perez Munain | URDIAZUBI

* **MARTIKO LOTEA**

Lalre Portu Talletana | LESAKA

* **ONDDO TA PUNTO KAMISETA**

Eusebio Urroz Soldado | EBITZA-LAJAEN

* **LANKU LIBURUA ETA DVDa**

Marta baten atxanak iburua | M^{re} Tere Urkijo Txoperena | LESAKA

M^{re} C. Turiña DVDa | Jose Luis Irurtzun Aierza | LESAKA



PUZZLEA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

www.kafexporreta.com



2 LIBURU

Ibaizabal argitaletxea

www.ibaizabal.com



AQUARIUM 2 SARRERA

Donostiako Aquarium-a

www.aquariumss.com



JERTSE BAT

Oninart denda

www.oninart.com



MUNDUKO IPUINAK

Luditoys argitaletxea

www.luditoys.com



GU TA GUTARRAK CDa

Lanku argitaletxea

www.lanku.com

DESKONTUAK

AYLA

argazkigintza - fotografia
%10 karnet argazkietan

DATUCELAY

%10 Bateria eta alantzuadoretan

edurne

%10 lortzerian

edurne

%30 30ko gaitan

ETXARTE

%10ko deskontua